
ONOMASTICON VASCONIAE

24

ALBERTO ERRAZTI IGARTUA

ZALDUTIK
ZALDIBARRERA

TOPONIMIAN
BARRENA



EUSKALZAINDIA

2004



**ZALDIBAR
ELIZATEKO UDALA**



**Bizkaiko Foru
Aldundia**
Kultura Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**
Departamento de Cultura



Liburu-sortaren zuzendaria / Director de la colección ONOMASTICON VASCONIAE: Andres Iñigo

Aholkularitza / Consejo asesor: Euskaltzaindiaren Onomastika batzordea /
Comisión de Onomástica de la Real Academia de
la Lengua Vasca / Euskaltzaindia

Burua / Presidente: **Andres Iñigo**
Idazkaria / Secretario: Mikel Gorrotxategi
Kideak / Vocales: Patxi Galé
Henrike Knör
José Luis Lizundia
Txomin Peillen
Patxi Salaberrri
Juan San Martín
Amaia Usabiaga

© Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca
Plaza Barria, 15
48005 BILBAO
Tel. 94 - 415 81 55
Fax: 94 - 415 81 44

E-mail: info@euskaltzaindia.net
Webgunea: <http://www.euskaltzaindia.net>

Orrazketa-zuzenketak: Ricardo Badiola Uriarte

ISBN: 84-95438-19-4
Legezko Gordailua / Depósito Legal: NA - 3.362/2004

Grabatuak / Grabados: Markos Basterretxea

Fotokonposizioa / Fotocomposición: ONA Industria Gráfica
Pol. Agustinos, calle F - 31013 Pamplona / Iruñea

Inprimaketa / Impresión: GRAPHYCEMS / Gráficas CEMS. S.L.
San Miguel Industriagunea
31132 Villatuerta
Nafarroa / Navarra

Eraketa / Diseño: Enric Mir i Malé

ESKAINTZA:

*Euskara eta euskal kultura sustatzeagatik
bere eskubide zibilak galdu dituen orori.*

ESKERRAK

Inoiz adierazi dudan legez, eskerrak ematearen kezkarik handiena baten bat baztertuta uztearena izaten da. Beraz, hain labur geratzen zaidan orritxo honetan ez ezik, liburutik zehar ere zenbait pertsona edo erakunderen aipamenak aurkituko dituzue.

Berriemaile izan zaituztedan *zaldibartarroi*, etxeko atea zabaltu eta sukaldeko epeltasunean eskainitako bizipen eta istorioei esker leku-izenak berpiztu eta etorkizunera begira ipintzeagatik.

Fernando Aranberriri, hiru urte hauetan ikerlanaren zuzenketak-eta egiteko elkarrekin igarotako ordu luzeetan *Euskaltzaindiak* izendaturiko gainbegirale baino adiskide bihurtu delako.

Zaldibarko Udalari, egitasmoa aurrera bultzatu eta *Euskaltzaindiaren Onomasticon Vasconiae* bilduman argitaratzeko erabakia harturik, toponimia arloan eskualdeko udal aitzindaria izateko ohorea egokitu zaio eta.

Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeko kideei, urteetako lan isilean, baina etenik gabekoan aritu eta eguneroko jardunean gizartetik jasotako galderei erantzuten dieten modu berean, nire ikerlanean sortutako zalantzen ardura bereganatzeagatik.

“Gure eguneroko bizitzan, segur aski, gehien erabiltzen dugun erreferentzia izenena da. Zenbat pertsona eta leku izen ez ote dugu aipatzen egunaren buruan? Ez da beharrezkoa izanen, bada, arrazoi gehiago bilatzen aritzea gure izenak sailkatu, ikertu eta beren forma ofizialak erabaki ondoren gure hizkuntzaren arautegian sartu behar direla ikustarazteko.”

Andres Iñigo Ariztegi¹

1. (2000) “Onomastika euskararen normalizazioan” *Euskera* XLV, 779. or., Euskaltzaindia.

AURKIBIDEA

HITZAURREA, Igor Barrenetxea-Arando.....	15
TOPONIMIA: JAKITURIA EZBERDINEN TOPALEKUA, Nerea Mujika	17
LABURDURAK.....	21
AITZINSOLASA, Alberto Errazti Igartua	25
I . METODOLOGIA.....	29
1.1. <i>IKERKETA EGITEKO URRATSAK</i>	33
1.1.1. Aurrelana	33
1.1.2. Datu-basea.....	33
1.1.3. Lehenengo inkestak	33
1.1.4. Dokumentuetara berriro	33
1.1.5. Landa-lan zabalagoa.....	34
1.1.6. Toponimoen informazio osagarria	34
1.1.7. Normatibizazioa	34
1.2. <i>IDATZIZKO ITURRIAK</i>	34
1.2.1. Bizkaiko Elizaren Historia Agiritegia (BEHA).....	35
1.2.2. Bizkaiko Foru Agiritegia (BFA).....	36
1.2.2.1. Administrazio Artxiboa (ADM).....	36
1.2.2.2. Judizio Artxiboa (JUD).....	39
1.2.2.3. Zaldibarko Udal Artxiboa (ZUA)	40
1.2.3. Bizkaiko Probintzia Agiritegi Historikoa (BPAH).....	49
1.2.4. DEIKER.....	50
1.2.5. Durangaldeko Nekazaritza Bulegoa (DNB)	51
1.2.6. Durango Merindaldeko Dokumentutegia (DMD).....	51
1.2.7. Enpresa pribatuak.....	51

1.2.8. Euskal Herriko Adiskideen Elkarteko Agiritegia (EAEA)	52
1.2.9. Gipuzkoako Foru Aldundia (GFA)	53
1.2.10. Instituto Geográfico y Catastral (IGC).....	54
1.2.11. Jabetza Erregistroa (JE)	54
1.2.12. Zaldibarko Erregistro Zibila (ZEZ).....	55
1.2.13. Zaldibarko San Andres Eliza (ZSAE)	56
1.2.14. Zaldibarko Udala (ZU).....	57
1.2.15. Zaldibarko Udal Agiritegia (ZUA)	57
1.2.16. Zaldibartarren argitalpenak	58
1.2.17. Zenbait eskritura.....	61
1.3. KARTOGRAFIA ITURRIAK	63
1.3.1. Mapak	63
1.3.2. Planoak.....	65
1.3.3. Katastroa (KAT)	66
1.4. AHOZKO ITURRIAK	68
1.4.1. Baliabide teknikoak	71
1.4.2. Berriemaileen zerrenda.....	72
II. NORMATIBIAZIORAKO IRIZPIDEAK ETA AHOZKO JARDUNA	75
III. BIBLIOGRAFIA	89
IV. INGURUNE HISTORIKO-GEOGRAFIKOA	97
V. LEKU-IZENEN FITXEN EGITURA	105
VI. KALE IZENDEGIA	109
VII. ZALDUKO LEKU-IZENAK	147
VIII. GAZAGAKO LEKU-IZENAK	285
IX. GOIERRIKO LEKU-IZENAK	459
X. EITZAGA ALDEKO LEKU-IZENAK	661
XI. LEKU-IZEN NORMATIBAZATUEN AURKIBIDEA	783

HITZAURREA

Batek baino gehiagok esango zuen honezkero gure herriko leku-izen zahar-
rrak galdu samar dauzkagula, izan ere, urteak joan, urteak etorri era askotako alda-
kuntzak izan dituzte gure toponimoek eta beste asko ahaztu ere egin dira.

Beraz, berandu baino lehen ekin beharreko lana zen hau: Zaldibarko topo-
nimoak jasoko zituen liburua ateratzea. Eta horixe da lan honen egileak burutu
duena. Artxibategietan zeuden izkribuak arakatu eta hainbat zaldibartarren testigan-
tzak jaso, ezkutuan zein indarrean zeuden Zaldibarko leku-izenak bistaratzeko.

Herri baten, inoiz izandako etxe, errota, karobi zein landareen ustezko ize-
naren arrastoari jarraituz, herri horren izatearen gaineko informazio zabala eskura ge-
nezake. Beste modu batera esanda, leku-izenek aldean daramate memoria kolektibo-
aren zati handi bat. Eta penagarria litzateke horri galtzen uztea.

Hori horrela, ohore handia da niretzat, Zaldibarko alkate moduan, toponi-
mia lan hau gure herriari aurkeztea eta ondo merezita dituztenei gure eskerrik zintzo-
nak ematea.

Beharbada eskerrik asko xume batekin ez da nahikoa izango egindako lana
eskertzeko, baina hala egingo dugu. Eskerrik asko, liburu hau prestatzean era batera
edo bestera esku hartu eta lagundu duzuenoi, laurogei lagunetik gora, nik dakidala.
Eskerrik asko, Alberto Erraztiri. Eta eskerrik asko, Euskaltzaindiari. Zuen denon aha-
leginik gabe ezinezkoa izango baitzen toponimia-liburu hau ateratzea.

*Igor Barrenetxea-Arando Garitaonandia,
Zaldibarko alkatea*

TOPONIMIA: JAKITURIA EZBERDINEN TOPALEKUA

Toponimia arloan lanean dihardugunontzat, toponimia bera gustuko eta bokaziozko zeregina dugunontzat, herri mailako toponimoak edo leku-izenak modu sistematikoan jasotzen, kokatzen, sailkatzen eta normatibizatzen dituen ikerketa esku artean izatea beti da une pozgarria. Lehenengo eta behin iturri idatzien hustuketarekin Euskal Herriko toponimoen *corpusa* aberastu egiten delako, baina, batez ere, galzorian dauden ahozko toponimoak gordetzen direlako. Zaldibarreko ikerketa honen aurrean gainera poztasun hau handitu egiten da nire eskualdeko, Durangaldeko, hizkuntzaren eta lurraldearen altxorraren zati bat berreskuratu egin baita. Aurreko guztiaz gain, aitortu behar dut gaur egunean ikerlari bikaina den norberaren ikasle ohi baten lana izateak poztasun sakonagoa sorrarazten didala, betegarria.

Azken 20 urte hauetan zuzendu ditudan toponimia lan-taldeak antolatzerakoan ez da lan erraza izan ikerlariaren perfila finkatzea, are zailagoa izan da perfil hori betetzen zuen ikerlaria topatzea, hots, mapak ondo irakurtzen zituena, transkripzioetan zehatza zena, harremanetarako trebea edo elkarrizketarako atsegina edota ezagutzen ez zituen teknikak menperatzeko prest zegoena (informatika, argazkigintza, audioa, transkripzioak...). Ezaugarriok, beren zentzu sakon zein praktikoarekin, bete-betean daramatza berarekin egileak. Gogoan du zientziek, ezagutzak edo trebetasunek aurrera egiteko beharrezko duten lehen legea: galdetzea. Langile fina, ikerketarekin interesatua eta beti ikasteko gogoz dabilena. Honelaxe ezagutu dut nik Alberto Errazti: eraginkor, bai ikasle moduan, eta bai, ikertzaile gisa.

Esku artean dugun toponimia lan honetan Zaldibarreko hizkuntza ondarearen zati garrantzitsu bat jasota dago; batetik, lekukoei esker oraindik bizirik dirauena, eta bestetik, mota eta garai desberdinetako dokumentuetatik hustutakoa. Bertan, toponimoek antzinako nahiz gaur egungo lurraldearen ezaugarriak, erabilpenak eta jarduerak erakusten dizkigute; hitz gutxitan esanda, zaldibartarren bizimodu aldaketan islapen eta lekuko bihurtzen dira. Informazioa modu zehatz eta sistematikoan aurkezten digu egileak, lekukoengandik jasotako leku-izenen transkripzio zuzenez eta hustutako dokumentuen erreferentzia bat bera ere utzi barik. Hau guztia gutxi balitz, lan

honek baditu berezitasun batzuk, bakarria egiten duten berezkotasunak eta ondoko le-rootan azalduko ditut.

1. Toponimia-lanak hainbat jakintza-arlotako lankidetzaren eredu

Makina bat aldiz irakurri eta entzun dugu, bai irakaskuntzan, baita ikerketan munduan ere, diziplina desberdinetako elkar-lanaren beharra dagoela, zeharreko le-roak bultzatu behar direla. Bada, hementxe dugu esandako honen guztiaren adibide argi eta zuzena: zientzia arloko teknikak erabili dira, materialak aurkezteko modu osagarriak agertuz eta arlo desberdinetako kontzeptuak uztartuz. Toponimia da, nire ustez, modu zuzenean baldintza hauek guztiak betetzen dituen jakintza-arloetariko bat eta halaxe azpimarratu dute goi mailako ikerlari askok (hizkuntzalari, historiagile, geografok...) euren lanetan; beste askoren artean Corominesek, Dauzatek, Jimeno Juríok, Poirierrek, Tortek, Terradok, Traperok...

Azken honek, Maximiano Trapero lingüista kanariarrak hauxe zioen *Para una teoría lingüística de la toponimia* izeneko liburuan (23. or.):

Es la toponimia una parcela cuyo objeto de estudio es tan variado y tan complejo, ciencia en la que deben confluír tantos saberes para interpretarla que dos razones parecen ser las mejores consejeras para quien se acerque a ella: la prudencia y la modestia; la prudencia para no dar nada por seguro y por definitivamente confirmado y modestia para estar dispuesto a aceptar cualquier teoría o explicación ajena que sea capaz de mejorar la propia en cualquiera de los aspectos antes considerados.

Aipatutako ikerlari gehienak elkar-lanean aritu dira beste zientzia batzuetako adituekin eta horrek, duda barik, euren ikerketak aberastu, osatu eta kasu batzuetan zuzendu egin ditu.

Ildo beretik jarraituz, badago Québec-n erakunde bat, Commission de Toponymie izenekoak, aipamen berezia merezi duena: batzorde honek 100 urte inguru daramatza toponimoak biltzen, arautzen, ofizializatzen, zabaltzen eta kontrolatzen; horretarako politika, irizpide eta arauak garatu dituzte eta oso paper garrantzitsua jokatu dute nazioarteko erakundeetan; besteak beste, bost urtetik behin antolatzen diren Nazio Batuek antolatutako Izen Geografikoen Normalizaziorako Konferentzietan. Euren ereduak gure errealitate historiko eta linguistikora ekartzeko moldaketa batzuk behar baditu ere, bat nator batzorde honen abiapuntuarekin (“La toponymie est une discipline qui se situe au carrefour de plusieurs sciences...”) eta baita horrek dakartzan ondorioekin ere eta nagusienetarikoa elkar-lana dugu.

Beraz, ziur nago hurrengo urteetako ikerketetan lan egiteko modu hori ezinbesteko baldintza bihurtuko dena.

2. Herri-lana izanik ikuspegi globala duen lana

Ezagutzen ditudan herri-mailako hainbat ikerlari eta ikerketak helburu “itxia” dute, muga administratiboek ezartzen duten berbera. Zaldibarreko lan honetan erabilitako iturriaren ikuspuntutik bistan da lurralde desberdinetako artxibategietara jo behar izana ez dela arazoa izan ikerlariarentzat. Bestetik, gogoratu behar da, herri askotan gertatzen den bezalaxe, herri honen barruko mugetan banaketa geo-

grafiko naturala gertatzen dela: lur arlorik zabalena *Ibaizabal* arroan kokatuta badago ere, *Eitzaga* auzoa Deba arrokoa dugu. Ikertzaileak, jakina, kontuan hartu du orain urte gutxi Fernando Aranberri ermuarrak egindako toponimia-lana, erreferentzia hori ez du alboratu, ez du ahaztu, eta horrek, bere lanari, gaurkotasuna eskaintzen dio. Beharbada, Alberto Erraztiren ikerlanen nondik norakoak ezagututa, batez ere Bizkaiko eta Arabako makroikerketetan partaideak izanik, ez da harritzekoa bere fitxetan mugakide diren herrien informazioa ere sartzea, lekuek, entitate geografikoek ez baitakite herri-arteak muga administratiboez. Bestetik, aipagarria deritzot, geografoa naizen aldetik, egileak jarraitzen duen entitate geografikoen zerrendaren aplikazioa (*Izen geografikoen glosarioa* izeneko lana gogoan hartuz).

Ikerketa honen metodologia atalean, orain urte bi kaleratu nuen liburuan (*Toponimia eta kartografia: oinarritzko eskuliburua*) emandako aholkuei ere xehetasun berriak gehitzen dizkie Alberto Erraztik. Esan beharrik ez dago, hurrengo edizioa kale-ratzen denean, bai berak, bai herri mailako ikerlanetan dihardutenen esperientziak eta ekarpenek aberastu egingo dutela, zalantza barik.

3. Makrolanetako toponimiaren balidazioaren eredu

Oraindik gogoan dut Alfonso Irigoyen zenak behin eta berriro zioena: “Toponimia-lanak ez dira inoiz amaitzen...” eta honetan gabiltzanok ondo baino hobeto dakigu horrelaxe gertatzen dena. Hori dela-eta, Bizkaia, Gipuzkoa edo Arabako toponimia lan bat “amaitu” dudanean, azken hitza idatzi orduko, berriz ere emaitzak herriak zabaltzeko gogoarekin gelditu naiz. Horren ondoren sor litezkeen zuzenketa, osaketa edo aldaketek... lana hobetu egingo luketelakoan. Zaldibarko kasuan urrats hau eman da; zalantzan jarri dira jadanik jasotako eta kokatutako toponimoak, balidazio inkestaren bitartez, eta honetan ere, nire ikuspuntutik, Zaldibarko herria aitzindari bihurtu da.

Azken lerro hauetan, gure eskualdeko herriak animatu nahi ditut Zaldibarko ekimena jarrai dezaten, toponimia-lan honetan aurkituko dute eredu hurbil eta goi-mailakoa. Horrelako ikerketak bultzatuz Durangaldeko hizkuntza ondarearen berreskurapen eta zabalkunde lanetan bidea egiten joango gara.

Nerea Mujika Ulazia,
Geografo doktorea;
Deustuko Unibertsitateko DEIKER Institutuko
Toponimia-lanen zuzendaria;
Eusko Jaurlaritzako Euskara Aholku Batzordean
Toponimia Batzorde Bereziko kidea

LABURDURAK

Irakurleak laburdura ugari aurkituko dituzenez gero, ondoko eskema honetan bildu dira, lan osoaren ikuspegi orokorra argiagoa izan dadin:

1. AGIRITEGIAK

BEHA	Bizkaiko Elizaren Historia Agiritegia
BAT	Bataioak
FAB	Fabrika
HIL	Hildakoak
H. Pap.	Hainbat Paper
	Par. Fin. Parrokiako Finken Zerrenda
	VC. Kof. <i>Vera Cruz</i> Kofradia
ORD	Ordenantzak
OSP	Ospitalea
PAR	Parrokia
BFA	Bizkaiko Foru Agiritegia
ADM	Administrazio Artxiboa
GEG	Gobernua eta Eliz-gaiak
HEK	Hezkuntza eta Kultura
	A. Esk. Auzo Eskolak
	H. Gai. Hainbat gai
HLG	Herri Lanak eta Garraiobideak
	Err. Errepideak
	Sus. Sustapena
	Tr. Trenbide eta Tranbiak
LIM	Lehen Sektorea, Industria eta Merkataritza
	Men. Mendi liburua

OGE	Ogasuna eta Estadistikak
	Fog. Fogerazioak
UEH	Udal Erregimena eta Hirigintza
JUD	Judizio Artxiboa
KOR	Korrejimenduaren Artxiboa
ZUA	Zaldibarko Udal Artxiboa
	Ak. Lib. Akta Liburuak
	Bai. Bainuetxea
	Ban. Banaketak
	Dok. His. Dokumentazio Historikoa
	Esk. Eskolak
	Haut. Hauteskundeak
	H. Pap. Hainbat Paper
	Kon. Lib. Kontu Liburuak
	SMK San Martin ermitaren kontuak
	GSK Gazagako Santiago ermitaren kontuak
	Kont. Kontribuzio eta Hautamenen espedienteak
	Men. Kon. Mendiak eta Konkordiak
	Mug. Mugarritzak
	ZBE Zaldua – Berriz
	ZEG Zaldua – Elgeta
	ZEI Zaldua – Eibar
	ZEL Zaldua – Elorrio
	ZER Zaldua – Ermua
	ZMA Zaldua – Mallabia
	Sol. Soldadutzarako zerrendak
	Ud. Er. Udal Erroldak
	Ud. Lan. Udal Lanak
	Ur. Urak
	Zin. Ait. Zinpeko Aitorpenak
BPAH	Bizkaiko Probintzia Agiritegi Historikoa
HIP	Hipotekak
NOT	Notarioak
	DL Diego Larreategikoa
	FT Fernando Trañagoitkioa
	JBA Juan Bautista Abasolokoa
	JBG Juan Bautista Ganbokoa
	PRG Pedro Ruiz Ganbokoa
DMD	Durango Merinaldeko Dokumentategia
AST	Astolako Epaiketak
DNB	Durango Nekazaritza Bulegoa
Zin. Ait.	Zinpeko Aitorpenak
EAEA	Euskal Herriko Adiskideen Elkarteko Agiritegia
PKA	Peñaflorida Kondeen Artxiboa
AR	Araiz Atala

	MA	Mallea Atala
	ME	Mendizabal Atala
	MU	Munibe Atala
	UG	Ugarte Atala
	ZA	Zaldibar Atala
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia	
	URT	Ariola urtegia
HPS	Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza	
	ETD	EAEko Toponimoen Datu-basea
IGC	Instituto Geográfico y Catastral	
	TL	Topografia lanak
	ZAB	Zaldibar – Berriz
	ZAE	Zaldibar – Eibar
	ZAG	Zaldibar – Elgeta
	ZAL	Zaldibar – Elorrio
	ZAM	Zaldibar – Mallabia
	ZAR	Zaldibar – Ermua
JE	Jabetza Erregistroak	
	DJE	Durangaldeko Jabetza Erregistroa
	ZJE	Zaldibarko Jabetza Erregistroa
ZEZ	Zaldibarko Erregistro Zibila	
	EZK	Ezkontzak
	HE	Heriotzak
	JA	Jaiotzak
ZSAE	Zaldibarko San Andres Eliza	
	BAT	Bataioak
	HIL	Hildakoak
	Matr. Lib.	Matrikula Liburua
ZU	Zaldibarko Udala	
	BUE	Biztanleen Udal Errolda
	OI	Ondasunen Inbentarioa
ZUA	Zaldibarko Udal Agiritegia	
	Ak. Lib.	Akta Liburuak
	EHSD	Elizateko herri-ondasunen salmenten dokumentu zaharrak
	LNE	Lan Nagusien Espedienteak
	NAUE	Nekazarien Aberastasunaren Udal Errolda

2. ARGITALPENAK²

AV	<i>Apellidos Vascos</i>
AZ	<i>La Anteiglesia de Zaldibar</i>
COR	<i>El Correo Español</i> egunkaria
EB	<i>Ermitas de Bizkaia</i>
EE	<i>Ermua-Eitzaga leku-izenak</i>
FDM	<i>Fuentes Documentales Medievales del País Vasco</i>
FHV	<i>Fonética Histórica Vasca</i>
HKK	<i>Herriko Kondaira Koadernoak</i>
IEET	<i>Iurreta Elizateko Euskara eta Toponimia</i>
KAL	<i>Kalean</i> aldizkaria
ZG	<i>Zaldibarko Gidak</i>
ZAL	<i>Zaldiberri</i> aldizkaria

3. LABURDURA OROKORRAK

adb.	adibidez
dok.	dokumentua
er.	erregistroa
esp.	espedientea
esk.	eskriturak
fin.	finkak

hilabeteak

urt.	urtarrila	ots.	otsaila	mar.	martxoa
api.	apirila	mai.	maiatza	eka.	ekaina
uzt.	uztaila	abu.	abuztua	ira.	iraila
urr.	urria	aza.	azaroa	abe.	abendua

ik.	ikus
kar.	karpeta
ku.	kutxa
libk.	liburukia
mik.	mikrofilmea
mug.	mugarria
mug. os.	mugarri osagarria
nor.	normatibizatua
or.	orrialdea
orr.	orrialdeak
p.s.	paper-sorta
zk.	zenbakia

2. Bibliografia atalean liburu guztien datu zehatzak erakutsiko dira; hemen, ordea, askotan errepikatzen diren batzuk baizik ez ditugu aipatuko.

AITZINSOLASA

Hamabost urte joan dira Nerea Mujikak, Deustuko Unibertsitateko DEIKER³-Toponimiako arduraduna, eurekin lan egiteko eskaintza egin zidanetik. Horretarako, aitzakia merke xamarra erabili zuen, dena esan behar bada, hots, Bizkaiko mendiak oso ondo ezagutzen ei nituela eta ea prest izango nintzen beraiek batutako leku-izenak aztertu eta oharren batzuk egiteko. Ezetz esaten ez dakiten horietakoa naizenez gero, berehalaxe ekin nion erronkari; alegiazko ipuinetan gertatzen den bezala, sagar distiratsua erakutsi eta ezin utzi kosk egin barik. Pozoia txertatua zegoen bai, eta horrelaxe hasi zen oraindik amaitu ez dudan toponimo, hagianimo, eta beste hainbeste *-nimo* amaierako berben arteko maratoi luzea.

1990.ean *Bizkaiko Bira* (gerotxoago *Vuelta a Bizkaia* gaztelaniazko bertsioan) mendi gidaliburua kaleratu zidaten *SUA edizioak* argitaletxeok. Beti eskertuko diet zer gerta zitekeen jakiteke nire lana aurrera ateratzeko izandako ausardia, halako produktu batean ordura arte ohiko ez ziren informazio berritzaileak eskaini baikeintuen (Toponimia, Etnografia, Historia, e.a.). Nire lasaitasunerako, balentria haren parekoa izan zen mendizale-erosleen harrera eta lehen hiruhilabeteetan edizio erdia saldua izana eurekin nuen zor morala kitatzeko modua bihurtu zitzaidan.

Txertoak tarteka berritu behar direla-eta, hurrengoan berriro hurbildu zitzaizkidan DEIKERekoak (durangar berberaren bitartez, nola ez!), baina egitasmo berria ez zen ahuntzaren gau erdiko eztula. 1991n Arabako zenbait herritako⁴ landa-beharra egiteko gonbitea luzatu zidaten eta orduan ere haginkada ederra eman nion amuari. Mendiz mendi ibili naizenetan beti izan dut galdetzeko ohitura, ez dira gutxi izan ahoa bete hortz geratutako baserritar edo artzainak beraiengana jo eta harri kokor bati buruzko izena itaundu ondoren. Bestaldetik, hizkuntza bera ere oztopo baino

-
3. DEIKER: *Toponimia para la cartografía a escala 1:5.000* (Bizkaia). Bilbo, 1989. Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Lurralde Politikarako Sailak agindutako lana.
 4. Niri egokitu zitzaizkidanak hauek izan ziren: *Asparrena*, *Barrundia*, *Donemiliaga* eta *Zalduondo* eta mendialdean, *Entzia Partzuergoa*.

lotura izan da kasu gehiagotan eta Euskal Herrian jardun izanak emandako eskarmen-tua baliagarria izan zait oso zenbait egitasmo berriren aurrean kikildu ordeaz arduratzen nireganatzeko. Hortaz, Gipuzkoako muga alboko hartakoei Arabako lautadakoei *los vascos*⁵ deitu arren, nire lehendabiziko grabazio hauek gaztelania hutsez egin nituen. Onartu behar dut batzuetan baldintza gogorretan ibili nintzenagatik, errepideetan elurrez inguraturik edo mendi aldean ekaitz giroan, izan zirela gorputza zein arima gozatzeko momentu ugari, esaterako, oparitzen zizkidaten *Ozetako* gazta, *Barriko* indabak edo patatak etxeratzean nahiz berriemaileekin izan solasaldi luzeak, *Garaioko* azken artzain biek (Cecilio eta Fermin) edo *Zalduondoko* Eduardo Ribagudarekin, besteak beste.

Garai hartan toponimia zen gurgil zoroan bueltaka bete-betea ari nintzena, lehenagotik ezagutzen nuen Javier Malo Icíarrek bere laguntzaile izatea proposatu zidan eta 1991-1993. urteen artean Durangaldeari zegozkion mapak berrantolatuta egin genituen eta 1995ean Debagoienekoak. Barakaldoko Euskal Herriko zein Espainiako gailur-lerroen mapa kartografikoetan aitzindari izan dugu eta erabiltzen duen artisaun metodologiagatik batzuetan hutsak⁶ sortzen badira ere, haren lan ikaragarria txalotzeko modukoa da, inolako zalantzarik gabe.

Gurgilaren abiadura gero eta arinago zihoan eta 1994an *Iurreta Elizateko Euskara eta Toponimia* liburua argitaratu zidaten, ia hiru urte luzez eginiko lanaren ondorioa, hain zuzen. Orduan zehaztutako bidea⁷ batzuen gustukoa izan ez arren, denborak erakutsi du leku-izenak egoki batzeko txanpon baten alde biak zaindu behar direna: lekuko berba egiteko modua alde batetik, eta artxiboetan gordeta dauden idazkiak bestetik. Horrelaxe lortu baitaitezke emaitzarik fidagarrienak.

1995. urtean beste urrats berri bat egin nuen paperen arteko ibilbide honetan. Hainbat egitasmo baztertuta, kazetaritza⁸ munduan sartu eta *Egunkariako* “Mendi Magalean” orrietan hasi nintzen idazten. Gipuzkoa eta Bizkaiko mendi ibilbide hauek jarraipena izan zuten *Mundumira* gehigarrian eta berrogeitaka artikulu horien arteko batzuk aukeratutakoan, *Bidaide - Euskal Herria mendiz mendi, bidez bidez* izen liburua ederra plazaratu genuen 2002. urtearen amaieran⁹.

Patxada hartzeko beta handirik ez eta hirugarrenez jo zuen Nerea Mujikak nire atean, 2001. urtean hain, zuzen. Orduko hartan Bizkaiko Toponimia berrikustea

-
5. Izen honen erabileraz interesgarria deritzot I. Aranbarrik *Berria* egunkarian “Pilotagintza” titulupean idatzitako iritzi artikuluari (2003/11/2).
 6. Zuzen-zuzena da, nire iritzi, P. Galék *Bizkaiko Gailurren Katalogoan* idatzitakoa: “Egile ezagun honen gailurrieren mapak irakatsi diete pare bat belaunaldiko mendizaleei mendian ibiltzen, besteak beste lerro hauek idazten ari den honi. Kartografia xumezko langintza eta argitalpen hauek emandako informazioaren aberastasuna, kalitate on eta merkearen eredu imitagarria dira gure ustez. Egilea, hala ere, ez da argiro ausartzen euskal toponimoak euskararen araudi moderno akademikoaren arabera egokitzen. Akats txiki hau, haren garaiko boladen ondorio duarik gabe, gure mendien ikerlari nekazekin hau burutz doan mapa askoren birrargitalpenetan ari da apurka-apurka zuzentzen” (14. or.).
 7. “Bilketa honek bi ardatz nagusi uztartu nahi lituzke: bata hizkuntzarena eta bestea toponimiarena. Urkultetan zehar konprobatu ahal izango duzuenek, ikuspuntu sinkronikoan oinarrituta dago, hots, momentu honetan elizatean ahoratzen den euskarak zein ezaugarri dituen azpillerotzea, hala ere, alderdi batzutan, toki-izenetan bereziki, aipamen diakronikoak egitea nahitaezko bihurtu zait, osagarri gisa” (15. or.).
 8. Urte batzuk lehenago Alpino Tabira Mendizale Taldeko *Katazka* aldizkarian idatzitako mendi txangoei esker harturiko eskarmentuagatik lan egiteko modu berriak ez zidan buruko min larregirik eman.
 9. Arrakasta itzela izan eta edizio berri bat ateratzeaz zegoela, denok ezagutzen dugun ekinza bortitzaren bidez *Egunkaria* itxi zuten.

zen helburua, horretarako Durangaldeko zenbait herriren landa-lana¹⁰ egiteko ardura eskaini zidan. Berriemaileak euskaldunak izango zirela, mendiak-eta oso ondo ezagutzen nituela eta pozoiak berriro bor-bor egiten eta ezin ezetz esan.



Durangaldeko herri hauek maratoi luzearen atzenak izango zirelakoan, ekin nion gogotsu baserriz baserriko erromesaldiari; baina bien bitartean, Zaldibarko Udalak Euskaltzaindiaren Onomastika batzordearekin bat¹¹, bertako leku-izenak batzeko deialdia atera eta Lizardiren “Bultzi-leiotik” olerkiaren amaierako ahapaldiaren antzera, “toponimoen behar goriak” naramanez gero, bada, neure egitasmoa aurkeztea erabaki nuen. Hiru urte joan dira eta lehen emaitzari, kale izendegiari, hain zuzen ere, aipatu batzordeak oniritzia eman zionetik, urrats ugari egin dira: leku-izen guztiak batzen zituen behin-behineko lana F. Aranberriekin aztertzea, behin betikoa batzordearen aurrean aurkeztu eta batzordekideen ekarpenak gogoan hartuta zalan-tzak argitzea, etab. Eta honelaxe heldu gara ikerketa honen azken emaitzara, Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeak bultzaturiko Onomasticon Vasconiae bildumako *Zaldutik Zaldibarrera toponimian barrena* izenekora.

Bertako bat baino gehiago zur eta lur geratuko da izenburu horrekin, sentimendu kontrajarriak etorriko zaizkio barne-muinetara, gainera. “Baina ez gabiltza leku berean, ala?” esango du bigarren batek. Azalpen historikoak bururatuko zaizkio hirugarren bati. Utz ditzagun hipotesiak alde batera eta azal dezadan dikotomia horren funtsa, irakurlearen baimenaz, jakina. Izenburu horrek joko bikoitza erakusten du eta leku-izen bi horien bidez bidaia sinbolikoa proposatzen zaizue, hau da, alde batetik espaziotik zeharreko txangoa; hau da, San Andres elizaren ingurutik Zaldibar dorretxearen aurrietara; eta bestetik denboran barreneko jauzia, zaldunen garaitik gaur egungo errealitatera, eta alderantziz. Antzinatek datozkigu toponimo biok, baina zein da jatorrena? Zeinek islatzen du hobetoen bertako leku-izenen nondik norakoak? Zelan erabili beharko lirateke? Erantzungo ahal ditu liburu honek galdera horiek guztiak, eta gehiago!

2003ko abenduaren 28a
Alberto Errazti Igartua

10. Honako hauek izan ziren: *Durango, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria* eta *Zaldibar*.

11. Onomasticon Vasconiae bildumako *Ermua-Eitzaga leku-izenak* (22.zk.) ikerlanaren egilea, Fernando Aranberri Odriozola, izan zen batzordeak izendaturiko pertsona gainbegirale gisa aritzeko.



I METODOLOGIA



Zaldibar (20ko hamarkadan) (10)

Nire neure esperientzia izan da lan honetarako altxorrik preziatuena, Deustuko Unibertsitateko DEIKER institutuarekin batera urteetan egindako landa-lanaren emaitza, hain zuzen¹². Hala eta guztiz ere, aitortu egin behar dut ia inork ez didala inon aterik itxi¹³ eta sortzen zitzaizkidan arazoan aurrean beti izan dudala aldamenen Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeak izendaturiko Fernando Aranberri, zeinen gainbegirale lana funtsezkoa izan den, bai metodologia aplikatzeko orduan eman dizkidan aholkuengatik, baita Onomasticon Vasconiae bildumarako leku-izenen fitxen diseinu eta edukien banaketaren eredu eskaintzeagatik ere.

Atzeneko urteotan toponimia ikerketek berebiziko bilakaera izan dute eta gaur egunean leku-izenen zerrenda hutsak ateratzera¹⁴ baino haratago joan behar dela inork ez du duda-mudatan jartzen. Arrazoi hau dela-eta, metodologia globala¹⁵ da lan honetan proposatzen dena. Ikus dezagun, bada, arloka zeintzuk diren helburu hori gauzatzeko erabil daitezkeen baliabide teknikoak:

Datu-basea¹⁶

DEIKER institutuaren antzerako mailaketa duen HPSren aplikazio informatikoa erabili dut toponimo-bilketa honetan. Nik neure datu-basea sortzen denbora

-
12. Horretaz gain, Nerea Mujikaren *Toponimia eta Kartografia: oinarrizko eskuliburua* (2002) oinarri-oinarrian izan dudala ez dago ukatzerik.
 13. Lanetik zehar eskerrak hainbestetan ematen ibiltzearenak koipekeriarekin baino zerikusirik handiagoa du barru-barrutik irteten zaidan sentimentuarekin. Agiritegietan aspalditik gabiltzanok ondo baino hobeto ezagutzen dugu funtzionarioen baten burugogorkeriagatik zenbat denbora gal daitekeen edo zenbat joan-etorri egin behar izaten den; askotan, gainera, datu xixtrin bat baino ez lortzeko. Hortaz, oztoporik gabeko jardunean jendearen adetasuna sentitzen denean, dirutan ordaintzen ez den kategoriakoa dugu laguntza hori, guztiz eskergarria.
 14. Luis de Eleizalderen *Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas* delakoa duzue adibide egokia.
 15. Metodologia globala diodanean, baliabide teknikoek eskaintzen dituzten aukera guztiez ari naiz, eta horien bidez toki-izenen konplexutasun osoa aztertzeaz.
 16. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Mirari Alberdi, Araceli Diaz de Lezana eta, batez ere, Pablo Sagardoyri nire eskerrik beroenak.

alperrik ez ematearren, lehenagotik ezagutzen nuen tresna bera baliatzea ebatzi nuen eta *Acces 97* programa izan da bertako datuak irakurri eta lan egiteko aukera eman didana.

Kartografia¹⁷

Dagokion atalean azalduko den legez, 1: 5.000 eskalako 1995eko maiatzaren hegalditik Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza Sailekoek papereratu dituztenak izan ditugu esku artean: 62-64, 63-57, 87-8 eta 88-I zenbakidunak, baita interneteko *www.bizkaia.net* datu-basekoak ere: 06264 - 06357 - 08701 - 08808.

Berriemaileek lursailak-eta hobeto ikus zitzaten mapekin batera eskala eta zenbaki bereko 2001eko ortofotorriak ere erabili dira, eta gehienetan lan-tresna paregabea izan da, guztiz gomendagarria, benetan.

Argazkiak¹⁸ eta grabatuak

Zutik dirauten eraiketen argazkiak nik neuk atera ditut (*AE*); lehenak 2002/2003. urteen artean, *Konica TC-X* argazki makinaren laguntzarekin, eta 2004koak *Pentax Optio* digitalaren bidez. Argazki zaharretarako, ostera, anitzak izan dira iturriak: bertakoenak¹⁹, Europistas (*EU*), Gerediaga Elkarte (*GE*), I. Ojangurenen artxiboa (*IO*), Udala (*ZU*) eta, bereziki, Zaldibarko Ilargi Taldearen artxiboa (*LAT*)²⁰.

Prozedurari dagokionez, utzi dizkidaten argazkiak hartuta, *HP Scanjet 3400-C* tresnaren bidez eskaneatu ditut, bereizmen eta tamaina handian gainera. Gero ordenagailuan eurekin lan egiteko *Photoshop 6.0* programaz baliatu naiz.

Orain dela 10 urte *Iurretako liburuan* agertu ziren grabatuen arrakasta ikusita, oraingoan ere sistema bera erabili da, hots, auzo bakoitzaren azalean txertatu dira. Mar-
kos Basterretxea adiskideak egindako lan txukuna eskertzekoa dena, ez dago ukatzerik.

Testuak

Hiru urte hauetan eginiko idazki, txosten eta e-mailei erantsitako artxi-
boak ez dira gutxi izan eta horretarako *Word 2000* programaz jardun dut.

17. Paper zein digitalizaturiko euskarrietan eskuratu ditut. Lehenak landa-lanean erakusteko, eta besteak, etxean ordenagailuaren bitartez handituta, hainbat txikikeriaren bila ibiltzeko.

18. Donostiako Paisajes Españoles delakoaren bulegoan badituzte azken 40 urteotan zerutik ateratako argazkiak, baina erakargarrienak Zaldibarko Udaletxean daude eta horietan eskaneatu ditut. Bilboko *FOAT* deritzonak ez du gauza handirik. Azkenik, *DYCA, S.L.* izenekoak gidetan sartzeko batzuen batzuk atera ditu azken hamarkadan, baina gero nahastu egin dituzte zaharagoak ziren Udaletxeko beste batzuekin, hala ere, artxibatutako artean ez dago bitxikeriarik.

19. Argazki-oinetan izen-deituren inzialak sartu ditut, hots, Mila Arroitaonandia (*MA*), Begoña Asua (*BA*), Andoni Azagirre (*AA*), Balendin Lasuen (*BL*), Laurentzi Maortua (*LM*), Jose Mari Uriarte (*JMU*)...

20. Rafa Iraetaren laguntza funtsezkoa izan zait aukeraketarako. Mila esker.

1.1. IKERKETA EGITEKO URRATSAK²¹

Baliabide teknikoak ezagutu ondoren, azaldu egingo dut, labor-labor bada ere, zer-nolako antolaketa erabili dudana beharrak aurrera egin zezan eta une batzuetan sorturiko eragozpenak zelan ekidin ditudan.

1.1.1. Aurrelana

Lehendabizi agiritegiatar sartzeko karnetak eskuratu nituen eta gerotxoago lekukogaiak izan zitezkeen helbide eta telefonoak nahiz materialak (mapak, ortofotorriak, e.a.). Landa-lana hasi aurretik, Jabetza Erregistroko datuak albat arinen hustea izan zen nire helburua, baina, larunbatetan izan ezik, beste egunetan joateko baimenik ez nuenez gero, bada, Bizkaiko Foru Agiritegi Udal Artxiboko *Dokumentazio Historikoa eta Mendiak eta Konkordiak* atalei ekin nien, baita Durangaldeko Nekazaritza Bulegoko *Mendien Zimpeko Aitorpenei* ere.

1.1.2. Datu-basea

Aurreko informazioaren bidez HSPren aplikazio informatikoaren *Dokumentuetako Toponimoen* fitxategia betetzen ari nintzela, Bizkaiko Probintzia Agiritegi Historikoaren *Hipoteken* liburuak izan ziren nire hurrengo jomuga, baita Bizkaiko Elizaren Historia Agiritegia eta San Andres eliza ere. Horretaz gain, ahozko grabazioen txanda heltzear zegoelako, eta bereziki Zaldibar udalerriko landa-lana egin behar izategatik, 1989an buruturiko toponima-bilketako materialak-eta eskatu nizkion DEIKER institutuari (berriemaielen eta ahozko datuen zerrendak, etab.).

1.1.3. Lehenengo inkestak

Aurreko grabazioak auzoz auzo aukeratutako eta onenak ei ziren berriemaielen kopuru mugatu baten bidez gauzatu nituen (nire zerrendako 001 - 002 - 003 - 004 - 007 - 009 - 010 - 011 - 012 - 013 - 014 - 017 - 018 - 025 - 037 zenbakidunak)²².

Mikrotoponimiari arreta berezirik egiteke eta beste izen garrantzitsuenak batuta, lantxo horixe izan zen hurrengo inkesten oinarria, zeren bertako baserri edo basoen izenen ostean, soro, landa, ortu, e.a. erreskadan etorri zitzaizkidaneta.

1.1.4. Dokumentuetara berriro²³

Hurrengo hilabeteetan Bizkaiko Probintzia Agiritegi Historikoaren *Hipoteka* eta *Notarioen* liburuekin jarraitu nuen eta Zaldibarko Udal eta Peñafiorida Konde-

21. Momentu guztietan laguntzaile izan dudana Inma Eguen euskara teknikari eta langile finari, bada, eskerak, bene-benetan, baita bere ordeztorritako Eduarne Pérez de San Románi ere.

22. B. Lasuen, J. Zalduegi, F. Eiguren, A. Azaguirre, E. Zarrara, J. L. Etxeandia, M. A. Areitioartena, K. Aranzibia, S. Berasaluze, M. A. Maiztegi, J. L. Abarrategi, P. Bildosola, J. M. Azaguirre, J. M. Narbaiza eta E. Iraeta, hain zuzen ere.

23. Datuak agiritegiatetik jaso ez eze, ordenagailuko fitxak bete ere egiten nituen aldi berean.

en Agiritegietan orduren batzuk sartutakoan, Erregistro Zibilera hurbildu nintzen; azken finean Udaletxean bertan zegoen. Lantzean behin opor larregi edo jan zein lo egiteko denbora luzeegia nuela-eta, dokumentu ezkutuen bila aritzea bururatu zitzaidan, Europistas enpresako espedienteak edo Bizkaiko Foru Agiritegian hain misterio-tsua zen Administrazio artxiboa, Bizkaian eta inondik agertzen ez ziren *Ariola* urtegi eta bidearen egitasmoak, Gipuzkoan²⁴.

1.1.5. Landa-lan zabalagoa

Bigarren aldi honetan eginiko inkestak materialei begira antzerakoak izanda ere, ez zuten zerikusirik aurrekoekin. Alde batetik informatzaileen kopuruak gora egin zuen (baserri guztietan izaten ahalegindu nintzen), bestetik katastroaren munduan sartzeak txatalak zehatz-mehatz identifikatzea ekarri zuen, eta ondorioz, norberarenak ez zirenak baztertzea. Hortaz, berriemaileekiko harremanak behin baino gehiagotan emandakoan, inkestaren helburuak aldatu egiten ziren, inkesta orokorrak egiaztapen-inkestak bihurtzen zitzaizkigun eta.

1.1.6. Toponimoen informazio osagarria

Azkeneko hilabeteetan alor bi jorratu nituen bereziki. Alde batetik, leku-izenekin erlazonaturiko argitalpenetan agertu informazioa (egunkari, aldizkari, koarderno, liburu, e.a.), eta bestetik, ahozko kontakizunak (izenen inguruko gorabeherak).

1.1.7. Normatibizazioa

Ikerlanaren azken emaitza izango zen, hots, tratamendu geografiko eta linguistikoa eta fidagarritasun indizea gogoan harturik, Zaldibarko toponimoen kopurua erabaki, non zeuden adierazi eta nola idatzi behar ziren proposatu; baina azken urrats honen nondik norakoak, gerotxoagoko atal batean zehaztuko zaizkizue.

1.2. IDATZIZKO ITURRIAK²⁵

Nahiz eta esku artean erabilitako dokumentazioa askoz zabalagoa izan den, ondoko lerrootan zehazten direnetatik baino ez ditut datuak atera eta aipamen bakoitzaren jatorria jakiteko parentesi artean ipinitako laburdurez baliatu naiz.

24. Detektibe lan honetan aurkitu ez nuen dokumentazio bakarra Durango-Zumarraga trenbidearena izan zen. Juanjo Olaizolaren arabera, galduta omen dago. Dena dela, atzenean eta joan-etorri ugariren ostean, Bizkaiko Foru Agiritegiko Administrazio Artxiboko Herri Lanak eta Garraibideak atalean, plano bat lortu nuen.

25. Fatxadetako idazkiak idatzizko iturritzat hartu ditut eta fitxen zerrenden amaieran ipini, 2004. urtepean; baina horrek ez du esan nahi oraingoak direnik, gaur egunean irakur daitezkeela, baizik. Beste alde batetik, askotan errepikatutako datuak oin-oharretan sartu ditut, *Datu berberak* deritzonaren ostean urteak baino ez txertatuz; hori bai, testuingurua eta grafema berberak izan diren kasuetan, ez besteean.

1.2.1. Bizkaiko Elizaren Historia Agiritegia (BEHA)

Zaldibarko parrokia *San Andres Apostoluaren* izenean agertzen zaigu dokumentuetan eta Agiritegi honetan jarri dioten kodea hauxe da: 43060.

Informazioari dagokionez, Hildakoetan toponimo asko topa dezakegu baserri bakoitzaren hilobia aipatzen delako; Bataio, Konfirmazio eta Ezkontzetan, berriz, ia ez dago leku-izenik. Mikrofilmatutako dokumentuen egoera azpiko oharretan zehaztuko zaizue, sarri-askotan tinta orrialde batetik bestera joan baita.

1.2.1.1. BATAIOAK (BAT)²⁶

- 1864 - 1904 - 9-552. mikrofilmea. 6-I. artxiboa.

1.2.1.2. FABRIKA (FAB)

- Kontuak, Inbentarioak eta Bisitak (1798 - 1958)²⁷ - A-671. mikrofilmea. 4-I. artxiboa.

1.2.1.3. HILDAKOAK (HIL)

- 1582 - 1717²⁸ - 9-553. mikrofilmea. 3-I. artxiboa.
- 1677 - 1799²⁹ - 9-553. mikrofilmea. 3-II. artxiboa.
- 1800 - 1861³⁰ - 9-553. mikrofilmea. 3-III. artxiboa.

1.2.1.4. HAINBAT PAPER (H. Pap.)

- XIX eta XX. mendeko datuak. A-672. mikrofilmea. 6-III. artxiboa.

Bi dira agiri garrantzitsuenak: 1875.eko Vera Cruz kofradian dauden bazkideen zerrenda (VC. Kof.) eta 1973.eko Zaldibarko San Andres Parrokiaren finken zerrenda (Par. Fin.).

1.2.1.5. ORDENANTZAK (ORD)³¹

- Ordenantzak eta beste hainbat gai (1582 - 1868) - A-671. mikrofilmea. 5-V. artxiboa.

26. Garai honetako Ezkontza eta Konfirmazio liburuetan bezalaxe, herriaren izena izan ezik, ez da beste toponimorik topatuko. Beraz, hauxe da salbuespena, zeren 1863ko abenduaren 19tik aurrera erabili beharreko ereduak ez zuen helbidez ezer agintzen, baina Zaldibarko parrokoek idatzi egin zituzten base-rrien izenak.

27. Orri apurtuak eta tinta alderik alde igarota.

28. 1590 eta 1601. urteen artean ezin da daturik jaso, tinta alde batetik bestera joan delako.

29. Urte batzuetako orrialdeetan (1700, 1706, 1720, 1730, 1767) tinta pasatuta egon arren, orokorrean ondo irakur daiteke.

30. 1816tik ia ez da toponimorik agertzen eta 1849tik aurrera tinta batetik bestera joan da.

31. Orrialde gehienetan tinta batetik bestera joan denez gero, ia ezinezkoa da irakurtzea. Beste alde batetik, orrialdeak ipini gabe egoteaz gain, askotan datak ez daude osorik edo atalen baten falta dira.

1.2.1.6. *OSPITALEA (OSP)*

- Kontuak eta Inbentarioa (1829 - 1927)³² - A-672. mikrofilmea. 6-II. artxiboa.

1.2.1.7. *PARROKIA (PAR)*

- Santa Marina ermita (1615 - 1764)³³ - A-671. mikrofilmea. 4-III. artxiboa.

1.2.2. Bizkaiko Foru Agiritegia (BFA)

Agiritegi honetan eman dut denborarik luzeena eta ez da harritzekoa, gordezen den informazio kopurua eta kalitatea aintzakotzat hartzeko modukoa da eta. Gogoratu besterik ez dizuet egingo, Gernikako Batzarretzeko Agiritegiko hainbat eta hainbat fondo ere bertara ekarri zirena. Gabeziei dagokienez, mendeka sailkatuko bagenu, berehalaxe konturatuko ginatke XVI.eko datuen urritasunaz, gainera atal batzuetan, Administrazioan adibidez, katalogatu gabeko dokumentuak ez dira hain gutxi.

1.2.2.1. *ADMINISTRAZIO ARTXIBOA (ADM)*

Esan berri dudan legez, katalogatuta ez egotearen oztopoa ez da txikia; hori bai, bertako teknikariek eginiko inbentarioak sekulako laguntza eskaintzen dio iker-tzaileari. Ikus dezagun, bada, multzo honen azpiatalak zeintzuk diren:

1.2.2.1.1. Gobernua eta Eliz-gaiak (GEG)

Toponimoi buruzko informazio osagarria eskaintzen digute artxibo hauek.

- AJ-0201 / 001 - Hainbat gai (1811).
- AJ-0202 / 001 - Hainbat gai (1810).
- AJ-0220 / 144 - Olaerreaga (1828).
- AJ-0223 / 006 - Olaerreaga (1825).

1.2.2.1.2. Hezkuntza eta Kultura (HEK)³⁴

Auzo eskolak, Maisu-maistrak edo Hainbat gai izeneko ataletan banaturik egon arren, oraindino katalogatu gabeko dokumentuak ditugu; hortaz, etorkizunean beste zenbaki batzuk izan ditzakete.

32. Gehienetan *Montes del Santo Ospital* jarri arren, badira toponimo batzuk.

33. Dokumentuaren egoera negargarria dela-eta, ia ezin da ikusi zer jartzen duen.

34. *Instrucción Pública* izenpean kutxa batzuk topatuko ditugu eta gainera zenbaki ezberdinak izanikoak. Eskerrak Manu Cifuentes teknikaria alboan izan dudana! Sekulako laguntza eskaini dit, bai artxibo honetaz, baita katalogatu gabeko besteei buruz ere. Emandako azalpen eta erraztasun guztiak eskertze-koak dira, benetan.

AUZO ESKOLAK (A.Esk.)

- 1113. kutxa - Eskolarako tresneria (1922-1929).
- 1144. kutxa - Eskolako huts egiteak (1930-1931).
- 1146. kutxa - Eskolako huts egiteak (1927-1928).

HAINBAT GAI (H.Gai)

- 004. kutxa / 009. esp. - Emeteria Mugerzak eskatutako diru-laguntza (1921).
- 004. kutxa / 010. esp. - Ciriaco de la Peñak eskatutako diru-laguntza (1922).
- 004. kutxa / 011. esp. - Valeriana Villanuevak eskatutako diru-laguntza (1919).
- 004. kutxa / 012. esp. - Zaldibarko eskola partikularra (1922).
- 1077. kutxa / 045. esp. - Ramon Vidalen tresneria eskatzeko idazkia (1927).

1.2.2.1.3. Herri Lanak eta Garraiobideak (HLG)

Multzo honetako artxiborik emankorrena da honako hau, duda-muda barik. Idatzizko datuetan agertzen zaizkigun espedienteek ez ezik, planoek ere oso informazio baliagarria dakarkigute.

- AT-0021 / 001 - Bideak (1775).
- AT-0306 / 006 - Urkiola eta Ermuko bideak eraikitzeke espedienteak (1854).
- AT-0316 / 015 - Arteaga iturria (1901).
- AT-0317 / 023 - Bañerazarreko bidea konpontzeko eskaera (1877).
- AT-0320 / 014 - Ereñaga-Bañerazarra bide konponketa (1870).
- AT-0325 / 010 - Durango-Ermua errepidea (1869).
- AT-0325 / 012 - Urkiola eta Ermuko errepidearen Berrizko bide-adarra (1878).
- AT-0328 / 024 - Bañerazarrerako bidea (1889).
- AT-0328 / 031 - Olaerreaga errota (1861).
- AT-0366 / 029 - Berriz eta Zaldibarren arteko bide berria (1859).
- AT-0369 / 020 - Auzo bideak (1854-1856).
- AGV-DC-0820 / 03 - Kaleak asfaltatzea (1971/72).
- AGV-DC-3067 / 09 - Kaleak asfaltatzea (1967).

ERREPIDEAK (Err.)

- 248. kutxa - Zaldua - Biritxinaga errepidea (1901).
- 249. kutxa - Zaldua - Zaldibar errepidea (1904).

SUSTAPENA I (Sus.)

- 523. kar. / 043. zk. - Errepideak (1919).
- 538. kar. / 451. zk. - Sociedad Eléctrica Elgueta (1919).
- 555. kar. / 115. zk. - Electra Elorriana (1920).

SUSTAPENA II (Sus.)

- 604. kar. / 224. zk. - Inguruko horma eta atezaindegia (1922).
- 604. kar. / 597. zk. - Bañerazarra zoroetxe bihurtzea (1922).
- 634. kar. / 486. zk. - Kaperaren pinturak (1923).
- 635. kar. / 510. zk. - Parkeko lanak (1923).
- 635. kar. / 492. zk. - Aurrenengo gaixoak (1923).
- 635. kar. / 493. zk. - Bainuontziak (1923).

- 635. kar. / 500. zk. - Bañazarreko zoladura (1923).
- 635. kar. / 502. zk. - Txatarra (1923).

TRENBIDE ETA TRANBIAK (Tr.)

- 1614. kar. - Durango-Zumarraga trenbidea (1886).

1.2.2.1.4. Lehen Sektorea, Industria eta Merkataritza (LIM)

Ekarpen handirik egiten ez badu ere, badira kontuan hartu beharreko zenbait xehetasun.

- AX-0285 / 03 - Mintegiak (1897).
- AX-0337 / 03 - Luzar (1933).
- AX-0372 / 01 - Bizinaibeletxe (1932).
- AX-0381 / 04 - Garitazelaia (1932).
- AX-0407 / 20 - Gazagaotsoena (1936).
- AX-0409 / 01 - Garitagoitia (1936).
- AX-0410 / 02 - Garitaonandia (1929).

MENDIAK (Men.)

Liburu mardul honetan Zaldibarko datu nagusienak 1804ko ekainaren 15eko zerrendatxoan aurkituko ditugu; alde batetik, *Monttes Comunes* eta bestetik, *Monttes de Particulares* tituluaren barruan. Dena dela, 1791ko maiatzaren 22an ere hiru leku-izen aipatzen dira.

1.2.2.1.5. Ogasuna eta Estadistikak (OGE)³⁵

Zergen zerrendetako grafietan gorabehera handiak izanagatik, toki-izenen ondoan jabeen izenak etortzeak izugarritzko aukera ematen du katastroko datuekin bat egin eta toponimoen kokalekua zehazteko.

- AH-0007 / 00 - Zergak. 1922ko zerrenda.
- AH-0031 / 00 - Zergak. 1926ko zerrenda.
- AH-0054 / 00 - Zergak. 1930ko zerrenda.
- AH-0068 / 00 - Zergak. 1932ko zerrenda.
- AH-0086 / 00 - Zergak. 1935ko zerrenda.

FOGERAZIOAK (Fog.)

Ezaguna den legez, gai honetaz badira argitaratutako lan garrantzitsu bi: bata J. Kerexetarena³⁶, eta bestea, A. Irigoienena³⁷. Hala eta guztiz ere, nik neuk jatorrizko dokumentuetara jotzea hobetsi dut. 8, 9 eta 10. erregistroetan daturik aurkitu ez arren, ondokoetatik atera ahal izan dut honelako lanetan aipatu gabe ezin utz daitekeen zehaztasun handiko informazioa:

- 1704 - 1. er. / 231, 232, 233 eta 234. orr.

35. Datuak behin eta berriro errepikatzen direla-eta, ez ditut urte guztietakoak kontuan hartu; lehenengoa, atzena eta tarteko batzuk baizik.

36. *Fogueraciones de Bizkaia del Siglo XVIII*. Labayru Ikastegia - BBK. Bilbo, 1992.

37. *Nombres de familia y oicónimos en las fogueraciones de Bizkaia de los siglos XVII y XVIII*. Bizkaiko Batzar Nagusiak. CD-ROM. Bilbo, 1998.

- 1745 - 2. er. / 184, 185, 186, 187 eta 188. orr.
- 1796 - 5. er. / 195, 196, 197, 198, 199, 200, 201 eta 202. orr.
- 1798 - 6. er. / 428, 429, 430, 431 eta 432. orr. (1704an egindakoaren gehigarria).

1.2.2.1.6. Udal Erregimena eta Hirigintza (UEH)

XX. mendean eraikitako etxe, lantegi eta kale berriek aldaketa eragin zuten hirigunearen itxuran. Dokumentu hauen bidez soloei gertaturiko ordezkatzeko hori eza-gut daiteke.

- AR-1048 / 05 - Mendietan izandako kalteak (1925).
- AR-1078 / 08 - Ermua eta Zaldibar udalerrien arteko gatazka (1904).
- AR-4445 / 02 - Iburrerrika (1973).
- AR-4522 / 03 - Bekoetxe iturria (1972).
- AR-4527 / 01 - P.G.O.U. (1972).
- AR-4537 / 01 - Arteagasolo (1972).
- AR-4538 / 01 - Garitazelaia (1977).
- AR-4538 / 04 - Zaldusolo (1968).
- AR-4560 / 03 - Ze arrasolo (1979).
- AR-4615 / 01 - Ze arrasolo (1980).
- AR-4616 / 02 - Zaldibarko herrigunea zedarritzeko egitasmoa (1980).
- AR-4635 / 01 - Ze arrasolo (1981).
- AR-4688 / 15 - Kaleak (1983).
- AR-4745 / 08 - Futbol-zelaia (1985).

1.2.2.2. JUDIZIO ARTXIBOA (JUD)

XVII, XVIII eta XIX. mendeetako agiriak aztertu ditut, Korrejimenduaren artxibokoak hain zuzen ere (Kor.), eta aberasgarrienak ondoko hauek begitandu zaizkit:

- JCB-0200 / 023 - Bentaren errentamendu-eskritura (1657).
- JCB-0200 / 099 - Katikaren errentamendu-eskritura (1657).
- JCB-0200 / 100 - Bentaren errentaren ordain-agiria (1657).
- JCR-0094 / 031 - Naparkoa errota (1809).
- JCR-0104 / 055 - Zaldibar eta Ermuaren arteko mugarritzeak (1847).
- JCR-0330 / 018 - Vicente Ramón Arteagakoaren ondasunen inbentarioa (1830).
- JCR-0728 / 002 - Lapurren aurkako epaiketak (1799)³⁸.
- JCR-0752 / 003 - Juan Ugartekoa, Bernardino Ganbokoa eta beste batzuen aurkako auzia (1688).
- JCR-0898 / 008 - Domingo Lasuen Azpikoak bultzaturiko oinordetzari buruzko autoak (1763).
- JCR-0988 / 024 - Pedro Ibañez Legizamongoak Zaldibarko Patronatua lortzeko eskaera (1653).
- JCR-1128 / 013 - Zaldia Elizatean dauden elizako ondasunen salmenta (1800).
- JCR-2702 / 193 - Ermuak Eitzagako biztanleak soldadutzara deitzeagatik sortutako auzia (1771).
- JCR-3693 / 005 - P. Gisasola Areitio anaien aurka errentaren dirua dela-eta (1879).

38. Datu berberak: JCR-0728 / 012.

- JCR-4054 / 009 - Domingo Arrigorrietaoaren aurkako autoa agindu bat betetzen ez uzteagatik (1650).

1.2.2.3. ZALDIBARKO UDAL AGIRITEGIA (ZUA)

Zaldibarko dokumenturik zaharrenen jatorrizko ale gehienak agiritegi honetan gordetzen dira, baina udaletxean ere ikus daitezke, fotokopiatuak eta sailkaturik baitaude. Hona hemen euren zenbakiak: C-001, C-002, C-003, C-004, C-006, C-014, C-015, C-016, C-017, C-018, C-019, C-020, C-022.

Nahiz eta artxibaturik dauden dokumentu hauek goitik behera hustu ditudan, ondoko zerrendetan informazioa eskainitakoak baino ez dizkizuet jarriko.

1.2.2.3.1. Dokumentazio historikoa (1497 - 1695) (Dok. His.)³⁹

C-001 zenbakiko paper-sorta. 5 espediente dira guztira.

- 1 / 1 Arreglo con M. Areitio en un pleito sobre daños en caminos (1597).
- 1 / 2 Licencia concedida a Pedro de Tellaiche para sacar piedra para hacer una casa (1562).
- 1 / 3 Visita de los términos y mojones de Zaldua (1563)⁴⁰.
- 1 / 4 Censo a favor del cabildo eclesiástico de Zaldua y memoria de Juan Abad de Uruburu (1640).
- 1 / 5 Arreglo con M.Cutuneguieta en el pleito sobre el sel de Zabaleta⁴¹.

1.2.2.3.2. Dokumentazio historikoa (1500 - 1737) (Dok. His.)⁴²

C-002 zenbakiko paper-sorta. 10 espediente dira guztira.

- 2 / 1 Censos contra Anteiglesias y cartas de pago de censos (1651 - 1752).
- 2 / 2 Escritura de venta de un castañal en Ariola (1582).
- 2 / 3 Instrucciones para un pleito sobre montes (1578)⁴³.
- 2 / 5 Requerimientos para sacar traslado de unas ordenanzas de montes (1566).
- 2 / 8 Apeo de los términos de Zaldibar (1597)⁴⁴.
- 2 / 10 Acuerdo entre el concejo de Ermua, y J. Ruiz de Olaechea y Lope de Eizaga sobre propiedades (1462)⁴⁵.

1.2.2.3.3. Dokumentazio historikoa (1600 - 1797) (Dok. His.)⁴⁶

C-003 zenbakiko paper-sorta. 112 espediente dira guztira.

39. Parentesi artean marra batek banatutako zenbaki bi erabiliko dira, adibidez, 1 / 3: Lehenengoa zein paper-sortatakoa den adierazteko (C-001ekoa, kasu honetan) eta bigarrena, multzo horren barruan espedienteak zein zenbaki duen jakiteko (3. a).

40. Goiko aldean, eskumako ertzean, zati bat falta zaio dokumentuari.

2001. urtetik plazaratzen du udalak albisteak-eta euskaraz eta gaztelaniaz erdibana ale berean dituen aldizkaria. Orain arte 0, 1 eta 2 zenbakiak baino ez dute argia ikusi. Udalaren egitasmoak jakinerazteaz gain, kultura arloko beste hainbat gai jorratzen ditu eta laguntzaileen artean Balendin Lasuen bera dugu.

94. *Kalean - Revista Popular de Zaldibar* Euskal Herrian auzo elkarteak sortzen ari ziren garaiko ezkerreko jendeak sorturiko aldizkaria izan zen eta euren esaldirik ezagunetarikoa bat honako hau: "Humore gabeko iraultza gorringo gabeko arraultza".

95. Ezker Abertzaleko aldizkariak 12 zenbaki atera ditu orain arte. Bere helburuetan adierazten den legez, bertako arazoan aurrean zaldibartarren iritziak zabaltzeko tresna izan nahi du. Toponimo larregi agertu ez arren, testuinguru historikoa zehazteko datu bakan batzuk badira.

96. Ahoz erabiltzen den euskara erakusten digute eta hiru dira aukeratutako pertsonak: Agustín Maortua "Txirrita", Asensio Urresti "Busterri" eta Eba Fernández Urizar. Geroagokoetan, ostera, bizkaiera edo euskara estandarretara joko dute egileek, leku-izenetan bezala.

1.2.16.6. Durangaldeko astekariak⁹⁷

Zaldibar Durangaldean kokaturik dugunez gero, barkagaitza litzateke bertako astekariak aipatzeko uztea. *ERAZ*⁹⁸ eta *ANBOTOZ*⁹⁹ ari naiz hitz egiten. 1993an jaiotako lehenak 2001ean pasatu zion lekukoa bigarrenari eta oraindik beharrean dabilta zenbait gazte jo eta ke astero-astero produktu duin eta hurbil hau ateratzen.

Nik hustu ditudanak ondoko hauek izan dira: *ERAZ* aldizkari guztiak (330, hain zuzen ere) eta *ANBOTO*ren lehenengo 100 zenbakiak (2004ko urtarrilaren 30a arte).

1.2.16.7. Zaldibarko Gidak (ZG)

DYCA, S.L. enpresak eginiko gidek berritasun handirik ez badakarkigute ere, baliagarriak dira atzeneko hamarkadan toponimoek izan dituzten aldaketez ohar gaitzen. Lau dira argitaratutakoak: 1993koa, 1996koa, 1999koa eta 2001ekoa. Begi bistako akatsen artean hauek azpimarratuko ditut: gida berean euskaraz eta gaztelez idatziak bai, baina bertsoak ez datoz bat, hots, batzuetan irizpide eta grafema ezberdinak erabiltzen dira toponimo bera adierazteko, eta bestetik, aurreko gidan eginiko hutsak askotan ez dira zuzentzen.

1.2.17. Zenbait eskritura¹⁰⁰

Atal honen barruan utzi zizkidaten paper-sorta aberatsetatik ateratako informazioa topatuko duzue. Dokumentu ezberdinak dira (emariak, kontratuak, zentsuak, e.a.) eta kronologiaren arabera ordenatu ondorengo zerrenda hau aurkez diezazueket:

- 1569/08/13 - Izenbururik gabeko paper bakarra. (ESK.: 001).
- 1617/05/09 - Contrato para m?n de Asva del cassami de su fija. (ESK.: 002).
- 1642/01/31 - Carta de Pago de magda de curicaray garitaonandia otorgdo Por Fco de lucar y su muger. (ESK.: 003).
- 1653/05/13 - Censo de 50 ducados de M^a de Aluicuri y P^o de Gonandia. (ESK.: 004).
- 1687/01/14 - Fundacion del mayorazgo primitivo. (ESK.: 005).
- 1717/08/29 - Contratto matrimonial de Pedro de garitta onandia y Maria de Jaynaga vezinos de Zaldua. (ESK.: 006).
- 1718/05/08 - Escripatura de permuta y ttrueque de la casilla de curuzeaga. (ESK.: 007).

97. B. Lasuenen berbetan: "Euskal aldizkariak dira, gure hizkuntza erabili eta indartzeko tresnarik onenak. *ERAZ* izan daiteke Durangaldean helburu horiek lor ditzakeena" (gehigarrian - IV).

98. Toponimiari begira, Jose Luis Lizundia eta Nerea Mujikaren iritzi artikulua dira baliagarrienak. Zaldibarren bizi den Mertxe Uriarterenak, berriz, hausnarketarako zuku handikoak ditugu.

99. Amamarengandik-edo datorkion lan egiteko kemena ederki islatzen du Bakarne Bernedok Zaldibari buruz idatzitako albistean.

100. Lehenengo hogeia Ignacio Zabalarenak dira; besteak, berriz, J. Mari eta Victor Arginzonizenak. Mila esker hiruroi, eskainitako erraztasun guztiengatik.

- 1769/05/10 - Pleito de Fco de Zearra contra Ana de Lasuen. (ESK.: 008).
 - 1785/09/12 - Redencion de un censo de 300 Duc. A favor de Juan de Garitaonandia y Lasuen. (ESK.: 009).
 - 1785/10/26 - Censo de 100 ducados de pral y dos y medio de redditos por Ana de Lassuen a favor de Juan de Garittacelaia. (ESK.: 010).
 - 1796/03/12 - Contrato matrimonial de Juan de Garita onandia y Lassuen y Magdalena de Garita onandia y Gazaga Ybarra. (ESK.: 011).
 - 1811/06/16 - Venta de arboles de los montes. (ESK.: 012).
 - 1817/04/28 - Agregación de varios bienes al vínculo de la casa torre de Garitaonandia. (ESK.: 013).
 - 1825/04/14 - Izenbururik gabeko paper-sorta. (ESK.: 014).
 - 1830/03/20 - Petición de escritura a favor de la casa y caseria de Garitaonandia. (ESK.: 015).
 - 1832/05/17 - Enajenación para necesidades de la iglesia. (ESK.: 016).
 - 1847/08/17 - Venta del monte Canterazar. (ESK.: 017).
 - 1850/07/18 - Contrato matrimonial. (ESK.: 018).
 - 1871/07/01 - Izenbururik gabeko paper-sorta. (ESK.: 019).
 - 1881/06/14 - Contrato matrimonial de Ignacio M^a Zabala y Bonifacia Orosqueta. (ESK.: 020).
-
- 1703/01/31 - Censso del cauildo eclessiastico de la villa de Durango contra Domingo de Cengotita. (ESK.: 021).
 - 1720/12/28 - Venta otorgada por Domingo de Arroita a fauor de Min de Asua de una porzion de tierra. (ESK.: 022).
 - 1738/05/22 - Inventario y tasacion judicial de los vienes, muebles, raizes, efectos y deudas que quedaron por fin y muerte de Juan de Arguinzoniz. (ESK.: 023).
 - 1741/08/19 - Benta Real otorgada por Pedro de Arino de una Heredad de pan lleuar a fauor de M^a de Masaga. (ESK.: 024).
 - 1763/10/11 - Celedonio de Arguinzoniz delakoaren zenbat paper. (ESK.: 025).
 - 1773/02/11 - Cartta de pago y redempcion de un censso ... a favor de Dn Celedonio de Arguinzonis. (ESK.: 026).
 - 1775/04/04 - Censo de 30 duc. ... a favor dela Yg^a Parroquial de San Andres dela Anteyg^a de Zaldua por Dom^o de Zearra. (ESK.: 027).
 - 1787/02/20 - Carta de pago ... a fabor de Santiago de Arguinzoniz. (ESK.: 028).
 - 1798/03/27 - Redencion otorgada por Agustin de Aguirrebeitia ... a favor de Dn Celedonio de Arguinzoniz. (ESK.: 029).
 - 1821/10/20 - Tasación del Maestro Olea. (ESK.: 030).
 - 1823/06/11 - Pago de deudas. (ESK.: 031).
 - 1823/08/17 - Venta de los exidos comunes ocupados con arboles de las caserias-de Vrizar aurtengoa y Plazacoa (ESK.: 032).
 - 1823/09/15 - Cartas de pago. (ESK.: 033).
 - 1838/05/02 - Medicion de cuatro porciones de heredades pertenecientes a dho Astarloa y Arguinzoniz. (ESK.: 034).
 - 1845/01/17 - Estadística que representa la riqueza de las casas ... de la Iglesia Parroquial de Berriz¹⁰¹. (ESK.: 035).
 - 1856/09/16 - Escr^a de venta y distribución de los montes de Berrengurengoena y Santa Marina aurre. (ESK.: 036)¹⁰².

101. Berriz, Mallabia eta Zaldibarko baserriak aipatzen dira.

102. Egun ezberdinetako aktak izateagatik aldean egon daitezke leku-izenen grafemetan.

1.3. KARTOGRAFIA ITURRIAK¹⁰³

XXI. mende honetako toponimia bilketa batean kartografia alorra baztertea ulergaitza litzateke, zeren mapek, planoek nahiz krokisek kokalekuari buruzko informazio osagarria txertatzen baitiete idatzitako iturriei eta horri esker askoz fidagarriagoa izaten da toki-izenaren aukeraketa¹⁰⁴.

Iturri hauen balorazioa egin eta gero¹⁰⁵, XVIII eta XIX.eko pare bat plano eta maparen bat izan ezik¹⁰⁶, XX. mendeko ondoko material kartografikoak hautatu ditut:

1.3.1. Mapak¹⁰⁷

1.3.1.1. *Mapa Topográfico de Vizcaya (MTV)*

1923an Bizkaiko Foru Aldundiak Eladio Romero Bohórquez geografo eta mendi injeniariari agindutako lanen emaitza dugu 1: 25.000 eskalako mapa hau. Lurralde honetako kartografia historikoan ahaztezinako izena; alde batetik, ondoren eginitako mapa topografiko orokorra zein beste dokumentu batzuen oinarria izan zelako, eta bestetik, erakutsi zuen zehaztasunagatik.

1.3.1.2. *Bizkaiko Mapa Topografikoa (BMT)*

1: 25.000 eskalako mapa hau 1934. urtean berrargitaratu zuten. Lehen aipaturako Eladio Romeroren lanez baliatu baziren ere, informazio gutxiago dakar eta akats batzuk topa daitezke. Zaldibar honako orrialde hauetan zatitzen da: 5-B, 6 eta 8-B.

103. Zorretan nago Patxi Galérekin, bere aldetik izan dudana laguntza, bai mapak hautatzean, baita sorturiko arazo edo zalantzen aurrean ere eskertzekoa da eta. Esan gabe doa, berak idatzirik *Bizkaiko Gailurren Katalogoa* (2000) oso erabilgarria izan zaidala.

104. Normatibizazio atalean zehatzago azalduko dudanez, fidagarritasun indizea metodologia honetan funtsezko tresna izango da dokumentu idatzia, kartografikoa eta ahozkoa baloratzeko orduan. Lau maila bereiz litezke (oso fidagarria, fidagarria, ez hain fidagarria, ez da fidagarria) eta horren arabera jokaturiko gure geroago proposaturiko diren formen artean toponimo normatibizatua erabakitzeko, hots, zein izango den idazkietan zein mapetan joan beharko duena.

105. N. Mujikak 24. orrialdean aipatzen dituen irizpideak, hau da, garaia, eskala eta dentsitatea, jatorrizko iturria ala eratorria den eta toponimia tematikoarena, hitzez hitz jarraitu ditut.

106. J. R. Iturrizaren *Historia...* liburuaren hastapenean Tomás Lópezen mapa edo A. Menesesena.

107. Bizkaiko Foru Agiritegiko maparen batzuk artxibo berezi batean gorde dira, *Grabatuak* deritzona. G hizki eta gero bildumaren barruko zenbakiaren bidez identifikatzen dira. Hauexek dira neuk erabilita-koak: G/0407- M. Polanco, *Mapa de Vizcaya* (1966) (Eskala - 1:100.000)- G/0411- A. Apraiz, *Vista panorámica de Vizcaya* (1951) - G/0433- A. Martín, *Mapa de Guipúzcoa* (1903) - G/0818- Trabajos ejecutados a expensas de la Exma Diputación Provincial de Vizcaya por ingenieros, geógrafos, topógrafos y delineantes del Instituto Geográfico (1927) (Eskala: 1: 100.000) - G/0855- Mapa del M.N. y M.L. SEÑORIO DE VIZCAYA, compufo fobre algunos Mapas, Manuscritos, noticias de sus naturales, y en particular las de M^a Guillermo Bowles. Por el geógrafo D. Tomás López, Pensionista de S.M. de la Academia de S. Fernando. Madrid. Año de 1769.

1.3.1.3. Instituto Geográfico y Catastral delakoaren mapak (IGC)

1: 50.000 eskalako mapa hauek 1: 25.000 ko bilduma baino zaharragoak dira, hau da, 62 zenbakiko Durango eta 87ko Elorrio 1952koak; 88 zenbakiko Vergara eta 63ko Eibar, oster, 1954koak. Bizkaiko Foru Aldundiak egindakoekin erkatuz gero, akats nabarmenagoak¹⁰⁸ ditu (leku-izenen batzuk gaizki kokatuta, grafien nahasketak, asmatutako toponimoak, e.a.).

1.3.1.4. Instituto Geográfico Nacional delakoaren mapak (IGN)

1: 25.000 eskalako zaharrenak 80. hamarkadan egin zituzten, Durango (62-IV) 1980an, Eibar (63-III) eta Vergara (88-I) 1983an. Azkenetarikoak 1999/2000.ekoak ditugu, hots, Durango 62-IV, Vergara 88-I eta Eibar 63-III (Elorrio 87-II, ateratzeke ei dago). Kasu batzuetan grafemei euskal kutsua ematen saiatu arren, nahasketak dira nagusi eta 50. hamarkadan izandako akatsak errepikaturik agertzen zaizkigu. Dena dela, badira aurrerapen teknikoak, adibidez, digitalizatu egin dituztenez gero, ordenagailuaren bidez landu daitezke.

1.3.1.5. Durangaldeko Mendiak (DM)

Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko Lurralde Antolaketa Zuzendaritzak 1994an kaleraturiko mapa hau 1: 25.000 eskalako dugu eta bildumako 5.a.¹⁰⁹ Toponimo larregi sartu ez eta batzuk txarto idatzita egon arren, nabarmena da egileen aldetik izenak gordetzeko eta bere lekuan kokatzeko eginiko ahalegina.

1.3.1.6. Bizkaiko Foru Aldundiaren mapak (BFA)¹¹⁰

1: 5.000 eskalako zaharrenak 1973-83 hamarkadan kaleratutakoak ditugu, baina neuk 1995eko maiatzaren hegalditik Hirigintza Sailekoek argitaratu dituztenak erabili ditut, hots, 62-64, 63-57, 87-8 eta 88-I zenbakidunak. Estatuko mapak baino kalitate handiagokoak izanagatik ere, toponimoak idazteko moduan argi ikusten da beti ez direla irizpide berberak erabiltzen. Paperean ez ezik, ordenagailuaren bidez ere ikus daitezke.

1.3.1.7. Bizkaiko Gailurren Katalogoa (BGK)

Honelako katalogoa egitea erronka itzela izan zen egileak berak aitortzen duen legez¹¹¹, hala ere, aurretik zer zegoen eta nola egiten zen ikusita, asmatu egin zue-

108. Hona hemen adibide bi: *Garitaonandia* baserriaren ordez, *C^a Zabala* jartzen du (bertakoen deitura, hain zuzen ere) edo *Goierriko* ermita *Santa Marina* izendatu beharrean, *Santa Maria* bihurtzen du.

109. Zaldibarkoa den Josu Maortuak lagundu zuen mapa hau egiten.

110. P. Galéren arabera, mapa hauen benetako eskala 1:10.000koa zen.

111. "Lanaren azkenengo helburua bizkaitar gailurren eta beraien izendapen guztien zerrenda exhaustiboa osatzea bazen ere, erronkak gainez egiten zigula ulertu genuen eta omen oneko mapetan, zerrendetan nahiz lanetan dokumentatzen diren toponimoen bilduma hutsa egitera deliberatu ginen azkenik" (5. or.).

lakoan nago; alde baterik irizpide zehatzak aurkeztu zituelako¹¹² eta bestetik, ahozko landa-lana egin ez arren, tankera honetako bilduma bati legokiokeen kartografia-iturrien balorazioan oso zorrotz eta sakon jokatu zuelako.

1.3.1.8. *Ermuko Mapa (EM)*

1: 7.500 eskalako mapa hau Fernando Aranberrik argitaratu zuen bere *Ermua-Eitzaga leku-izenak* liburuarekin batera. Kalitate handiko lana dugu, bai diseinuaren aldetik, baita toponimoen fidagarritasunagatik ere.

1.3.1.9. *Zaldibarko Gidak (ZG)*

Argitalpenen atalean esan dudan modura, lau dira hustu ditudanak:

- 1993koa - Hirigunearen planoak dakar erdiko orrialdeetan eta auzoak ez dira inondik ere agertzen.
- 1996koa - Eskuz egindako mapa turistikoa erakusten digu eta jarraian, erdiko orrialdeetan, kaleen planoak. Amaieran, Eitzaga auzoko plano (Sallabente eta Olaerrega barne) eta Zaldibar eta inguruko herriekin mapatxo batekin egiten dugu topo.
- 1999koa - Hirigunearen eta auzoen planoak gordetzen ditu, baina Goierrikoa ez dago osatuta. Mapa turistikoa inprentak eginikoa da oraingo honetan.
- 2001ekoa - Orain arteko biribilena da, hirigunearen eta auzo guztien planoak baititugu ikusgai.

1.3.2. **Planoak**¹¹³

Ugari izan dira esku artean izan ditudanak, batzuk eskuz egindakoak eta beste batzuk azken teknologiak baliatuta, baina kalitate maila ezberdinetakoak izanik ere, antzinakoetan izan ezik, nik neuk, toponimoen maiztasunari erreparatu diot eta horri begira egin dut aukeraketa.

1.3.2.1. *BIZKAIKO FORU AGIRITEGIA*

ADMINISTRAZIOA - Herri Lan eta Garraiobideak.

- ADV-DC-0231 - Matiena-Zaldua errepeidea (1880)¹¹⁴ 1: 5.000 eskala.
- AGV-DC-2484 - Zaldua-Biritxinaga errepeidea (1912) 1: 2.000 eskala¹¹⁵.

112. "Mendiguneak mugatzeko eta izendatzeko irizpideak - Bildutako erak sailkatzeko irizpideak - Era normalduen aukeraketarako irizpideak" - deritzen ataletan.

113. Bizkaiko Foru Agiritegian Administrazio Artxiboko Herri Lanak eta Garraiobideak izeneko artxibo barruan aurki ditzakegun *ARA-PL* hizkien bidez hasten diren planoak oso teknikoak izan arren (sustra- kurbak, zehar-profilak, luzera-profilak, e.a.), toponimiaren ikuspegitik hutsaren hurrengo dira.

114. Datu berberak: ADV-DC-0305.

115. Plano bien artean aldeak daude.

- AGV-DC-2707 / 01 - Zaldua-Biritxinaga errepidea (1912) 1: 2.000 eskala
- AGV-DC-1831 - Eitzaga eta Sallabente auzoetako ur-hornidura (1957) 1: 1.000 eskala.
- AGV-DC-1834 - Agirresakon ur-biltegiaren handitze lanak (1957) 1: 1.000 eskala.
- AGV-DC-1835 - Goierri auzoko ur-hornidura (1958) 1: 1.000 eskala.
- AGV-DC-1785 - Zaldibar Udalerriaren saneamendua eta uren banaketa (1966)¹¹⁶.
- AGV-DC-1868 / 02 - Lurpeko oinezkoen bidea Arteagan (1973) 1:100 eskala.
- AGK-DC-0843 - Durango-Zumarraga trenbidearen desjabetzen plana (1885).

ERREPIDEAK (Err.)

- 249. kutxa - Zaldua - Zaldibar errepidea (1904) 1:500 eskala.

ADMINISTRAZIOA - Udal Erregimena eta Hirigintza.

- AR - 4463 / 06 - A kalearen aldaketa (1974) - 1: 200 eskala.
- AR - 4527 / 01 - P.G.O.U. (1972) - 1: 5.000 eskala.
- AR - 4616 / 02 - Zaldibarko hiri-lurrak zedarritzeko egitasmoa (1980) - 1: 5.000 eskala.
- AR - 4635 / 01 - Zeerrasolo (1981)¹¹⁷ - 1:500 eskala.
- ARA-DC-2865 / 03 - Eitzaga, Sallabente eta Olaerreaga auzoen urbanizazioa (1958) 1: 2.000 eskala.

ZALDIBARKO UDAL ARTXIBOA - Urak (C-085)

- 1924 - 1: 1.000 eskala. Abenduaren 15ekoa.
- 1927 - 1: 2.000 eskala. Uztailekoa.
- 1957 - 1: 1.000 eskala. Abendukoa.

ZALDIBARKO UDAL ARTXIBOA - Berriz / Zaldua (C-094)

- 1925 - 1: 10.000 eskala - Instituto Geográfico y Catastral.
- 1929 - 1: 4.000 eskala - Manuel Lorentek egina.

1.3.2.2. ZALDIBARKO UDAL AGIRITEGIA- Lan Nagusien Espedienteak

- 0986.ku. / 02.esp. - Jaiña-gain etxea (1971).
- 1013.ku. / 01.esp. - Arismendiazpikoa baserria (1990).
- 1027.ku. / 03.esp. - Urkitza baserria (1995).
- 1029.ku. / 05.esp. - Zaldibarko uren hodiariaren berritzea (1990).
- 1034.ku. / 02.esp. - Gatika baserriaren lursailen atalak (1986).
- 1045.ku. / 01.esp. - Gazaga auzoko saneamendu sarea (1951) - 1: 1.000 eskala.

1.3.3. Katastroa (KAT)¹¹⁸

Honelako lanetan aurrekaririk ezagutzen ez nuela-eta, hasieran zalantzan ibili nintzenagatik, eutsi egin nion erabakiari, poligono eta lursailen zenbakien bitartez topo-

116. Datu berberak: AGV-DC-1824 eta AGV-DC-2287/09 eta 1974an ere bai (AGV-DC-1826).

117. Datu berberak: AR - 04615/01.

118. Marra batek banaturiko bi zenbakiek, 2 / 54 adibidez, honako hau adierazten dute: lehenak poligonoaren zenbakia (2.a, kasu honetan) eta bigarrena lursailarena (54. atala).

nimoen kokalekia errazago aurki zitekeelakoan. Badakit orain arteko ikerketen ohiko prozedura eskrituren informazioa eskuratzea izan dena, eta eremu hau baztertu egin dutena, baina uste dut badela urrats berriak emateko garaia. Dena den, itxuraz hain erraza ematen duena arantzaz betetako bidea dugu eta buruhausteak ere ez dira gutxi izaten. Aipatua argiago gera dadin hona hemen gogoan hartu beharreko zenbait gai:

1. Segregazioengatik izen beraren barruan sarritan txatal piloa egon daiteke, adibide bat aipatzearren, hortxe dugu *Berreguren* toki-izenpean hogeitaka zati.
2. Alderantziz ere gerta daiteke, hots, zenbaki bakarraren barruan forma bat baino gehiago agertzea, ahoz (“*sololáue, solólusiè, ósteko selaidxè*”) edo idatziz (*Zabaletaburu-oquildu-canterazarra*). Beraz, saiatu beharko da jakiten leku berberaz ari garen ala izen bakoitzak errealitate ezberdina erakusten duen.
3. Aspaldian toponimo bi izan eta salerosketaren bat tarteko arloak elkartu ondoren, izen horietatik bat galdu egiten da sarritan eta orokorragoa zena mantendu, adibidez, *Otaburu, Mugarriagaren* kaltetan.
4. Bata bestearen ondoan dauden lursail bi eta izenen osagaiak hurbil, antza, baina erabileran bat ez datozenak, esaterako, *Urkitzaburu* eta *Etxeburu* (*Urkitzako* etxe buruan dago kokatuta). Kasu honetan generikoaren bidez konpon daiteke (bata basoa da eta bestea zelaia); beste batzuetan, berriz, ez.
5. Etxe inguruan ez dauden lursailez informazioa lortzea gero eta zailagoa da, baso eta jabeen arteko harremana urruntzen ari da urterik urte eta horren ondorioz jabeak berak¹¹⁹ askotan ozta-ozta jakiten du ahozko ohitura zein izan den eta eskrituretara jotzen du erantzuna emateko.

Baldintza hauek guztiak, eta gehiago, izanda ere, mantendu egin nuen hasierako ebatzia eta oso tresna baliagarria izan zaidala aitortu behar dut. Helburua zati guztien izenak jakitea edo 2002ko katastroko lursailak ondo dauden neurtzea izan ez denez gero, katastro zaharra hartu nuen abiapuntutzat, 1956.ekoa¹²⁰, bai zerga zerrendei, baita eskritura zaharren izenei ere hobeto egokitzen zitzaielako.

Amaitzeko, katastroaren gaineko nire neure hausnarketaxoa plazaratu nahi nuke. Baieztapen gogorregia izan daiteke, apika, baina nire uste apalean, zenbait lekutan katastroaren sistema hedatu izanak harreman zuzen-zuzena izan du toponimoen erabileraren atzerakadarekin. Tesi hau arrazoitzeko bilakaera historikoa aztertu behar da nahitaez. XIX. mendearen erdialdean Jabetza Erregistroak sortzen hasi zirenean,

119. Jabeen artean ere bereizi egin beharko litzateke, ezin dira parekatu basoko lana baztertu ez duten base-rritarrak, gutxi izan arren, eta bestetik lursailen kudeaketa administratzaile bati utzi diotenak. Hala ere, salbuespenak salbuespen, 55 urtetik beherakoek ezer gutxi irakatsi diezagukete.

120. Carmelo Zabalak gomendatu zidan horrela egitea, bera ibili baitzen garai hartan lan horretan eta laguntza handiagoa eman ziezadakeen. Metodologiari dagokionez, aurrerapen handirik ez dela izan ondorioztatu daiteke A. Lazpitaren hitzak entzun eta gero:

“Abioittik etara besan foto batzuek, kanpuei, eta orduen bakoitzak bere terrenuek, diferente... geur, ba, obeto esi leike etaa, se dana igueltzu da, landie eta piñue, besteik esta, da gaur fotuek estau emoten esebe, baña lena emote ban diferente, bakoitxan terrenue diferente eote san, baten eongo san nabue, ta bestien eongo san artue, ta bestien esta(k)i ser. Orduen fotuek etaa ebesenien, jéntiai, uesabai, ba, errire deittu otzen, baten batzuk etorri sien diputasiñotik ero nunbaittetik, estaitt nundik, eta esa otzen sera:

– Au terrenuau irie ok-ero? Baakik ire terrenue sein yan? – Bai, auxe.

– Bidkek piñue baeuken markau in bi san an, alde biyetako uesabak, ba, esango ben, ba:

– Emeti dok.

Metro barruen esta au, au da inye gutxi gora bera. Au da etata seetik, abioittik, eta gero kofinantieci deittu eta:

– Surie emeti da, esta? – Bai, emeti. – Es, au emeti es, au onutzauti da.

An arregluek ei ebesan”.

aurretik egondako hipoteka liburuetan edo belaunaldiz belaunaldi gorde ziren aurreko mendeetako notarioek sinaturiko eskritura zaharretan oinarritu ziren liburu berri haietan leku-izenak idazteko. Hala ere, deskripzio haietan ahozko ohiturek ez zuten beren lekua galdu eta *vulgarmente llamado, conocido como, también nombrada como, monte que llaman... o ...*, bezalako espresioen bidez jakin zitekeen idatzitakotik kanpo beste moduren batzuk bazirela. XX. mendeko zergen garapenarekin batera abian jarri zen katastroaren sistema, zeini, eskrituretan ez bezala, bost axola zitzaizkion izenak, zeren azken hauek lursailen zatiei jarritako zenbaki batzuek ordezkatu baitzituzten. ordukoak ditugu. Ondorioak begi bistakoak izan dira, gaur egunean administrazioek ez dakite bilakaera ezberdina izan duten mundu bi horiek zelán uztartu, tartean arazo latzak daude eta: deskripzioak askotan ez datoz bat, lursailen neurriak ere ez, jabeen izenak zaharkiturik daude, e.a. Azkeneko urteotan berritu egin da katastroa, baita akats batzuk zuzendu ere, baina oraindik bide luzea geratzen zaigu, azken 50 urteotan egindako okerrak arzteu eta galdutako denbora berreskuratzeko.

1.4. AHOZKO ITURRIAK¹²¹

Ahokotasunari buruz aitzinsolasean adierazitakoa gogoratu eta aditu baztuen iritziak¹²² ekarri ondoren, orain dela hamar urte nioena berretsi nahi nuke, hots, ahozko inkestak egitearen helburuek idatzien bitartez hustu duguna egiaztatzea baino haratago jo beharko luketela. Alde batetik alderdi linguistikoa zaindu beharko litzateke, normatibizatzeke unean ezinbestekoa delako bertako euskararen ezaugarriak begi aurrean izatea, eta bestetik, tankera honetako lanetan etnografia edo historia bezalako diziplinei legokiekeen eginkizun osagarria aitortu¹²³. Beraz, mota ezberdinetako inkestak¹²⁴ prestatzea litzateke inkestazailearen lehen betebeharra; beti ere, zer atera nahi den argi eta garbi izanda.

Elkarrizketak egiterakoan gomendioren batzuk eman daitezkeenagatik¹²⁵, bada norberak gogoan hartu beharko lukeen alderdi psikolinguistikoa ere, zeren askotan sumaezinak diren hainbat faktorek bultzatuko baitute berriemailea forma batzuk edo beste batzuk erabiltzera. Ikus ditzagun nire esperientzian oinarrituta ateratako ondorioak:

-
121. Transkripzioetan lurretako ikerketan egin nuen bezalaxe jokatuko dut, hau da, fonetikoa [] eta fonologikoa “ ” bereiziz. Zeinuei dagokienez, bitxikeria bakarra hauxe izango da: A. Irigoien eta enparauen jod epentetikoa adierazteko [dž] sabaiareko afrikaria erabili beharrean, I. Gaminderekin bat etorrira, neuk frikaritzat hartuko dut [ž] eta argitaratu berri duen liburuarekin nahasketak gerta ez daitezkeen, Azkueren garaitik datorkigun “dx” erabiliko dut kontakizunetan. Modu berean, irakurleei testuak errazteko asmoz, sudurkari hobikari osteko herskari horzkari ahostunaren bustidura adierazteko “y” jarriko dut (-N + -D > -NY).
 122. Erabili dudan J. Terradoren *La importancia de la encuesta oral* atala N. Mujikak ere aipatzen du bere lanean (57. or.).
 123. Toponimoa ez da izen hutsa, sarri-askotan bizirik dirauen leku baten bilakaera historikoa erakusten duen froga baizik. Hortxe dugu euskal esaera zaharra: izena izana.
 124. N. Mujikak aurkezten dituen *inkesta orokorra* eta *egiaztapen inkestez* gain (67. or.), nik neuk, beste hirugarren bat proposatuko nuke, toponimoari freskotasuna dakarkioten datuak batuko litzuzkeena. Hona hemen adibideok: baserri bat gaitzizen batekin ezagutzen badute, *Samartiñ* esaterako, bada, pertsonaia horretaz informazioa lortzea edo baserri baten inguruko *Sagasti* deritzon landan ia sagarrak egon ziren edo sagardoa egiten zen jakitea edo *Saldusubitte* badiote, bertan egon zitekeen zubia deskriba dezatela, izan bazen, behintzat, etab.
 125. N. Mujikaren liburuan zenbait aholku aurki daitezke (68-69. orr.).

1. Inkestatzailearen eragina.
Grabazioa entzutean, bereiztu egin beharko genituzke lekukoaren formak eta gure eraginez esandakoak. “Saldíber” erabiltzen duen batek inkestatzaileari behin eta berriro “Saldíbar” entzuten badio, seguruenik berak ere forma hori esango du azkenerako.
2. Berriemailearen kokalekua.
Euskal Herriko antzinako ohituraren haritik baserri ugariren izenak beste nagusi baten erreferentziaren arabera osatu dira edo auzo barruan betetzen zuten lekua adieraziz, hau da, *Gazaga auzoan Gazagabarrena*, beheko aldean dago; *Gazagagoitia*, berriz, goikoan. Inkesta egitera joan eta lekukoa auzoan bertan badago, leku-izenaren lehen osagaia gehienetan ezabatu egingo du “Barréninguè” edo “Gótidxe” esanez; beste toki batetik eginez gero, ostera, “Gasá” jarriko diote aurretik. Hala eta guztiz ere, hizkuntza ekonomia printzipioaren indarra ez da makala eta belaunaldi gazteagoek eta gero eta jende gutxiago bizi diren auzoetan, batez ere, forma laburtuak hobesten dituzte, besteak bitxitzat jotz, hots, *Urizar auzoko* “Kosíñe” esaten duenari oso gogor egingo zaio *Urizargoxena* idatzita ikustea, baina, nire iritziz, horrela berreskuratu beharko genituzke toki-izenok eta neu behintzat, ez naiz mapa kartografikoetan forma laburtua erabiltzearen aldekoa. Azken finean, kontraesan itzelak sor lekizkiguke, udalerrri berean udaletxeak argitaratzen duen mapa batean “Goxena” edo “Kosíña” jarriko balu eta iragarki-taula baten *Urizargoxena*, adibidez.
3. Berbaldiaren abiadura.
Testuinguru fonetikoak zein hizkuntza ekonomiak alde batetik, eta eskriturretan idatzitakoak bestetik, eragin itzela badute ere, hizketaldiaren abiadura dela eta, sarritan pertsona berberak forma osoak eta laburtuak nahasturik erabiliko ditu, Adb.: “Solósabàl, Urúburù” (astiroago ahoskatuz eta idatzizkotik hurrago) edo “Sosábal, Urúru” (arinago ahoskatuz eta ahozkotik gertuago).
4. Idatzitakoaren indarra edo ahulezia.
Konplexuak-edo izategatik, euskaldunen batzuek gutxietsi egiten dituzte ahozko formak, *txarto* daudelakoan. Behin baino gehiagotan entzuten izan ditut antzerakoak: “*Jentiák Séleta esate otzo, baña bere benetako isena Selaieta dá*”, “*Gasá esan bai, baña hau ‘barrio Gázaga’ dá*” e.a.
Basoekin, berriz, alderantziz gertatzen da, eskrituretako izena baztertu (sarritan irakurri egin behar izaten dituzte gogoratzeko) eta etxeokok ‘birbataiatzea’: “Basotxíki” (Esk.: Lubarria), “Basosár” (Esk.: Garraz-alday), etab.
5. Maiztasunaren garrantzia.
Dokumentazioan antzinasunak duen bezalako garrantzia du ahozkoan maiztasunak, hots, normatibizatuko den toponimoa ebazteko orduan guztiz garrantzitsua da gehien jokia aintzat hartzea. Hala ere, jakin badakit batzuetan hautatzea ez dena betere erraza, toponimo bakarra itxura anitzetan aurki dezakegulako: “Añábar, Añébar, Añóbar, Añíbar, Agiñíbar, ...”. Horrelakoetan berbaren osagaiak zatitu eta banaka aztertzea litzateke gomendagarriena, nire iritziz.
6. Azentuaren eragina¹²⁶.
Azentuaren ingurukoak pentsa litekeen baino askoz konplexuagoak ditugu, pertsonaren berba egiteko moduaren ohiturak, enfasiak esaterako, edo gaztela-

126. Normatibazioko lekuzko morfema genitiboan ikusiko den legez, askotan mugatzailearen korapiloa bigarren mailako arazo bihurtzen du azentu aldaketak.

niaren eraginak hankaz gora jar dezakete edozein ikertzailek eraikitako teoriarik zentzuzkoena. Beraz, toponimiarako ere laborategian egin ikerketaren premia aldarrikatzea ez zait iruditzen urrunera joatea denik. Dena dela, lan honetarako baliabide hori eskura ez dudanez gero, nire ‘belarriaz’ fidatuko naiz; hori bai, etorkizunerako fonetika arloa hobeto zaindu beharko dena ez dago ukatzerik¹²⁷.

Azentua ahozko jarduerarekin erlazionatu dizuet eta silaben arabera sailkatu:

- Bi silabakoetan lehenengoan egingo dute azentu bakarra.
Adb.: “áisti, Bása, égo, Gáitte, Góti, íbur, Kóba, Lésan, Lúsar, Móta, Múndo, Páisar, Sáldi, Sáldu, úrtu...”
baina “Arná, éitza / Eitzá, Ertzíl, Gasá, Ibítxu...”¹²⁸.
- Hiru silabakoetan bigarrenean egingo dute azentu bakarra.
Adb.: “Agíña, Aixóla, Aldátza, Antzóla, Añábar, Arkátxe, Askárdi, Askórre, Bekétxe, Bisínai, Etxítxo, Ganbárra, Gisátza, Goikétxe, Gonsélai, Idxértzu, Ittúrbe, Kaáxar, Katátei, Katíke, Kortátxu, Kurútzia, Saldíber, Samártiñ, Siértza, Urúntzu, Urúru...”
baina “áidxondò, ártakei, ástueta, Bárreta, Kánpueta, Séleta...”.
- Lau silabakoetan azentu bikoitza egingo dute: orokorra indartsua (´) eta beste ahulagoa (^).
Adb.: “Abéletxè, Albísuri, Amásorbè, Amótzondò, Arángurèn, Arímendi, Arrábeitti, Askórrretà, Emáldidxè, Irébasì, Irémiñè, Katíkenà, Kelémenetà, Elórridxà, Errémentà, Otáburù, Orróspengò, Ospítellà, Sa(g)ármiñà, Sa(g)ástidxà, Sarrátuà, Serrákuà, Subfondò, Suríkarài, Totókuà...”
baina “Barrenéngo / Barrénenguè, Garasólo, Ispíllaurre / Ispíllaurrè, Solondópe, Txabolóndo...”.
- Bost silaba edo gehiagokoetan azentu ezberdinak egingo dituzte eta batzuetan osagaiek eurek mugatuko dute indartsua (´) edo ahula (^) non egongo diren.
Adb.: “Agárresakòn, Askórburuèk, Gaságotidxè, Egúskialdè, Gaíttónandidxè, Larrásetà, Saldúetxebarri, Txopénanequè...”
baina “Aldapabúru, ándikaletà, Espárrutxikídxè, Okánittúrridxè, Ulákosakóna, Uruburuáldè...”.

Arestian esan bezala, arau orokorrari eginiko urraketak arrazoi askorengatik izan daitezke, horietako bat hurrengo puntuan aztertuko dut.

7. Toponimo eta deituren arteko harremanak.

Toki-izenetatik eratorritako deitura askok oraindik bizirik diraute *Zaldibarren*, baina forma beraren aurrean joera bikoitza antzeman daiteke: toponimoak ahozko euskal ohitura jarraituko du “Gaíttónandi, Sáldi, úxar...”; deiturak, os-tera, dokumentu idatziarena *Garitaonandia, Zalduegi, Urizar*²⁹.

Bestaldetik, komunitate honen barruko pertsonak identifikatzeko sistemaren batzuk erabiltzen dituzte:

7.1. Izena + baserria + lekuzko morfema genitiboa: “Anbrósio Agárrekuè, An-doni Gáíttekuè, Fídel Urúrukuè, Kármén Siértzakuè...” edo genitiboa au-

127. Informatzaile berberak forma bat baino gehiago erabiliko balitu, ordenean jarriko lirake, hau da, gehien erabiltzen duena lehenengo eta gero bestea.

128. Silaba bikoien amaieran egitea batzuetan *-aga* atzikia laburtu izanaren ondorioa litzateke. Adb.: “Gasá” (dok. Gazaga), Eitzá (dok. Eizaga), etab.

129. Deiturak ahoskatzean, gainera, gaztelaniazko fonetika erabiltzen dute gehienetan.

rretik: “Arímendiko José Luis, Katíkeko Klára, Kurútziake Felisa...”. Labo-
rategian aztertze modukoa den arren, nik neuk, hipotesi hau botako
nuke: genitibo atzetik doanetan, antroponimo eta oikonimoaren artean
isilune txiki bat suertatzen da; bestean ez, ordea.

7.2. Zenbaitetan oikonimoak funtzio berriak bereganatzen ditu, hala nola, dei-
tura baten parekoa: “Benítokosiñe, Luiságarrè, Martxélantzuà, Pedrókatí-
ke...” edo gaitzizena: “Askórrre, úrtu...”.

7.3. Azentua aldatuz ere sor daitezke aldeak¹³⁰. Baserri batzuekin baino ez da
baliagarria, eta batzuetan aurreko sistemekin nahasten da: “iberre, ótzo-
na...” (pertsonea) - “ibérra, otzóna...” (baserria).

Hausnarketa xume honi amaiera eman diezaiodan, lekukoek erabili euska-
raren inguruko xehetasunen batzuk ere aipatu nahi nituzke. Udalerrri baten toponimia
batzen hasi aurretik, guztiz garrantzitsua da, nik uste, bere euskara ondo ezagutzea,
bai inkestazailea baserririk baserri ibiliko delako, baita denok ere berri ahoskatzen
duten jakiteak normatibizazioarako irizpideetan eragina izango duelako ere.

Zaldibarri dagokionez¹³¹, Eitzaga auzoa (Sallabente eta Olaerrega barruan)
izan ezik¹³², besteek ezaugarri komunak erakusten dituzte. Hementxe dituzue, labur-
labur, adibide erraz batzuk:

- Bokalen harmonia: Eitzagan: “alábia, etxía, mendíxa, basúa, eskúa”.
Besteetan: “alábie, etxíe, mendídxe, basúe, eskúe”.
- Sabaiko kontsonanteak: Eitzagan: “Sanpedro ermíntxià”.
Besteetan: “Samártiñ ermínttiè”.
- Deklinabidea: Eitzaga: “errírutz”.
Besteetan: “erríruntz”.
- Aditza: Eitzaga: “etórrri gára - jatú” / “ekárri saítxu - dótza”.
Besteetan: “etórrri ga - atzú” / “ekárri saittú - otzá”.

1.4.1. Baliabide teknikoak

Atal honen hasieran beste arloetako baliabideez aritu natzaizue; oraingoan,
aldiz, ahozketasunari dagozkionak aipatuko dizkizuet. Kalitate eta iraupena ziurtatu
nahian ikerlan honetarako antzinako zintak alde batera utzi nituen eta SONY marka-
ko *MZ-R700* minidiskien grabagailua erabili dut elkarrizketetan eta mikrofonoa
marka bereko *ECM-717*.

130. F. Aranberrik *Ermua-Eitzaga: leku-izenak* liburuan dioskun legez: “Leku-izenen azentuaren eta leku-
izen horiei dagozkien pertsona-izenen azentuaren artean aldeak daudelako eta pertsona eta etxea be-
reitzen direlako” (45. or.).

131. Fernando Aranberriren *Ermua eta Eitzako Euskara* (1996) zein Iñaki Gaminderen *Zaldibar berbarik
berba* (2003) ikerketek aditzera ematen digutenez, udalerrri osoan ez dugu eredu bakarra. Euskalki be-
rean gaudela ez dago dudarik, baina multzo bi bereizi beharko genituzke: Eitzaga aldea (Eitzaga, Olae-
rrega, Sallabente) eta beste auzoak (Aranguren, Gazaga, Goierri, Zaldúa).

132. K. Zuazoren *Deba ibarreko euseria* (1999) liburuan oinarrituta, F. Aranberrik hauxe diosku: “Ahos-
kerari dagokionez, Debarroko ezaugarri nagusienak betetzen dira” (8. or.).

1.4.2. Berriemaileak¹³³

Asko izan dira orduak eta chunka egindako galderak, baina eurekin egondako momentu horiei esker ez zait jarraitzeko arnasa falta izan eta horrexegatik esker-tzen diet behin eta berriro nirekin izan duten pazientzia, eurak barik ez legokeelako honelako libururik. Hona hemen laguntzaile izan ditudanen datuak (izen-deiturak, jaio edo bizi izandako baserri edo etxea -Zaldibarren- eta jaioturtea)¹³⁴.

001	Balendin Lasuen Solozabal	(Kamiñokoa)	1924
002	Jose Zalduegi Uriarte	(Zalduegi)	1933
003	Felipe Egiguren Gallastegi	(Jainagagaraia)	1909
004	Andoni Azagirre Atxaorbea	(Garita)	1932
005	Javier Urizarbarrena Intxaurrea	(Solozabal)	1934
006	Juan Urizarbarrena Intxaurrea	(Solozabal)	1924
007	Eugenio Zarrua Amutxastegi	(Luzar)	1927
008	Jose Luis Zarrua Amutxastegi	(Luzar)	1933
009	Jose Luis Etxeandia Zalduetxebarria	(Elorriaga)	1921
010	Miguel Angel Areitioaurtena Urrejola	(Gazagaetxebarria)	1936
011	Klara Aranzibia Telleria	(Katikabarri)	1909
012	Sofia Berasaluze Ariño	(Zalduegigoitia)	1925
013	Maria Angeles Maiztegi Gallastegi	(Agirresakona)	1942
014	Jose Luis Abarrategi Garitaonandia	(Arrigorrieta)	1931
015	Armando Abarrategi Garitaonandia	(Arrigorrieta)	1937
016	Miguel Abarrategi Garitaonandia	(Olaetxetxiki)	1943
017	Pedro Bildosola Gorrotxategi	(Eitzagabarrenengoa)	1912
018	Jose Mari Azagirre Garitaonandia	(Goenzelai)	1928
019	Fidel Asua Urizar	(Uruburu)	1920 †
020	Carmen Areitioaurtena Lasuen	(Zeartza)	1926
021	Jose Luis Uribarri Zubia	(Aranguren)	1937
022	Manuel Elustondo Irureta	(Eitzagagoikoa)	1919 †
023	Jon Ander Zurikarai Atxaorbea	(Goikoetxea)	1933
024	Juana Bastida Bildosola	(Arangurenazpikoa)	1940
025	Jose Mari Narbaiza Aranguren	(Askorra)	1926 †
026	Pedro Agirrebeitia Garitagoitia	(Urkiza)	1933
027	Rafael Gisasola Zabala	(Zalduetxebarria)	1927
028	Felisa Gorritxategi Aldekoa	(Kurutzega)	1911 †
029	Ignazio Zabala Zabala	(Garitaonandia)	1945
030	Juan Carmelo Zabala Zabala	(Zaldibar hotela)	1921
031	Javier Gorritxategi Ansola	(Eitzagaetxebarria)	1944

133. *Iurreta Elizateko Euskara eta Toponimia* liburuko “Berri-emailearen gaineko burutapenak” atalean jarritako baldintzak estu samarrak izan ziren (18. or.), baina ez da ahaztu behar helburu nagusia bertako euskara eta toponimia batzean zetzala; oraingoan, ostera, eta herri honen ezaugarriak gogoan izanda, baserri guztien lekukoren batekin egoten saiatu naiz. Hortaz, askoz malguago jokatu dut eta mugak ez dira hain zehatzak izan, ez hizkuntzarena (gaztelaniadunen bat ere izan dut lekuko, baita Zaldibarko euskara egiten ez zuenik ere), ez adinarena, ezta bertan jaiotakoa izatearena ere. Arrazoia begi bistakoa da, nire ustez, etnografiarako berriemaile egokia izan daitekeen 80taka urteko pertsonak, esaterako, agian mapak interpretatzeko arazoak izan ditzake eta bere alabak edo semeak toponimoak hobeto kokatuko ditu, 46 urtekoa izan arren. Dena dela, suertatu zaidan tipologia zabalena ezaugarri hauek betetzen zituen: euskalduna, bertan jaioa, 55 urtetik gorakoa eta baserrikoa.

134. Jarritako zenbakia grabazioen dataren arabera izan da, horrexegatik ez datoz alfabetikoki sailkatuak.

032	Jose Luis Garitagoitia Landa	(Arismendi)	1929
033	Antonio Garitaonandia Garitagoitia	(Askardui)	1944
034	Jesus Zurikarai Areitioaurtena	(Jainagazpikoa)	1924
035	Iñaki Zurikarai Azpitarte	(Jainagazpikoa)	1937
036	Rafa Urizar Eguren	(Garitazelaia)	1947
037	Enrique Iraeta Urkiaga	(Urizaraurtengoa)	1918
038	Mila Arroitaonandia Gallastegi	(Uriortua)	1954
039	Julia Areitioaurtena Kareaga	(Zeleta)	1917
040	Esteban Garitaonandia Agirrebeitia	(Gazagaibarra)	1935
041	Elena Garitaonandia Monasterio	(Agirrebeitia)	1926
042	Felipe Garitaonandia Monasterio	(Agirrebeitia)	1944
043	Lorenza Eguren Amiano	(Garitazelaia)	1920
044	Jose Azpitarte Aranzeta	(Luzar)	1946
045	Carlos Azagirre Arriaga	(Goenzelai)	1954
046	Elias Unzueta Berrizbeitia	(Berriz)	1931
047	Marzelina Arregi Aldanondo	(Urizarbarrena)	1934
048	Pedro M ^a Gallastegi Arregi	(Urizarbarrena)	1961
049	Julia Garitaonandia Zabala	(Arangurenardikoa)	1917
050	Patxi Belar Basauri	(Gazagaonandia)	1933
051	Jose Caballero Bengoa	(Berriz)	1944
052	Jose Manuel Garitaonandia Izurategi	(Txopena)	1969
053	Bittori Etxebarria Garate	(Gazagaotsoena)	1929
054	Sabino Antxia Arietaleanizbeazkoa	(Gazagaonandia)	1951
055	Adrian Lazpita Besoitaguena	(Berriz)	1927
056	Jose Luis Arginzoniz Gorrotxategi	(Kurutzega)	1937
057	Hilario Arginzoniz Gorrotxategi	(Kurutzega)	1938
058	Jose Ignazio Egia Zubikarai	(Sagarminaga)	1946
059	Pablo Zubiarrementeria Irizabal	(Ariolabekoa)	1920
060	Felisa Irulegi Uribarri	(Solozabalandikoa)	1934
061	Josefa Areitioaurtena Rekalde	(Iturbe)	1931
062	Maria Pilar Lasuen Uribeetxebarria	(Garitagoitia)	1926
063	Mateo Mendikute Garitaonandia	(Arangurenexebarria)	1941
064	Jose Antonio Elustondo Mallabiabarrena	(Eitzagagoikoa)	1955
065	Miren Valmaña Berasaluze	(Zurigain)	1932
066	Vicente Urkidi Azpiri	(Zurigain)	1927
067	Teodora Urizar Zurikarai	(Garitazelaia)	1913
068	Felipe Irulegi Milikua	(Solozabalandikoa)	1950
069	Plazida Azpitarte Egia	(Antsoaga)	1916
070	Félix Bildosola San Martin	(Eitzagabarrenengoa)	1936
071	Josu San Anton Arrazola	(Errementaria)	1954
072	Conchi Bastarrika Barrenetxea-Arando	(Urkitzazaldua)	1927
073	Jose M ^a Iriondo Mendizabal	(Zumarraga)	1931
074	Gregoria Garitaonandia Gisasola	(Urkitzatxebarria)	1921
075	Gaizka Zabarte	(Askorra)	1927
077	Elena Narbaiza Aranguren	(Askorra)	1929
078	M ^a Asun Gallastegi Zubiaurre	(Zearraetxetxo)	1941
079	Lazaro Garitaonandia Zuazubizkar	(Gazagaetxebarria)	1944
080	Mertxe Aranzibia Telleria	(Katika)	1917
081	J. Mari Arginzoniz Ugarteburu	(Berriz)	1922
082	Juanito Guridi Arriaran	(Oñati)	1932

II NORMATIBIZAZIORAKO IRIZPIDEAK ETA AHOZKO JARDUNA



Zaldibar (1961) (ZU)

Tankera honetako ikerketetan ohikoa den legez, helburuen arteko garrantzitsuenetarikoa toki-izenak gaur egunean nola erabili behar diren proposatzea izaten da. Terminologiari dagokionez, tradizioak normalizazioa deitu izan dio prozesu horri, toponimia arloan ez ezik, hizkuntzan ere horrela erabilia izan da, gainera. Hala ere, M. Gorrotxategi eta P. Salaberrik normatibizazio kontzeptu berria dakarkigute bere artikuluan¹, eta normalizazioa ibilbide luze baten azken helmugatatzat hartzen dute. Hona hemen euren hitzak:

“Izen bat ongi arautua egoteak ez du esan nahi, alabaina, izen hori normalizaturik dagoenik, hots, gizartean era normalean erabiltzen denik. Honetarako, jakina, beste baldintza batzuk bete behar ditu: ofizialki onartua izatea eta inprimaketan, errepede seinaleetan, kartografian eta abarretan agertzea, herrikoak proposatutakoarekin ados egon eta forma hartaz baliatzea... e.a. Baldintza asko, beraz, gehiegitxo aukeran.” (273. or.).

Azken berbok ezkor samarrak badira ere, erabat ados nago eurek eginiko hausnarketarekin; hori bai, nire semeak esaten duen bezala, askotan errealitatea ez doa normatibizatzailearen ildotik, eta orduan sor daitezkeen gatazkak konpontzeko sentibiltate guztiak gogoan izatea behar-beharrezkoa da, bestela jai dugu.

Normatibizatzea edo arautzea kontzeptu bera denez gero, azaldu egingo dizuet zeintzuk izan diren emandako urratsak eta geroagoko ebatzietan erabilitako arauak. Horretarako aipatu hiru iturrien datuak (dokumentazioa, ahozkoa eta kartografikoa) fidagarritasun indizearen bidez² iragaztearekin batera, euren arteko aldaketen bilakaera aintzat hartu ondoren, proposatutako toponimo normatibizatuak jarri dizkizuet³.

1. GORROTXATEGI, M. eta SALABERRI, P. (2000), “Toponimia txikia arautzeko irizpideak”, *Euske-
ra* XLV, 273-314. orr. Euskaltzaindia.
2. Fidagarritasun indizeak zehaztu egingo digu maila bakoitzean zein iturriri eman beharko zaion lehentasuna. Ikus ditzagun adibide batzuk: Dokumentuetan XIX. mendeko urte bereko edo hurbileko datu bi baditugu fidagarriagoa izango da, esaterako, Jabetza Erregistroko eskritura Udaleko Akta baino; Ahozko jardunean, berriz, maiztasunak edo berriemailearen profilak adieraziko digute zein den fidagarriena; Kartografikoan, ostera, antzinasuna duten jatorrizko mapak izango dira fidagarrienak (Eladio Romeoren, adibidez) eta ez honetan oinarrituta geroago ateratako kopiak.
3. Fitxen egituran berriro azpimarratuko dizuedan bezala, ikerketa hau F. Aranberriren *Ermua-Eitzaga leku-izenak* lanarekin uztartuta egoteagatik bere ereduarekin bat etorri naiz, kale izendegian izan ezik,

Zaldibarko zerrenda osatzeko lau izan dira erabili ditudan baliabideak⁴: neuk idatzitako *Iurreta Elizateko Euskara eta Toponimia* eta F. Aranberriren *Ermua-Eitzaga leku-izenak* liburuak; M. Gorrotxategi eta P. Salaberrik *Toponimia txikia arautzeko irizpideak* izeneko txostena; eta HPSk eta Euskaltzaindiak⁵ garatutako arautegia DEIKER institutuarena oinarri hartua.

Bertako toponimoen ezaugarriak ahalik eta argien ikus daitezzen ahozko jardunetik abiatuak atalez atal aztertzeaz gain, HPSren arautegiari jarraitu natzaio. Bestaldetik, adibide ugari hornituta egonda ere, ez dira guzti-guztiak agertuko, eta berezitasunak bakoitzaren *OHARRAK* deritzon atalean azalduko dira.

0. ARAZORIK GABEKO TOPONIMOAK

Bere hartan utzi edo dokumentuetan agertutako grafemak gaurkotu egin dira.

- Nor.: *Artasolo, Barreta, Laspuru, Luzar, Tabernasolo, Zaldibar...*
- Nor.: *Aldai, Aldatsa, Goierrri, Katikena, Kortatxu, Mendratxu, Pikoburu...*
- Dok.: *Alday, Aldaza, Goyerrri, Catiquena, Cortachu, Mendrechu, Picoburu ...*

0.1. Artikulua⁶

Ahozko jardunean artikulurik gabekoak izan dira nagusi; idatzizkoan, ostera, artikuludunak. Hortaz, dokumentuetako salbuespenak izan ezik, joera orokorra artikuludunak mantentzearena izan da.

- Nor.: *Bekoetxea, Goikoetxea, Lubarria, Otabarria, Zalduetxebarria...* - “Bekoetxe, Goikétxe, Lubárrri, Otábarri, Saldúetxébarri...”.

1. BUSTIDURA

Asimilazio bustidurari begira, zaldibartarrek sabaikoak egiteko joera argia erakusten dute, bai herskari horzkari ahoskabea (t > tt), baita sudurkaria ere (n > ñ);

hots, espezifikoak letra larriz, etzanaz eta beltzez agertuko zaizkigu eta generikoak letra xehe eta etzanaz, baina ez beltzez. Adb.: *BERRENGUREN* (*basoak*), *ZALDUEGI* (*ur-biltegia*), e.a. Parentesi arteko generikoei egoera sinkronikoa erakutsiko digute, gaur egunean zer den, hain zuzen ere. Salbuespen gisa, parentesi aurretik ere jarriz gero, datu horrek egoera diakronikoa islatuko du. Adb.: *LEJARRETA HOTELA* (*etxebizitzak*) <hotela izanikoa, baina gaur egunean etxebizitzak>. Bestaldetik, espezifikotetan aurki daitezkeen zehar marra (garrantzitsuena lehena) eta parentesiak (hipokoristikoa edo bigarren mailako leku-izenak) informazioa gal ez dadin txertatu dira. Adb. *INESENA, -a / ITURBEZALDUA, -a - URIZARBARRENA, -a* (*Beñakoa, -a*). Badakit batzuetan zehatzago joka zitekeena, hala nola, *basoaren* ordez, *barizti, pinudi*, e.a. sartuz, baina horrek sekulako arazoa sortzen zidan, zeren katastroaren ataletan izen berberaren barruan landatze ezberdinak zeudela-eta, aukeraketa oso arbitrarioa egin nezakeen; hala ere, adibide nabarmenetan *lepo, begala* eta antzeko izen geografikoei ordezkatu egin dute hain orokorra den *baso* delakoa. Are gehiago, zehaztasun txikiko eta aspalditik erabilitako *aurkintza* izenokoa ere ahalik eta gutxien jartzen saiatu naiz.

4. Bakan batzuk izan ezik, generikoak Eusko Jaurlaritzak 2001ean plazaraturiko *Izen Geografikoen Glosarioa* liburutik atera ditut.
5. HPSren ordezkarria Mirari Alberdi eta Euskaltzaindiarena Mikel Gorrotxategi izan ziren. Azken txosten honi geroago ere beste zenbait zehazkizun egin zizkioten P. Galé, A. Landa eta I. Lasak.
6. A. Bidartek eta A. Etxebarriak *Lezamako toponimia* liburuan honako hau dioskue: “Toponimoak deklinatzeko orduan berein arazo sortzen da, bereziki, leku-izenen bukaerako –a artikulua zehazten ez bada. Horregatik, corpusean artikulua determinatzaile formak nahita jaso ditugu, irakurleak jakin dezan toponimo horien bukaerako –a artikulua dela eta, toponimia nagusiko Bizkaia, –a legez deklinatu behar izango dituela” (24. or.). Proposamen interesgarria delakoa, neuk ere horrelaxe egin dut.

elkarketak eragindako zein adierazgarriaz, ostera, ez dut adibiderik topatu. Ahoz erabili eta dokumentatuetan sabaiko grafemak idatziak izanez gero, onartu egin dira toponimo normatibizatueta. Ikus ditzagun adibideren batzuk:

- Nor.: - *I + L > LL/L* — Ahoz: - I + L > LL [↓]
 - Hitz barruan: *Berdengillo, Ertzilla, Espillagaurre...* baina *Okildo, Okildogana...* “Berdéngillò, Ertzìllè, Espíllaurrè, Okíldo/Okílyo/Okíllò...”.
- Nor.: - *I + N > N/Ñ*⁷ — Ahoz: - I + N > Ñ [ñ]
 - Hitz barruan: *Iramiña, Sagastieskiña, Beñakoa...* baina *Aginaga, Jainaga, Kelemineta, Sagarmínaga...* “Agíña, Irémiñè, Jáíña, Kelémiñetà, Sa(g)ármiñà, Béíñe...”.
 - Hitz amaieran: *San Martin...* “Samártiñ...”.

2. BOKALISMOA

2.1. Bokalen harmonia

Nahiz eta adibide bakan batzuetan idatzizko tradizioak bat egin duen ahozkoarekin, aspaldikoak ez direla-eta, berreskuratu egin dira.

2.1.1. Hitz barruan

- Nor.: *Amazorbe, Imendia, Kelemineta, Larrape, Ulantzu...* “Amásorbè, Imínyidxè, Kelémenetà, Larrápa, Urúntzu...”.

2.1.2. Hitz amaieran⁸

- Nor.: - *A + A > -A/-EA*⁹ — Ahoz: -A + A > -IE
Aldapea, Gisatzako espalda... - “Aldapiè, Gisátzako espáldiè...”.
- Nor.: - *E + A > -EA* — Ahoz: -E + A > -IE
Andabidea, Etxostea, Kanterape... - “Andábiriè, Etxóstiè, Kantérapìè...”.
- Nor.: - *O + A > -OA* — Ahoz: -O + A > -UE
Arloa, Larrakoa, Zapatarikoa... - “Arlúe, Larrákuè, Sapátarikuè...”.
- Nor.: - *U + A > -UA* — Ahoz: -U + A > -UE
Etxeburua... - “Etxéburuè...”.

7. Oronimia atalean aztertuko den *-gain* izena eta *Kamiño* delakoa alde batera utzita, dokumentatua izateak eragingo du bustidura onartzea.

8. Eitzaga aldean izan ezik, non amaierako -E horiek -A izaten diren: “Béntaóstia, Katía, Kondébasuà, Motía, Totókuà...”.

9. F. Aranberriren liburuan, alde batetik entitatea sartuz gero artikulurik gabeko proposamena egiten digu: “Dioxako aldapa” (47.or.) eta bestetik, *Beko mota, Goiko mota* eta *Mota* normatibizatu ditu. Gai honen inguruan Onomastika batzordekideen artean *harmonia* handirik ez eta behin betiko erabakiaren zain, honelaxe jokatu dut ikerlan honetan: espezifikoak lekuzko edo jabego genitiboan daramanetan (*Urbietako erreka - Belarren txabola*) Izen geografikoen glosarioan proposatzen diren ildotik arautu dira (erreka, txabola, ...) eta besteetan (aldapa, benta, buelta, espalda), dokumentuek -EA amaiera islatu badute, gorde egin dira (*Aldapea*).

2.2. Bokalen irekidura eta itxitura

Adibide gehienetan berreskuratzea jo da, dokumentuetako datuek horrelaxe adierazten zutelako.

- Irekidurak.
 - Dardarkari anizkunak eragindakoa: e > a¹⁰.
Nor.: *Agirrebeitia, Agirresakona...* - “Arrábitti, Agárresakòn...”.
- Itxiturak¹¹.
 - Txistukari aurrekoa: e > i
Nor.: *Etxostea, Gazagaetxetxo...* - “Itxostíà, Itxostíè, Etxítxo...”.
 - Amaierako bokalaren joera: a > e
Nor.: *Arkatxa, Zearra...* - “Arkátxe, Siérre...”.
 - Aurreko silaban i / u egonez gero, ondoko a > e bilakatu zaigu¹².
Nor.: *Gisatza, Iramiña, Lixardi, Urkitza, Zaldibar...* - “Gisétza, Irémiñe, Ixerdi, Saldíber, Urkítxe...”.
 - Lubarria, Padura...* - “Lubérridxè, Padúre...”.

2.3. Diptongoak

Hainbat fenomeno aipa daitezke, Durangaldeko beste leku batzuetan ere gertatzen direnak¹³, gainera: monoptongazioa, diptongo aldaketa, bigarren mailako diptongoen sorrera, etab.

- *Beberanzkoak*. Monoptongatzea da ondoriorik zabalduena.
 - AI / EI – Nor.: *Garitazelaia...* - “Gaitteseiei...”.
 - AU, OI, UE > O – Nor.: *Arangoiti, Goenzelai, Intxaurtxueta...* - “Arángoti, Gónselai, Intxórtxueta...”.
 - AI > E – *Garitazelaia...* - “Seléa...”.
 - EI > I – *Agirrebeitia, Ubitikoerreketa...* - “Arrábitti, Uíttikoerréka...”.
 - Bigarren mailakoak : Nor.: *Lixardi, Otadui...* - “Leixárdi, Otai...”.
- *Goranzkoak*. Aurrekoetan legez, monoptongatzera jo dute hiztunek.
 - JE > I – Nor.: *Arrigorrieta, Iturrieta, Zalduzubieta...* - “Arrí(g)orrittè, Ittúrrittè, Saldusubítte...”.
 - JO > I / O – Nor.: *Iturriotz, Iturrondo...* - “Ittúrris, Ittúrondò...”.
 - WE > U(E)¹⁴ – Nor.: *Mandapozueta, Pagatxueta...* - “Mandáposu(e)tà, Pa(g)átxu(e)tà...”, baina *Kanpueta...* - “Kánpueta...”.
 - Bigarren mailakoak – Nor.: *Idoizarraga, ...* - “Iruisar...”.

10. Ik. Mitxelena, K.: *FHV*, 60. or.

11. “Añabar, Añebar, Añibar, Añobar” adibidea ez dut aipatu, oso korapilatsua delako eta azalpen berezia behar duelako.

12. Ik. Mitxelena, K.: *FHV*, 63. or.

13. Ik. Errazti, A.: *IEET*, 30. or. – I. Roman.: *Berrizko euskera* (2001).

14. Parentesi artean idatzitako bokal (kontsonante, beste batzuetan) hauen ahoskera oso erlatuata izateagatik erdi galdutat eman daitezke. Ziur nago belarriz igartzen dudán ezaugarri hau laborategian erraz frogá litekeena.

2.4. Jod epentetiko¹⁵

- Jatorrizko formetara jo da.
- Hitz barruan: -I + -O > I[ž]O
Nor.: *Ariola, Ariondo, Elorriaga...* - “Aidxóla, áidxondo, Elórridxà...”.
 - Hitz amaieran: -I + -A > I[ž]E¹⁶
Nor.: *Bolatokia, Etxeazpia, Esparrutxikia, Karabia...* - “Bolátokidxè, Etxás-pidxè, Espárru txikídxè, Karábidxè...”, baina *Iturriaga...* - “Iturrídxà...”.

2.5. Hiatoak

Orokorrez berrezarri egin dira bokal biak, nahiz eta ahozko jardueran, bokal bakarra geratzea izan den ondorioz zabalduea. Batek besterekin zerikusi handirik ez duten adibide ugariaren aurrean egon garela-eta, dokumentazioari berebiziko garrantzia aitortu zaio.

- -A + -A > A – Nor.: *Espillagaurre, Jainagazpikoa...* - “Ispíllaurrè, Jainás-pidxè...”.
- -A + -O > O – Nor.: *Atxosteá, Garitaonandia, Txabolondo...* - “Atxostíá, Gaittónandi, Txabolóndo...”.
- -A + -E > E – Nor.: *Otaerre...* - “Otérre...”.
- -E + -A > IE / -EA – Nor.: *Zearra, Zearrasolo, Zeartza, Zeartzabil...* - “Siérra, Sierresólo, Siértza, Siértzabail...” baina *Etxeazpiko soloak, Bidearte...* - “Etxáspiko solúek, Bidárte...”.
- -E + -O > O – Nor.: *Etxeosteko iturria, Etxosteá...* - “Etxósteko ittúrridxè, Etxostíá...”.
- -O + O > OO – Nor.: *Palaziooste, Kamiñoondo...* - “Palasioóste, Kamiñoóndo...”.
- Bigarren mailakoak – Nor.: *Aretxaga, Arragoeta, Garitagan, Iburutx, Solozabal...* - “Átxa, Arráúeta, Gaittán, Igútx, Sosábal...”.

2.6. Bokal galerak

Dokumentu zaharrenetan bokalak izanez gero, berrezarri egin dira galdutakoak.

- Hitz hasieran – Nor.: *Ibaibe...* - “Báibe...”.
- Hitz barruan – Nor.: *Uriortua...* - “úrtu...”.
- Hitz amaieran – Nor.: *Ertzilla...* - “Ertzíl...”.

2.7. Bokal metatesiak

Topatutako adibideetan modu biak antzinako dokumentuetatik etorrira ere, gaur egunean erabiltzen den bokalismoa hobetsi da.

15. Beste hainbatetan bezala, Eitzaga aldean sabaiaurreko frikari ahoskabea [š] erabiltzen dute: “Tellérixá”; beste auzoetan, osterá, ahostuna [ž]: “Elórridxà”, baina gaztelaniaz egitean, ahoskabea nagusitzen da hemen ere: “Jose luís el de Elorríxa, Francisca la de Arixóndo”.

16. Eitzaga aldean izan ezik, non amaierako -E horiek -A izaten diren: “Bolátokixà, Sagástixà...”.

- Nor.: *Iburutx* - “Ibútx, Igútx” - Dok.: Ubirox / Yburux.
- Nor.: *Ibur* - “Ibur” - Dok.: Ubiur / Ybeur / Ybur.

2.8. Bokal protetikokoak

Berreskuratu egin dira, dokumentazioan gutxitan agertu arren.

- Ø > E - Nor.: *Errementaria, Errementarialdea...* - “Errémentà, Errémentai-ko basúe...”.

2.9. Bokal elkarketak

Hiatoak sortzen diren kasuetarako 2.5. atalean adierazitakoa berretsiko nuke eta deklinabidea tartekatzen denetan, genitiboari dagokion 5. atalean aztertuko dizuet.

3. KONTSONANTISMOA

3.1. Herskariak

Bokal artean erabatekoa da belar ahostunen galera; ezpainbikari eta horz-kariena, berriz, ez. Dena dela, berreskuratu egin dira kasu guztietan. Hitz hasieran, os-tera, mantendu egin dut Zaldibarko euskaran hain berezia den belar ahoskabea, hots, g > k ; hori bai, dokumentuek hala erakutsi duten adibideetan.

- Hitz hasieran¹⁷: Nor.: *Katika, Katikena, Katikabarri, Kurutzeaga...* - “Katíke, Katíkenà, Katikebárrri, Kurútzia...”.
- Hitz barruan:
 - B- Nor.: *Basabe, Larrazabaleta, Sallabente, Uruburu...* - “Basá, Larrásaleta, Sallénte, Urúru...”.
 - D- Nor.: *Otadui, Otaduisakona...* - “Otaí, Otaíko sakóna...”.
 - G- Nor.: *Arragoeta, Arteaga, Arteagasolo, Berrenguren, Pagadizar...* - “Arráueta, Artía, Artíasolò, Berreun, Páisar...”.
 - aga - Nor.: *Aginaga, Eitzaga, Elorriaga, Jainaga...* - “Agíña, Eitzá, Elórridxa, Jáíña...”.
 - hegi, (t)egi - Nor.: *Amokategi, Arteko hegia, Zalduegi, Zalduegigoitia...* - “Amókatei, Artákei, Sáldi, Saldígoitti...”.

3.2. Kontsonante txandatzea

Jatorrizko formak berreskuratu dira.

17. M. Gorrotxategi eta P. Salaberriren hitzetan: “Gure iritzian ez da arazorik izan behar -k-dun aldaera horiek onartzeko, tradizio handia badute” (303. or.).

3.2.1. *Herskari eta dardarkari bakunaren artekoa*¹⁸

- -D / R - Nor.: *Abadeiturria, Bidekurutz, Andabidea, Gaztañadia, Trenbide-pe...* - “Abáre ittúrridxè, Birékutzè, Andábirie, Gastáñuridxè, Trenbirápe...”.

3.2.2. *Albokari eta dardarkarien artekoa*

- -L / R - Nor.: *Ulantzu, Ulantzugana...* - “Urúntzu, Uruntzugáñe...”.

3.3. *Txistukari nahasteak*¹⁹

Ezaguna denez, bizkaieraz txistukari apikoalbeolaren alde jo du euskalkiak bizkarrekoaren kaltetan. Fenomenoa ez da batere berria, XVII. mendeko testu batzuetan, *Viva Jesusen* adibidez, nahasketa goitik beherakoa zen, K. Mitxelenaren arabera. Beraz, udalerrri honetan oraindik euskara bizirik dagoenez gero, zenbait testuinguru fonetikotan aintzat hartu da.

- Frikariak.

Bilakaera diakronikoa eta euskalkiaren ezaugarriak gogoan hartu dira galdu egin direnetan. Adibidez, Nor.: *Arismendi* - “Arímendi”.

Sabaiaurreko igurzkariaren kasuan, ahoz jasotakoak berebiziko garrantzia izan du, dokumentatua agertu arren, ahoskatu ez bada, beste txistukariak kendu baitiote lekua, baina baten batek erabiliz gero, onartu egin da. Adibidez, Nor.: *Urizargoxena* - “Koxíñe”.

- Hitz hasieran ez da apikari-hobikaria idatzi. Nor.: *Zaldua, Zaldusolo, Zearra, Zeartzaburu, Zerratua, Zurikarai...*
- Hitz barruko zalantzetan, etimologia eta Euskaltzaindiak inoiz araututakoa hartu dira kontuan²⁰:
Nor.: *Aresti, Amargaztañeta, Amazorbe, Askorra, Gisatza, Laspuru...* - “Aisti, Amargastañeta, Amásorbè, Askórre, Gisétza, Laspúru...”.
- Hitz amaieran hitz hasieran bezala jokatu da. Nor.: *Garraz* - “Garrais”.
- Afrikariak.
- Hitz barruan ahoskune aldaketak ohikoak direnez gero, dokumentuez gainera, euskalkia, etimologia eta Euskaltzaindiak inoiz araututakoa hartu dira kontuan. Nor.: *Aldatsa, Antsoaga, Erratzategi, Gazagaotsoena, Urkitza...* - “Al-dátza, Antzúko erróta, Erréxitain , Otzóna, Urkítxe...”.
- Hitz amaieran berregin dira. Nor.: *Iturriotz...* - “Ittúrris...”.

18. Mitxelena, K.: *FHV* “un fenómeno especial es el paso de “d” a “r” cumplido más o menos consecuentemente entre vocales en zonas vizcaínas” (227. or.).

19. Mitxelena, K.: *FHV* “La confusión total de los dos órdenes de sibilantes es hoy general en Vizcaya” (282. or.). Beraz, Toponimia txikia arautzeko irizpideak delakoan esaten denez, “...lekuan lekuko ezaugarriak hobetsiko dira, oro har, salbuespenen bat ere izan daitekeen arren” (297. or.).

20. Adibide moduan, F. Aranberriren *Amesorbe* eta HPSren *Amezorberen* artean azken hau hobetsi dut, A. Irigoienek dioskun etimologiaz baliatuta, hots, “*ametz + orbe, hau da, ‘ametzak dauden orbea’ (De re... V-194. or.)*. *Askorrerekin*, ostera, alderantziz egin dut, *Iurreta Elizateko Euskara eta Toponimia* lanean ez bezala (156. or.), oraingoan apikaria aukeratu dut, zeren *Askorra* Mañariko *Askondo baserri* eta *Asko mendiaren* testuinguru fonetiko berbera bailitzateke, *atx*-etik sortu eta despalatalizatu ondoren (ahoz inork ez du “Axkorre” esaten), apikari bihurtu zaigu, hots, *Atx- > Ax- > As-*.

3.4. Txistukariak sudurkari, albokari eta dardarkari bakunaren ostean

Banaka aztertu dira, hiru baldintza hauek uztartuz: ahozkoaren maiztasuna, dokumentuetako bilakaera historikoa eta etimologia. Nor.: *Ertzilla*, *Goenzelai*²¹, *Goenzelaietxebarria*... - “Ertzille, Gonsélai, Gonsélaietxébarri...”.

3.5. Bokal arteko dardarkari bakunaren edo albokariaren galerak

Berreskuratu egin badira ere, herrian oso errotuta egon eta dokumentuen bidez aspaldiko bilakaera dela frogatuz gero, malguago jokatu behar litzatekeelako us-tekoa naiz.

Nor.: *Aretxsaga*, *Eldurain*, *Karezar*, *Lezaran*, *Santamarinazar*... - “Átxa, Eldúain, Kaáxar, Lésan, Santámañésár...”.

3.6. Jatorrizko kontsonanteak ahoskabe bihurtzea

Dokumentuek eurek erakutsi digute hartu beharreko erabakia zein izango zen. Lehentxoago esan bezala²², ahozkoan erabatekoa da hitz hasieran herskari ahoska-bea erabiltzea, beste leku batzuetan ahostuna izango litzatekeena.

3.7. Hiatoaren kontrako kontsonantea

Hiztunen belarrietarako arrotz samarrak izanagatik, berrezartzera jo da.

Nor.: *Igartu* - “Iyértzu” - Dok.: *Yguertua*.

4. BESTE KONTSONANTE ALDAKETA BATZUK

4.1. Kontsonanteen metatesiak

Jatorrizko formak berreskuratu dira. Nor.: *Amazorbe*... - “Amásobrè...”.

4.2. Hitz barruko sudurkarien txandaketa Ø

4.3. Beste kontsonante txandakatze batzuk

Kasu bakarra generikoa izan arren, aipatu egingo dut.
- - N / R - Nor.: *Ospitale psikiatrikoa* - “Maríkomidxuè”.

21. Adibide gisa, F. Aranberrik azterturiko eremutik kanpoko *Goienzelaizar* eta HPSren *Gontzelai*, nik neuk, ez nituzke aukeratuko, lehenak ez duelako ahozko tradizioa islatzen; bigarrenean, oster, frikaria da nagusi ahozkoan eta lehen silabako hiatoaren murriztea idatzizko tradizio laburragokoa nik proposaturikoa baino.

22. Ik. 3.1. Herskariak.

4.4. Kontsonante multzoen laburtzeak

Jatorrizko formak berrezarri dira, ahoz erabilitako modua aspaldiko dokumentuetan agertu ez bada.

- -LD > -L - Nor.: *Andikaldeta, Okildo...* - “Ándikaletà, Okillo...”.

4.5. Kontsonante gehitzeak

4.3. atalekoaren ildotik, hemen ere dugun adibide bakarra generikoei dagokie.

- Nor.: *ermita* - “ermíntxià, ermínttiè”.

5. GENITIBOA

5.1. Lekuzko morfema genitiboa

Ez dakit gaztelaniaren eraginez izango den edo benetan espezifikuari egiten zaion zehazkizunen bat, baina hidronimian, adibidez, askotan espezifikoa eta generikoren artean agerturikoak ezabatzeak diren ustekoa naiz, informatzaileek eurek ere sarritan ez baitute argi *-kodunak* ala gabeak egokiagoak diren, bietara ahoratzen zaizkie eta. Hala ere, banaka aztertu beharko lirатеke, gerotxoago azalduko dudana erara. Adb.: “Garraisko errékiè, Kortátxuko errékiè...”.

Baserri inguruko mikrotoponimian (belardi, mintegi, ortu, soro...) *Arteko, Aurreko, Beko, Erdiko, Goiko* eta *Osteko* osagaiak banatuta joan behar dute, nire iritziz, gehienetan etxe inguruan kokatzeagatik leku-izen erreferentzialak direlako²³. Oikonomoetan, ostera, batera jartzearena aspalditik onartutako araua dugu (Nor.: *Bekoetxea, Goikoerrot, Goikoetxea, Goikoetxebarria...*). Bestaldetik, eraikitako aska, txabola, ur-biltegi, eta abarrek baserriaren izen bera badute, normatibizatzean, genitiboa sarztearen aldekoa naizue, esate baterako, *Zalduégiko ur-biltegia*.

5.2. Jabego genitiboa

Beste zenbait lekutan legez²⁴, Zaldibarren ere toponimoen galtze prozesuarekin batera antroponimoek ordezkatzeko etorri zaigu, hots, berriemaile batek etxe baten edo izena ez dakienean bertan bizi den pertsonaren izena, deitura edo gaitziena erabiltzen du identifikatzeko, hortxe ditugu: “Anítuan txaléta, Balbínion etxíe, Belarren txabóliè, Eskérresien etxíe, Pastóran etxíe, Pedrógordón solúe, Txibítten txaléta...”.

23. Dena dela, A. Bidartek eta A. Etxebarriak *Lezama...* ikerlanean batera idazteko proposamena egiten dute “(b) leku genitiboa lehen osagaiarekin ageri eta toponimoa multzo foniko berean ahoskatzen denean” (21. or.). Nire ustez, multzo fonikoaren azentuazioa aztertu behar da, hots, “Góiko ittúrridxè” (azentu bat baino gehiago, banatuta) edo “Goikoittúrrí” (azentu bakarra, elkarturik). P. Galéri entzundakoa ere ekarri nahi nuke hona, hots, agian, mugatzailearena gogoan izanda, banaketa berri bat egin beharko litzatekeela, ez baita gauza bera *Goiko iturria* edo *Goiko iturri*.

24. Errazti, A.: *IEET*, 140. or.

Orokorrean baztertzekoak diren ustekoa banaiz ere, tradizio luzea izan eta dokumentuetan agertuko balira, malguago jokatu beharko genuke (*Inesena, Txopena...*).

6. BESTELAKO KASUISTIKA

Orain arte HPSren arautegiari zorrotz jarraitu diodan arren, atal honetan toponimoaren aukeraketan eragina izan dezaketen beste faktore batzuk aipatu nahi nituzke. Esan gabe doa, erabilitako iturri berberetatik edan dudana oraingoan ere.

Normatibizazioaren araurik behinena honako hau da: toki bati izen bakarra dagokio. Hala ere, aukeraketa beti ez da hain erraza izaten. Azter ditzagun adibide batzuk:

- *Errekarte* XX. mendean egin zen baserriaren izena da eskriturretan, baina inork ez du ezagutzen. Ahoz “Subiáurre” esaten zitzaion, gainera kale bati *Zubiaurre* izena jarri zioten. Konponbidea: ahozkoaren bidez, hots, *Zubiaurre baserria*.
- *Ganguren*, antzinako dokumentuetako toponimo peto-petoa dugu; *Santamarinazar*, ostera, bertan egondako ermitaren izenetik eratorritako hagiotoponimoa. Lehena ez da ahoz erabiltzen, bigarrena bai. Konponbidea: generikoaren bidez, *Ganguren mendia* eta *Santamarinazar tontorra*.
- Idatzitakoetan sekulako nahastea topa dezakegu batzuetan: *Laspuru, Larpuru, Lasburu, Lazburu, Lazpuru*. Ahoz jabeek baino ez dute ezagutzen, “Laspúru” diote, baina ziurtasun handi barik. Konponbidea: etimologiaren bidez, *Laspuru basoa*.
- *Zuloetaerreka* antzinako dokumentuetako toponimoa da. Ahoz itzelezko ana-basa dugu; batzuek errekarri “Kortatxu”, beste batzuek basoari, goierrikoek errekarren goiko aldeari “Kantéra errékiè”. Konponbidea: dokumentaturikoa berreskuratzea, hots, *Zuloetaerreka*.

Jarritako korapiloak nahikoa esanguratsuak dira, nire aburuz, erabaki zuzenak hartzea batzuetan zein gaitza den kontura gaitzezen. Jarrai diezaiogun, bada, ildo berberari eta azter ditzagun beste alor batzuk:

- **Hagionimia**²⁵

Orokorrez banatuta idatzi dira: *Santa Marina, San Martin...* baina *Fauste* aukeratu da, Durangaldean orokorra izategatik. Beraz, ahoz desagertzen den sudurkaria “Samártiñ, Saló(r)entzò” berrezarri egin da. Hagiotoponimoak, ostera, batu egin dira: *Santiagobaso, Sanmartinsolo...* baita jaien izenak ere: “sanándresak”... (azken hauek letra xehez).

Antzinako formaren batek ahozko isla nabarmena erakutsiz gero, berpiztearen aldekoa nautzue: *Sallabente* (*Eitzaga* aldean, baina ez *Urizarren*).

25. K. Mitxelenak gogoratzen digun bezala: “Los nombres vascos de santos constituyen, ya en los primeros textos literarios, un grupo cerrado, con todas las señas de arcaísmos en vías de desaparición. Lo que caracteriza al grupo como fósil es el hecho de que su empleo es en muchos casos inseparable del prefijo Jaundone, Jondone, etc.” (*Sobre... Nombres vascos de persona*, 593. or.). Beraz, *San* hori lehenetsiko da, forma arkaikoetan eror ez gaitzezen.

- **Hidronimia**

Genitiboaren atalean esandakoaren arabera, errekekin sekulako buruhausteak sortzen dira bai forma normatibizatua, bai mapa batean jarri beharrekoa erabakitzeke orduan. Hiru izaten dira ohiko arazoak:

1. Erreka bakarrean berriemaileek tarte bakoitzari izen bat jartzea (arruntena bertako basoarena izaten da). Zein aukeratu behar da, bada, osotasuna adierazteko? Ahozko maiztasuna izan daiteke erabakigarria, nire iritziz.
2. Erreka bi elkartuz gero, zein irizpide hartzen da bata ala bestea hautatzeko? Luzera? Jatorrizko iturburua? Ohiko prozedura ibilguari ur gehien ematen diona izendatzea omen da.
3. Oso ur gutxiko errekek direla-eta, “erréka txárkuak” euren hitzetan, sakonari berari ematen diote garrantzi handiagoa batzuetan; hortaz, ez da batere ezohikoa, toponimo horien bigarren osagaien ...*sakon(a)* agertzea.

Nik neuk, arau orokortzat genitibo kentzea gomendatuko nuke eta batera idaztea; dena dela, salbuespenak izan litezke ahozko eta dokumentuetako tradizioek argi erakutsiko balute.

- **Oikonimia**

Baserri izenetan espezifikokoaren osagai guztiak elkartuta idatzi dira:

Nor.: *Arangurenexebarria, Bekoetxea, Eitzagabarrenengoa, Gazagaibarra, Gazagaotsoena, Solozabalandikoa, Zalduetxebarria...*

Azken 40 urteotan eraikitako etxe izenen osagaiak marratxo batez banatzearen ohitura ez da onartu eta osagaiak uztartu egin dira; hori bai, jabeek jarritako moduan, eurekin bat ez etorrita ere; esaterako, *Beñeberri txaleta* (Bizkaian *Beñebarri* litzateke egokiago, baina ama Gipuzkoa aldetik etorri izanagatik bere hartan utzi da).

- **Oronimia**²⁶

Jakin dakigun legez, tontorrek adierazteko mendebaldeko tradizioak mendez mende idatzizkoan erabilitako osagairik zabalduena *-gana* izan da²⁷ eta ahozko bilakaera berriak *-gane* ekarri digu. Hala eta guztiz ere, sarri-askotan ahaztu egiten zaigu, *Zaldibarren* bertan gertatzen den modura, mendebaldean gutxienez, beste eredu bat ere badena²⁸ eta dihardugun gai honetan, adibidez, sabaikaria /ñ/ nagusitu zaiguna aspalditik. Ondorioz, ahozkoan maiztasun handiena duten formak hobetsi ditut eta hauek izan daitezke aukerak²⁹: *-gan* (ahozkoan azken bokala galdu bada), *-gana* (bustidura dokumentaturik ez badago), eta *-gañe* delakoaren ordean, *-gaña* (e- paragogikoduna gaitzetsita, ahozkoan azken bokala eta bustidura mantendu eta idatzizkoan /ñ/ islatzen bada).

26. M. Gorrotxategi eta P. Salaberrik dioskunez: “Uste dugu gure literaturan tradizio handi samarra duten formak sartu behar direla, bai eta ere bestelako arrazoiren batengatik (dialektologian duten pisuagatik, gertakari fonetiko-fonologiko, morfologiko... garrantzizkoren bat islatzen dutelako...) bereziak diren aldaerak [...] atxa eta gana mendebaldeko hizkeretan” (283. or.).

27. Lizundia, J. L.: “Errotagaña ikusi dot Tabirako ikastola berriaren eraikuntzan egingo den ostatuaren izena. Ez dot uste zuzena danik. Ez baita palatalizatzen gure inguruan hori giputz euskaran bai, baina Errotagaña, hau ere. Beraz, Errotagana da bizkaiko forma zuzena” (ERAZ.: 320. zk., 3. or.).

28. A. Irigoienek berak gogoratzen digu forma bat baino gehiago topa daitezkeena: “Beste hitz nabarmen bat gain / gan da. Ikusi dugunez, Araban -gan agertzen da, mendebaldean bezalatsu, baina baita ere gain, Eguzkialdean bezalatsu eta hor isoglosa moduko bat finka daiteke. Hala ere, ene ‘Las lenguas de los vizcainos...’ delakoan Mena aranean erabiltzen den Egaña toponymoa ikertu nuen: ‘La Cordillera de Ulia a Egaña’, Sasiak, ordea, ‘Igaña, Peña del Valle de Mena’ erraiten duela eta bigarren elementua -gaña da, nahiz eta kokagunea zeharo mendebaldekoa izan” (*De re...*, V-178-179. orr.).

29. Azken urteotako txalet berriren batean *-gain* forma ere ager lekgiguke.

III BIBLIOGRAFIA



Zaldibar (1974) (ZU)

- AGINAGALDE, F. B./VIVES, G. (1987): *El archivo de los Condes de Peñaflores*. Donostia.
- AGIRREAZKUENAGA, J. (1987): *Bizkaiko errepedegintza: 1818-1876*. Giltz liburuak.
- ALZOLA, P. (1898): *Monografía de los caminos y ferrocarriles de Vizcaya*. Imprenta Provincial. Bilbo.
- AMADOR, F. (1983): *Archivo de la Tenencia del Corregimiento de la Merindad de Durango*. Colección bibliográfica. Serie mayor 2. CAV.
- ARANBERRI, F. (1996): *Ermua eta Eitzako euskara*. Ermuko Udala. Euskara batzordea. Gertu.
- (2001): *Ermua-Eitzaga leku-izenak*. Onomasticon Vasconiae, 22. zk., Euskaltzaindia.
- ARREGI, G. (1987): *Ermitas de Bizkaia*. Bizkaiko Foru Aldundia/Labayru institutua.
- AZKUE, R. M. (1984): *Diccionario vasco-español-francés*. Euskaltzaindia. Bilbo.
- (1969): *Morfología vasca*. La Gran Enciclopedia Vasca. 3.libk. Bilbo.
- * * *
- BAESCHLIN, A. (2000): *La arquitectura del caserío vasco*. Ibaizabal bilduma. Biblioteca Vascongada Villar.
- BARRIO, J. A. et alii (1989): *Bizkaia. Arqueología, urbanismo y arquitectura histórica. I- Duranguesado y Arratia-Nervión*. Deustuko Unibertsitatea. Bilbo.
- BIDART, A./ETXEBARRIA, A. (2003): *Lezamako toponimia*. Lezamako Udala - Labayru Ikastegia. Bilbo.
- BIZKAIKO ESPELEOLOGIA TALDEA (1985): *Bizkaiko haizuloen katalogoa*. Bizkaiko Foru Aldundia.
- * * *
- CARRERAS Y CANDI, F. (1980): *Geografía General del País Vasco*. V. libk. (Carmelo Etxegaraik egin). La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo.
- * * *
- DEIKER (1989): *Toponimia para la cartografía a escala 1: 5000* (Bizkaikoa). Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Lurralde Politikarako Sailak agindutako lana.

DELMAS, J. E. (1864): *Guía histórico-descriptiva del viajero en el Señorío de Vizcaya*. 1. edizioa. Egileak berak argitaratua.

* * *

ELEIZALDE, L. (1922): “Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas”, R.I.E.V. Eusko Ikaskuntza¹.

— (1963): “Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas”, B.R.S.B.A.P. IX eta XX. liburukiak.

ELHUYAR (2000): *Euskal hiztegi modernoa*. Elhuyar edizioak - Elkarlanean.

ENRÍQUEZ, J. (1993): *Santiago bideak Bizkaian*. Bizkaiko Foru Aldundia. Kultura Saila.

ERRAZTI, A. (1990): *Bizkaiko Bira. GR-123 eta aldakiak*. Sua edizioak. Bilbo.

— (1994): *Iurretako Elizateko euskara eta toponimia*. Iurretako Udala.

ETXEGARAI, J. M. (1980): *La Actualidad de la Casa Blasonada en el País Vasco - Merindad de Durango*. Editorial Laiz, S. A. Bilbo.

EUSKALTZAINDIA (2000): *Hiztegi batua*. EUSKERA agerkaria, 45. libk. Bilbo.

* * *

GALÉ, P. (2000) : *Bizkaiko Gailurren Katalogoa*. Bizkaiko Foru Aldundia. Kultura Saila.

GAMINDE, I. (2003): *Zaldibar berbarik berba*. Zaldibarko Udala.

GARCIA, I. (2002): *Arqueología y poblamiento en Bizkaia, siglos VI - XII*. Bizkaiko Foru Aldundia. Kultura Saila.

GARCIA CARRAFFA, A. y A. (1967): *El solar Vasco Navarro*. 6 liburuki. 3. edizioa. Librería Internacional. Donostia.

GARCIA DE SALAZAR, L. (1985): *Las bienandanzas e fortunas*. Editorial Amigos del Libro Vasco.

GOIKOETXEA, N. (1968): *Montañas de Euskalerría*. Ibaizabal bilduma. 5. zk. Biblioteca Vascongada Villar. Bilbo.

— (1971): *Mendigoizale. Montañas de Euskalerría II*. Ibaizabal bilduma. 9. zk. Biblioteca Vascongada Villar. Bilbo.

GORROTXATEGI, M. eta SALABERRI, P. (2000), “Toponimia txikia arautzeko irizpideak”, *Euskera* XLV, Euskaltzaindia. Bilbo.

* * *

HAINBAT EGILE (1988)²: *Colección Documental del Archivo Municipal de Elorrio (1013-1519)*. Fuentes Documentales Medievales del País Vasco bilduma. 16. zk. Eusko-Ikaskuntza. Donostia.

HAINBAT EGILE (1989)³: *Colección Documental del Archivo Municipal de Durango*. F.D.M.P.V. bilduma. 4 liburuki (20, 21, 22 eta 23.zenbakikoak). Eusko-Ikaskuntza.

HAINBAT EGILE (1992)⁴: *Colección Documental del Archivo Municipal de Lequeitio (1325-1474)*. I. libk. F.D.M.P.V. bilduma. 37. zk. Eusko- Ikaskuntza.

1. 1922 eta 1936. urteen artean R.I.E.V. (XIII, XIV, XVIII, XIX, XX, XXI, XXII, XXIII, XXIV, XXV eta XXVII. liburukietan).

2. Concepción Hidalgo de Cisneros, Elena Largacha, Araceli Lorente, Adela Martinez.

3. Concepción Hidalgo de Cisneros, Elena Largacha, Araceli Lorente, Adela Martinez.

4. Javier Enriquez, Concepción Hidalgo de Cisneros, Araceli Lorente, Adela Martinez.

- HAINBAT EGILE (1993)⁵: *Colección Documental de los Monasterios de Santo Domingo de Lekeitio (1289-1520) y Santa Ana de Elorrio (1480-1520)*. F.D.M.P.V. bilduma. 46. zk. Eusko-Ikaskuntza.
- HAINBAT EGILE (2002)⁶: *Archivo Municipal de Elgueta (1181-1520)*. F.D.M.P.V. bilduma. 112. zk. Eusko-Ikaskuntza.
- HAINBAT EGILE (2003)⁷: *Archivo General de Simancas - Registro General del Sello. Vizcaya (1483)*. F.D.M.P.V. bilduma. 118. zk. Eusko-Ikaskuntza.
- HAINBAT EGILE (2001)⁸: *Euskal Herriko baserriaren arkitektura*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz.
- HAINBAT EGILE (2001): *Izen geografikoen glosarioa*. Eusko Jaurlaritza.
- HAINBAT EGILE (2003): *Labayru hiztegia*. Labayru Ikastegia- Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.

* * *

- IBARRA, J. (1958): *Catálogo de Monumentos de Vizcaya*. I.libk. Bilbo.
- (1967): *Escudos de Vizcaya*. Biblioteca Vascongada Villar. Bilbo.
- IBARRA, J./GARMENDIA, P. (1946): *Torres de Vizcaya*.. Madril.
- ILARGI ARGAZKI TALDEA (1992): *Zaldibar - Argazki zaharrak*. 'Durango Merinaldeko irudi kuadernoak' bilduma. Gerediaga Elkarte/BBK.
- IÑIGO, ANDRÉS (1996): *Toponomástica histórica del Valle de Santesteban de Lerín*. Nafarroako Gobernua.
- IRIGOIEN, A. (1986): *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*. Pracor. Bilbo.
- (1987): *De re philologica linguae uasconicae* II. Pracor. Bilbo.
- (1990): *De re philologica linguae uasconicae* III. Pracor. Bilbo.
- (1992): *De re philologica linguae uasconicae* IV. Wilsen. Azedo.
- (1995): *De re philologica linguae uasconicae* V. Wilsen. Azedo.
- IRIGOIEN, A./OLASOLO, E. (1998): *Nombres de familia y oicónimos en las fogueraciones de Bizkaia de los siglos XVII y XVIII*. Bizkaiko Batzar Nagusiak. CD-ROM. Bilbo.
- IRIGOIEN, J. F. (1881): *Colección alfabética de apellidos bascongados con su significado*. Imprenta de los hijos de I. R. Baroja.
- ITURRIZA, J. R. (1967): *Historia General de Vizcaya*. Fuentes para la historia de Vizcaya bilduma. Bilbo.

* * *

- JIMENO, J. M. (2004): *Estudios sobre toponimia navarra*. Pamiela etxea.

* * *

- KEREXETA, J. (1970): *Diccionario Onomástico y Heráldico Vasco*. 8 liburuki. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo⁹.
- (1992): *Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII*. Labayru/BBK.

* * *

5. Javier Enriquez, Concepción Hidalgo de Cisneros, Araceli Lorente, Adela Martínez.

6. M^a Rosa Ayerbe Iribar, Javier Elorza Maiztegi.

7. Javier Enriquez, Concepción Hidalgo de Cisneros, Adela Martínez.

8. Alberto Santana, Juan Angel Larrañaga, Jose Luis Loinaz, Alberto Zulueta.

9. Lehenengo lau liburukiek osatzen dute hiztegia, gero gehigarria iduri (V.a). VI. liburukian J. L. Bidaurrazagak itzulitako *Nobiliario alavés de Fray Juan de Victoria siglo XVI* eskuizkribua topa dezakegu (1975) eta VII. ean D. Lizasoren *Nobiliario de los Palacios, Casas Solares y Linajes Nobles de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa* (1983); amaitzeko, VIII.ak hainbat zerrenda eskaintzen dizkigu (hiztegiarenak, fogerazioak...).

- LARREA, M. A. (1974): *Caminos de Vizcaya en la segunda mitad del siglo XVIII*. Historia General del Señorío de Bizcaya. Apéndice 2. La Gran Enciclopedia Vasca.
- LASUEN, B. (1991): *La Anteiglesia de Zaldibar*. Temas Vizcaínos bilduma. 155. zk. Bilbao Bizkaia Kutxa.
- (1991): *Herriko Kondaira Koadernoak*. Metodologia atalaren 1.2.16. Zaldibartarren argitalpenak izeneko azpiatalean dituzue sailkatuta.
- LIZARRALDE, J. A. (1934): *Andra Mari de Vizcaya*. Amigos del libro Vasco.
- * * *
- MADOZ, P. (1845-1850): *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones de ultramar*. Madril.
- MENESES, A. (1946): *Reportorio de caminos (1576)*. La Arcadia (I). Madril.
- MITXELENA, K. (1977): *Fonética histórica vasca*. 2. edizioa. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia.
- (1987): *Palabras y textos*. EHU.
- (1988): *Sobre historia de la lengua vasca*. II. liburukia. A.S.J.U. Donostia.
- (1989): *Apellidos vascos*. 4. edizioa. Txertoa. Donostia.
- MOLERO, B. (1996): *Los caminos de Santiago en Bizkaia*. Asociación de amigos de los caminos de Santiago en Bizkaia. Xunta de Galicia.
- MUJIKA, L. M. (1989): *Euskal toponimiazko materialeak*. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- MUJIKA, N. (2002): *Toponimia eta kartografia: oinarrizko eskuliburua*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz.
- * * *
- NOLTE, E. (1954): “Cruces y monolitos de piedra en tejados de caseríos vizcaínos y sus paradigmas”. KOBIE: etnografía, 1. zk.
- (1972): “Nuevos datos sobre horreos ‘Garaixe’ de la provincia de Vizcaya” Urtarril-Ekaina. 5. zk. (separata). R.S.B.A.P.
- * * *
- OÑAEDERRA, M. L. (1990): *Euskal fonología: Palatalizazioa*. EHU.
- OTALORA, G. (1634): *Micrología geográfica del asiento de la noble Merindad de Durango*. Francisco de Uhagonek berrargitaratua.
- * * *
- PERURENA, P. (1992): *Koloreak euskal usarioan*. Erein. Donostia.
- PINEDO, J. A. (1996): *Monografías de pueblos de Bizkaia: Ermua, Mallabia y Zaldibar*. Bizkaiko Foru Aldundia¹⁰.
- * * *
- ROMAN, I. (2001): *Berrizko euskera*. Gerediaga Elkarte.
- ROS, A.-CABELLO, J. M. (1997): *Basauriko toponimia*. Basauriko Udala. Labayru Ikastegia. Bilbo.
- * * *
- SALABERRI, P. (1994): *Eslava aldeko euskararen azterketa toponimiaren bidez*. Onomasticon Vasconiae. 11. zk. Euskaltzaindia. Bilbo.
- SEGURA, S./ETXEBARRIA, J. M.: *Del latín al euskara*. Universidad de Deusto. Bilbao.

10. Bertsio biak erabili arren, leku-izenetarako gaztelaniazkoa nahiago izan dut, zeren euskarara eginiko itzulpenean ez dituzten jatorrizko grafemak gorde eta horrek sekulako nahastea sortzen zidan nire lanean.

SAN MARTIN, J. (2000): *Eibar eta Elgetako Toponomastika*. Onomasticon Vasconiae bilduma. 21. zk. Euskaltzaindia.

SARRIONANDIA, M. (1993): *Balnearios de Bizkaia*. Bizkaiko Gaiak bilduma. 219. zk., Bilbao Bizkaia Kutxa.

* * *

TERRADO, J. (1999): *Metodología de la investigación en toponimia*. Zaragoza.

* * *

URIARTE, J. M. (1990): *Durango Merinaldea*. Gerediaga Elkartea.

URKIZA, J. (1995): *Elizaren historia Euskal Herrian*. Vasconia Sacra bilduma, 1. zk. Karmel. Markina.

— (1999): *Aldizkari eta egunkarietako euskal bertso eta olerkarien bibliografia*. Karmel sorta, 11. zk. Markina-Xemein.

* * *

ZORROZUA, J. (1998): *El retablo barroco en Bizkaia*. Bizkaiko Foru Aldundia.

ZUAZO, K. (1999): *Deba ibarreko euskeria*. Hainbat udal. Gertu.

— (2003): *Euskalkiak-Herriaren lekukoak*. Elkar. Donostia.

IV INGURUNE HISTORIKO-GEOGRAFIKOA



Zaldibar (1993) (ZU)

Lurralde Historikoa: Bizkaia
Eskualdea: Durangaldea
Auzi Barrutia: Durango

Hedadura: 11,84 km.
Garaiera: 195,49 m.
Koordenatuak: 43° 10' 16" I.
01° 08' 27" M.

Zaldibar Bizkaiko lurraldearen hego-ekialdean kokatzen da eta Olaerrega auzoaren bidez Gipuzkoarekin egiten du muga eta ez Ermuak, askok uste duten moduan. Mugakideei dagokienez, iparraldean Ermua eta Mallabia ditugu, hegoaldean Elorrio, ekialdean Eibar eta Elgeta, eta mendebaldean Berriz.

Alderdi linguistikoa gertatu bezala, ikuspegi geografikotik ere bikoiztasun nabarmena antzeman daiteke elizatean; alde batetik Durangaldeko ezaugarriak gordetzen ditu eta bestetik *Eitzaga* aldekoen harremanak Debabarrenarekin estuagoak dira. Arrazoi hauek direla bide uler daiteke, agian, urteetan egon ziren mugimenduak Zaldibartik irten eta Ermuarekin bat egiteko¹.

Udalerriaren egituraketari begira, aztertu ditudan dokumentuetan lau dira behin eta berriro errepikatzen diren auzoak: *Eitzaga*, *Elexondo*, *Gazaga* eta *Goierrri*. Horrek ez du esan gura beste izenik agertzen ez denik², esaterako, Jabetza Erregistroan *Barrio del Sol* irakur dezakegu batzuetan, baina ez da batere zehatza, zeren izen bera- ren barruan *Elexondo* zein *Goierrriko* baserriak sartzen dituzten. Bestaldetik, baditugu *Cofradía de Ardanza*, *Aranguren*, e.a., baina kontzeptu geografikotzat baino interesen

-
1. Ezkutuko interesak edo udaletxetik auzorainoko distantzia alde batera utzita, Ermuko Santiagoko eliz- tarrak izateak ere lagunduko zuen, seguruenik. Arrazoi berberak erabil daitezke Berrizko Okango auzo- az jardunez gero, baina kasu honetan Zaldibarrekin elkartzeko.
 2. F. Carrerasesk *Geografía...*: “comprende su término, además de la anteiglesia, los barrios de Eizaga, Gá- zaga, Goyerrri y Urizar...” (898. or.) edo J. E. Delmasek *Guta...*: “La población esta dividida en tres bar- rriadas que se titulan Urizaár, Záldua y Gázaga” (440. or.) edo G. Arregik *Ermítas...* “Eizaga, Gatzaga, Goierrri, Okango, Urizar y Zaldibar” (241. or.) erakusten diguten bezala, irizpide ezberdinak erabili izan dira urteetan biztanleen guneak edo auzoak zeintzuk ziren adierazteko.

batzuk defendatzeko elkartetzat joko nituzke, partaideak hainbat auzotakoak izan zitezkeen eta³.

Populuaren sentsibilitatea gogoan hartu nahi izango balitz, aipaturiko lau auzo hauetaz zehazkizunen batzuk egin beharko lirateke, hots, elizatearen izendapen ofiziala *Zaldua* izan zen 1932an aldatu arte, baina berriemaileen arabera, eliz inguruko alde zaharari baino ez zegokion; *Zaldibar*, ostera, izen bereko leinuaren dorretxearen ingurutik hartutako toponimoa dugu, gerotxoago azalduko dudan legez.

Ondorioz, datu historikoak eta leku-izen horien ahozko erabilera uztartu ondoren, honelaxe osatuko litzaiguke puzzlea XXI. mende honetan: *Zaldibar udalerriak Zaldua* izeneko alde zaharra eta inguruak lituzke hirigunetzat eta administrazio antolaketarako lau auzo (*Aranguren*, *Gazaga*, *Goierry* eta *Eitzaga*)⁴.

Deskripzio fisikoa amaitzeko hidronimia eta oronimia aipatuko ditut, fitxetan luzez arituko natzaizuen arren, ez bailegoke batere txarto lehendabizi ikuspegi orokorra izatea.

Lehenengoari dagokionean, beste hainbestetan legez, Zaldibarri jarraitzen dion itzal bikoitza topatuko dugu berriro, hau da, alde batetik *Aranguren erreka*, *Agirresakoneko erreka*, *Solozabal erreka*, *Ibaiberreka*, *Artekoegierreka* eta *Garrazerreka* urak edandakoan, *Zalduerreka* *Ibaizabalen* barneratzen da; eta bestetik, *Ego ibaiak* *Ariolaerreka*, *Urbietako erreka*, *Bekoerreketa* eta *Iburerrekaren* urak xurgatu eta gero, *Deba ibaira* isurtzen ditu.

Bigarreanean, esan beharrik ez legoke Zaldibarko tontorrik altuena *Ganguren mendiko Santamarinazar* (674, 37 m.)⁵ duguna, baina badira elizatean besteren batzuk: *Añabargana* (511,07 m.), *Askorgan* (345,36 m.), *Garitagan* (349 m.), *Garraraz* (325,79 m.), *Goiko mota* (511,42 m.), *Gisatza* (564,95 m.), *Ibañetagaña* (512,09 m.), *Mendiburu* (437,12 m.), *Okildogana* (502,93 m.), *Otaburugaña* (391,77 m.), *Ulantzugana* (472, 33 m.).

Euskal Herriko bi lurralde historikoren artean kokatuta egoteak zenbait abantaila ekarri dizkio udalerrinari eta garraio bide garrantzitsuren batzuek zeharkatzen dute. XIX. mendearen bukaeran eraikitako Bilbo-Zumarraga trenbideak sekulako bultzada eman zion garai hartako ekonomiari, bainuetxetara jende gehiago hurbiltze-

3. Adibide gisa, hona hemen 1823/06/11ko akta batean irakur daitekeena: “La cofradia de Aranguren se compone de las caserías de Gatica propia del Señor Conde de Peñaflores vecino de la villa de Marquina, de las de Zuricaray, Uruburu, Garita, Yturrioz y Urizargoena pertenecientes a Dn. Agustín de Altona, vecino de la villa de Elorrio, de la de Aranguren y su arnaga propias de Domingo de Garitaonandia, de esta vecindad, de las de Garitacelaya y Ascorra pertenecientes a Justo de Armentia, vecino de la villa de Placencia, de las de Zaldua-Echevarria y Celayeta, que son de Dn Francisco M^a de Enparanza, vecino de la villa de Azpeitia, de la de Urizar-aurtena que corresponde a Santiago Maria de Arguinzoñiz, vecino de la Anteiglesia de Berriz, de la de Urizarbeña propia de Dn Juan Maria de Arteaga, vecino de la villa de Deva, de la de Zaldueguigoitia perteneciente a Juan de Garitacelaya, vecino de dicha Anteiglesia de Berriz y la de Solozabalganecoa, propia de Dn Jose de Bediaga, vecino de la Anteiglesia de Yurreta” (ESK.: 031)
4. *Aranguren*ek trenbide gainera auzune berria eta inguruko baserriak hartuko lituzke bere barruan; *Zaldua* eliz ingurutik *Zalduerrekaraino* luzatuko litzateke; *Gazaga* izen bereko baserri multzotik, *Urizarreta* biztanleen gune eta *San Martin ermita* ondoko *Zalduerrekaraino* jaitsiko litzateke; *Eitzagak Zuloaerrekatik Gipuzkoako* mugarainoko lurra hartuko lituzke (izen bereko auzoa, *Sallabente* eta *Olaerrea*g barruan), hots, F. Aranberriren ikerlanaren aldea; eta *Goierry Lixardisakon*, *Iturrieta* eta *Zuloaerreka* artean hedatuko litzateke.
5. Hegoaldeko tontorra zertxobait altuagoa da (674,53 m.) eta eskrituren arabera, *Santa Maña* izeneko.

aren ondoriorik zuzenena lanpostuen ugaltzea izan baitzen (bainuzainak, mandatarriak, sukaldariak, lorazainak,...)⁶.

Errepideek⁷ ere eragin itzela izan dute elizatean, itxurari buruz dihardut oraingo honetan baina. XX. mende hasieratik abian jarritako egitasmoez poliki-poliki Bilbo-Donostia 634 errepidearen gaur egungo ibilbidea zehaztean, aldaketaren batzuk ekarri bazituzten ere, benetako iraultza 70. hamarkadan etorri zitzaizen zaldibarrarrei A-8 Bilbo-Behobia autopistaren bidez. *Askorra*, *Solozabalandiko* edo *Bizinaiaabeletxe baserriak*, *Lapurriturri argi-zentrala* edo *Kurutzeaga* aldameneko karabia estali eta txabola botatzeaz gain, tunelak zultzearen ondorioz iturriren batzuk agortu egin ziren, hala nola, *Arisemendi baserri* ostekoa. *Katika baserri* azpiko *Olazarraren* arrastok ere aurretik eraman omen zituzten makina erraldoiek, gainera.

Azpiegitura handien haritik ezin utz daiteke aipatzeke, *Ariola urtegiak Eitzaga* aldean ekarri zuen txikizioa. F. Aranberrik *Ermua-Eitzaga: leku-izenak* liburuan eskaintzen digun zerrenda ikaragarria da:

“*Urtegia egin baino lehen, Arriolaerreka inguruan sortu zen auzo honetan baserri asko zeuden: Abeletxe, Aixola, Aixolabekoa, Aixolaerdikoa, Aixolagoikoa, Argiberria, Balxolabarrena, Bekoerrotta, Errota-azpikoa, Errotagainekoa, Errotai, Gosategi, Iburutx, Mendraikorta, Naparkoa, Ola, Olaiakorta, Txakilikoa, Txulo, Urbedereinkatu... Gaur egun ia denak janda edo lagata daude*” (378. or.).

Historiari buruzko zertzelada batzuk emateko XIV. mendetik hasiko naiz, toponimiarekin erlazionaturiko datuen batzuk⁸ ordukoak ditugu eta. Arestian adierazi bezala, *Zaldibar* leku-izenetik sortuko zaigu leinua. Honelaxe azaltzen dizkigu Lope Garcia Salazarkoak hastapenok:

6. Lanbidez oso interesgarria da B. Lasuenek argitaraturiko koaderno (HKK.: AO, 9.zk.) . Bestaldetik, baserriarrek dirua lortzeko baliabide berriak etorri zitzaizkien, adibidez, tren-geltokitik bainuetxera gehien zuzen garraiatzen zituzten ekipajeak, janariak, e.a.
7. Antzinako bidez fuxetan xehetasun gehiago emango ditudanagatik, ikuspegi orokorra honelaxe laburbilduko nuke: alde batetik, Done Jakue bideei buruzko J. Enriquezen edo B. Moleroren hipotesia genuke, *Eitzaga* aldeko galtzada Erdi Arotik ei letorkigukeela dioena; eta bestetik, M. A. Larreak XVIII. mendearen amaierako Durangotik Eibarrerako bidez hainbat azalpen eskaintzen dizkigu. Berriemailek, berriz, euren aitita-amamei entzundakoari esker beste bide batzuk ezagutu dituzte, baina batzuetan zein mailatakoak ziren ondo jakiteke. Honako hauek aipatu dizkidate: *Arangurengoak* (*Beko iturritik Iturbe baserri*ko estarta, eta *Arangurenerdikotik Geltokirako* oinbidea), *Bañerazarrekoa* (*Berriztik Zaldibarrera* erreka alboko *Arangoititik* sartuta, *Bañerazarraren* aurrean *Geltokirantz* egiten zuena), *Garitaganekoa* (*Areitio* aldetik *Askardui baserri*tik jaisten zen galtzada), *Gazagakoak* (mendi aldekoak baztertuta, zaharrenak bi ziren: *Palazioostetik* ur-biltegi eta *Urkitzaburutik* ermitara luzatzen zena, baina antenaren inguruan bazuen beste adar bat *Antsoaga errotara*, beraz, *Urkitza baserri* aurrekoa berriagoa ei da; eta beste bat *Garraz errotara* jaisten zena), *Larrazabaletakoa* (*Lixardisakonetik* behera egiten zuena, *Zearra*, *Zearraetxetxo* eta *Zearra* aldamenetik hirigunera luzatuz), *Mandapozeutakoa* (*Lupitako* bide nagusitik *Zaldugegigoitiaren* aldeko gupidea), *Sagarminakoa* (*Berriztik Arteagako* bigurutzeta eta *Bekoetxe* alderako bide nagusia, zein *Irukurutzeetatik Santa Marina ermitaraino* zihonan), *Solozabalgoak* (*Pozuandiaga* gunetzat hartuta, *Askorratik Katika* eta *Kurutzeagara* andabidea eta *Solozabal baserri* albotik *Arisemendi* edo *Garitaonandirako* bide zaharrak), *Urizarakoak* (*Katika baserri* ostetik jaisten ziren hirigunera *Askorretik* edo *San Martinetik*).
8. I. Garcia Caminoren *Arqueología y poblamiento...* liburu landuan Zaldibarren aurkikuntzarik aipatu ere egiten ez duenez gero, pentsa liteke ezer berririk atera arte ahaideen arteko borroken ingurukoak “se ha detectado ningún yacimiento arqueológico de época prehistórica, romana o altomedieval en todo el término municipal...” (291. or.).

“El linaje de Caldiuar fueron alli poblados / antiguamente, e el que pobló primero aquel so / lar de Çaldiuar fue fijo del señor de la casa / e solar de Vreta que es Nauarra de los mas / antiguos della, e de los que dellos suçedieron / del que ay mas memoria, fue Juan Roys de Çal / diuar que dexó fijo mayor a Ochoa Roys de Çal / diuar que ovo fijo erederó a Pero Ruys de Çal / diuar...” (XXI. liburua, 86. or.).

Garai hartan ahaideen arteko gorrotoek borroka itzelak eragin zituzten⁹, heriotzak ere txitean-pitean gertatzen ziren eta batzuk istorio ezagunak¹⁰ bihurtu zaizkigu:

“DE / COMO MATARON LOS DE YBARGOEN A LOS DE ÇAL / DIVAR, CONVIDANDOLOS A COMER

En el año del señor de VCCCXXX (1330) años / conujdaron los escuderos de Ybargoen / a comer a Juan Roys de Çaldiuar, con XV omes, en la torre de / Ybargoen. E quando se sentaron a comer, pedi / eron sal sal, e salieron de vna camara çinquenta / omes que yasian escondidos, e mataron al / dicho Juan Roys de Çaldiuar e a todos los / XV omes. E quedo por Refran, que quando alguno / pide sal, que disen, no sea de lo de Ybargoen” (XXII. liburua, 180. or.).

J. A. Pinedoren arabera¹¹, bi izan ziren leinuen arteko gatazken arrazoi nagusienak: batetik, Behe Erdi Aroko krisialdian nobleziak bere estatusa eta botere ekonomikoa ez galtzeko lur eta sektore berrien bila jotzea, zeinek euren arteko lehia zuzena ekarri zuen; eta bestetik, *Durango* eta *Ermuko* hiribilduetan sortzen ari ziren jarduera berriak, hala nola, burdinolen edo merkataritzarena, aitonon semeen leinuen kaltetan.

XVI. mendeko barealdiak hazkunde demografikoa eta ekonomikoa ekarri zituen eta jarduera nagusia nekazaritza izaten jarraitu arren, jauntxoren batzuk ekonomia aldetik sortzen ari ziren aukera berriez baliatu ziren eta burdinolak edo, modu apalagoan, ur-errotak eraikitzen hasi: *Eitzaga* aldean *Ariola* edo *Olaerreaga*, adibidez, eta *Gazaga* aldean *Garraz* eta *Antsoaga*. Etekinek sendotu egin zuten joera hau eta produkzioa gehitzekotan, XVII eta XVIIIan berriak abian jarri ez ezik, aurrekoen inguruan eraiki ere egin ziren besteren batzuk, horrexegatik aurkitzen dira hainbeste dokumentutan “ferrería mayor y menor” edo “ferrería vieja” bezalako zehazkizunak izen espezifikoan aldamenen.

XVIII. ean baso izaniko lurra soro bihurtu, “heredad de pan sembrar” izendatuak, eta ohiko gariaren ekoizpenari artoarenak lekua hartu izanak aurreko mendeetako erroten ugaritzearekin batera izugarri suspertu zuten nekazaritza, zeinetan biztanleriaren ia % 100ek jarduten zuen orduko *Zalduan*, baita jabe edo maizte-

9. XV. mendean ere egoera ez zen aldatu, kronikari berberak adierazten digunez: “En el año del Señor de VCCCCLVIII (1468) ovo mucha guerra e con / tienda en tierra de Durango entre / los de Çaldiuar e de Durango [...] Luego en este mes primero mataron los de Durango a las puertas de la dicha / Villa de Durango a Ferrando de Çaldiuar / escaramuçando, que fue ferido de vna sa / eta por las verijas deuaxo de las cora / ças estando a cauallo a la gineta. E mo / rió a cauo de tres dias en Caldiuar” (XXII. liburua, 218 eta 223 orr.).

10. A. Irigoienek berak ere *En torno...* liburuan aipatzen digu *Refranes y Sentencias* delakoan gertaera horretatik euskaraturiko esatera zaharra: ‘Gaçean, gaçean, ta ez Ybarguengorean’ (‘de la sal, de la sal, y no de la de Ybarguen’) (8. or.).

11. *Bizkaiko herrien monografiak: Ermua, Mallabia eta Zaldibar* (65-66 orr.).

rren eta udalaren arteko istilurik sortu ere, sarritan partikularrek¹² mugakide ziren lur-sailetan lur komunen zatiak harrapatzen baitzituzten. Mende amaieran Frantziako iraultzaren ondorengo Konbentzio gerrak eta, batez ere, Espainiako Independentziarenak (1808-1813) Olaerrega aldea edo Ermuari, esaterako, kalte itzelak eragin arren, gainerako auzoetan itxuraz ez ziren hain nabarmenak izan. Dena dela, nekazaritza desegituratzeaz gain, udalak eta baserriarrak zorrez josi zituzten aipatu gatazkok. Arrazoiak begi bistakoak ziren, gudarako soldadu gazteak behar izateagatik oztopatu egin zen belaunaldien arteko ordezkatzeta eta sarritan eskulana galdu, gainera gudarosteak mantentzea zama astuna bihurtu zen sektore guztiarentzat. Ekoizkinen bidez (artoa, lekariak, e.a.) edo aberetan ez ezik, dirutan ere ordaindu beharreko zergek ito egin zituzten udal eta familien ekonomiak. Ondorioz, zalduarrek, besterik ezean, herri basoak atalka zatitu eta saltzeari ekin zioten¹³. Hurrengo urteetako lasaialdiak eta ereindako lur berrien zabaleria handitzeak aro berri baten atarian egon zitezkeela sumatzen zenean, Lehen Karlistadak (1833-1839) errotik moztu zituen itxaropenak, eta altxamendu eta borroka sasoi hartan, *Zalduko* populua, Euskal Herri osokoarekin bat, mendearen garairik ilunena bizi izan zuen eta azken Karlistadaren amaierak (1876) foruak ezabatzea ekarri zuen.

XX. mendeko *Zaldibarko* biztanleriaren bilakaera demografikoa¹⁴ aztertuz gero, hamarkada bik erakusten dute besteekiko alde nabarmena: 1920-1930 eta 1960-1970. Arrazoiak ekonomikoak baino ez dira. Durangaldeko industrializazioak enplegu eta lanaren hazkundera ekarri zuen elizatera. Horrela, alde batetik, bertako baserriarrek diru sarrera berriak lortzeko etxetik kanpoko industriara jo zuten¹⁵, baserriko zereginak uzteke, jakina, eta bestetik, etorkinen ugaritzea hasi zen igartzen herrian, bigarren hamarkadan, batez ere. J. A. Pinedoren ustez, hastapen hauetan lantegi indartsuenak *Emilio Areitio. Forja y estampación-accesorios de bicicleta* eta *Forjas de Zaldibar S. A.* izan ziren. Lehenak 1916 inguruan ekin zion beharrari; bigarrenak, berriz, 1918an¹⁶, 20 langile zituela. Lan Nagusien Espedienteak¹⁷ eta Industria Errolden estadistikak begiratu gero, honakoa ondorioztatu daiteke: 40. hamarkadatik abiatu eta sortutako dinamikak 60.ekoan izan zuen bere isla biztanleriaren hazkunderaren bidez. Hala ere, ez zen *Ermukoaren* parekoa izan.

-
12. 1789/12/16 - Peritaje y tasación de varias tierras concejiles apropiadas por varios vecinos (BFA.: ZUA, Men.Kon., 6/35) 1809/10/19 - Tasación de las porciones de tierra comunales apropiadas por vecinos de Zaldua (BFA.: ZUA, Dok.His., 3/75).
 13. 1821/10/20 - Expediente tramitado por la anteiglesia de Zaldua para vender sus bienes concejiles con el fin de hacer frente a su deuda (BFA.: ZUA, Men.Kon., 6/75).
 14. J. A. Pinedok *Ermua...* liburuan erabilitako datuak hartu ditut kontuan (187. or.), Eusko Jaurlaritzaren *Biztanlegoaren bilakaera (1900-1981)* estadistiketan oinarrituak ei daudenak.
 15. B. Lasuenek gogoratzen digunez, baserrietan tailerrak jartzearena lehenagotik zetorren tradizioa genuen: "Iragan XX. gizaldiaren hasieran, armagintzan hasi ziran trebatzen Zaldibarko gazte asko, eta ondoko Eibarerra joaten ziran armagintzaren espezialidade desberdinak ikasteko: txispa-egileak, baskula-egileak, eskopeta-egileak eta errebolberren fabrikazinoa. Lehen mundu gerratearen urteetan (1914-1918) armagintzako hainbat tailer jarri ziran herrian. Bost tailer uri-gunean jarri ziran eta beste sei baseetxetan. [...] Goian aitatu diran tailerrak toki honeetan egon ziran kokatuta: lehenengo seiak ARANGUREN, URIBURU, GATIKA, ARNAGA, ARRIGORRIETA basetxetan. Eta hurrengo bostak BEKOETXEA, URKIZA, ETXEBARRIA, ZALDUEGIA, ALDEKOA, INESENA etxetan" (HKK.: AO, 22-23 orr.).
 16. *Forjabarri* toponimoan azalduko ditut lantegi honen dokumentu eta ahozkoaren kontraesanak.
 17. Izen esanguratsuak topa ditzakegu pabiloiak egiteko edo lehengoak handitzeko baimenak eskatzen, esaterako, J. Sanpedro (*Forjas de Zaldibar*), J. M. Balmaña, L. Mendikute (*V.A.M.*), F. Zumarraga, C. Areitio (*Areitio hermanos*), S. Egija, R. Gisasola (*Industrias Zaldua*), M. Garitaonandia (*MAGA*), J. Bergaretxe...

Arestian adierazi den legez, Zaldibarko tradizio industrialia baserrietatik bertatik sortu zen Eibarko arma-lantegientzat egiten ziren lan bereziekin, baina lehen sektorean bazen ezin ahaz dezakegun beste jarduera garrantzitsu bat: mintegiena. Has-tapenetan *Solozabal* aldean ere ezaguna izan arren, gaur egunean *Gazaga* auzoan pila-tzen zaizkigu enpresa entzutetsuenak, geroago zehaztuko dudan moduan.

Ikerketa honen helburua toponimia biltzea dela-eta, ez nuke nahi atal orokor honi amaiera ematea elizatea bera definitzeko erabiltzen diren leku-izenen jatorria aipatu barik. XX. mende aurreko irudimen handiko teoriak bazterreratuta¹⁸, maisu gorenaren hitzak ekarri ditut hona, K. Mitxelenaren *Apellidos vascos* liburutik harturikoak¹⁹:

“No es fácil distinguir formalmente sus compuestos de los de zaldú, pero éste parece ser el componente en la mayoría de los casos, así en Zaldibar o Zaldibia [...] Zaldú procede sin duda del lat. saltus” (163. or.).

Maisuen artean jarraituz, A. Irigoien bera ere iritzi berekoa denez gero²⁰, onartzeko moduko interpretazioa dena ez dut zalantzan jartzen, are gehiago udalerrian bertan leku-izen bakoitza non dagoen ikusita, *Zaldibar Ospitale psikiatriko* aldean (erre-karen aldamenetan) eta *Zaldua*, hirigunetik *Arangurenentz* basoa hasten zen aldean²¹.

18. J. R. Iturrizak, esaterako, hauxe diosku: “Zaldúa que denota fuerte o tieso” (365. or.).

19. *Sobre la historia de la lengua vasca* liburuan “Introducción fonética a la onomástica vasca” artikuluan honako hau gehitzen digu: “La evolución del grupo -alt- (> vasc. -ald-) es muy distinta en cast. (-alt > -aut- > -or-): vasc. Zaldú, cast. Soto, gall.-port souto” (565. or.).

20. *En torno...*: “Zaldibar, véase Çalduiar, de zaldú, del lat. saltu(m) + ibar, ‘vega, valle’” (139. or.).

21. Oraingo honetan ez nago ados B. Lasuenen interpretazioarekin, *La Anteglesia...*: “Balneario situado en el lugar denominado Zaldibar (zaldú + ibar) cuyo significado viene a ser, ‘vega de caballos’” (3. or.). Urteek aurrera egin ahala, berak ere albo batera utzi omen du ‘zaldiaren kontua’, *Zalduibar* aldizkarian, adibidez: “ZALDU(A) eta IBAR berben baturatik dator ZALDUIBAR, aldizkari honen izena. [...] ZALDUIBAR - *Zalduako ibarra*” (0 zka- 2. or.). Hastapeneko adiera emateko, ez dakit zein iturritatik edan zuen, baina J. Kerexetak berak *Diccionario...*: “Vega de los caballos o vega del soto” (IV, 385. or.) arteko zalantza erakutsi aurretik, J. F. Irigoien *Colección alfabética de apellidos bascongados con su significado* (1881) delakoa agertu zitzaigun lehen bider. Beraz, argi esan dezakegu azken egile hau batzuetan zuzen samar dabilenagatik, XIX. mendeko ohiturari jarraitzen zaiona, hots, azalpen irudiment-suak egiten dituena, baina oinarri zientifikorik gabekoak. Are gehiago, *Zaldibar* edo *Zaldua* deitura duten armarren animaliak aztertuz gero, ia deskripzio guztietan osoak aipatzen dira, gutxi batzuetan basurdeak eta kasu bakar baten zaldú bi eta berriagoa izateaz gain, Oñatin kokatzen zaigu, ez Bizkaian. Hona hemen egile ezberdinen adibideak:

92. Babes ofizialeko 20 etxebizitza hauek honela banatzen ziren: 2 *Aldatsa* baserriaren *Etxeondoko* landan eta 18 *Elexazpi* lursailaren hegoaldean.

ELEXAZPI (Orrezpengo) (etxea)

Kokapena: Elexazpi finkan altxatu zen lehenengo etxea. Elizondo, 7.

OHARRAK: Ik. *Elexazpi (aurkintza)*. 1925ean eraiki eta 1951ean solairu batez luzatu zuten etxe honen gaitzizena perpaus batetik sorturiko toponimoa da (hor + ez + baengo > Orrezpengo) eta dokumentatuetan nahiz ahorik aho ere urteetan erabili bada ere, bertakoen azalpenak aintzat hartuta, egokiago deritzot soloaren izena berreskuratzea, zeren hasiera batean “Orróspengo” etxea baino izendatu ez arren, azkenean *Elexazpi* leku-izen zaharrena ordezkatzan hasi zen, orubeari berari zein kale bati ere jarri baitzitzaion. Beste alde batetik, 1933ko datuek berretsi egiten dituzte ahoz jasotakoak⁹³, hots, etxe azpian tailerra egon zela eta bertako P. Aldalur perratzailea izan zela⁹⁴.

“Eleixáspi ortu au san, Astarloana, Elexáspi, da amengo aitte sanak, nere aittagiñarrebak esate eban, tabérnie ipiñi ebanien, hasarre ixeten san, da Orrospengo gero jarri ei san, bañe Orróspengo jarri otzan, ba, are pe tabérnie ipiñi eban, bañe aurretik euken tabernie Gregorian amak eta aittek eta au etxiau in sanien da tabernie ipiñi euen, ba, Goiketxeko frailien aitte, Otxoa esate otzen ari, da arek esan: - Elesaspi estok ori, Orrospengo dok, se traba itte otxak ari-tte, or es paengo. Árek ipiñi otzan isena, gatxisena, mótie. Da gero geatu san Orrospengoas, da aitteri esate otzen: - Seaittik es otzen ipiñi isena ateburuen? - Bai, árek ipiñi otzan ixena ni paiño lenau. Au Elixaspi da.” (M. Aranzibia).

Ahozkoa: [ořóspengò]

- 001 “Orróspengò, Orróspengò, Eléxaspi”
- 010, 013, 049, 075 “Orróspengò”
- 074 “Orróspengò, Aldálurren etxié”
- 080 “Elexáspi, Eleixáspi”



Elexazpi izeneko orubea eta etxerik garaiena (1961) (ZU)

93. “Un taller de herreria, trabajando un oficial, compuesto de la siguiente maquinaria movida a mano: un taladro, una fragua y un torno. En el mismo existe una herradora de ganado vacuno, en la que hierran unos dos o tres a la semana” (BFA.: ZUA, Ban., abu. 19, C-066).

94. B. Lasuenek berak dakarkigu informazio hau bere lanean (HKK.: HES, 19. or.).

Idatzizkoa:

- 1922 Elesaspe, heredad titulada (ZJE.: 370, abu. 19) ("casa nueva" - 1925/5/29)
- 1930 Orrospengo (ZSAE.: Matr. Lib.)
- 1932 Orrospengo o Aldalur, casería de (ZSAE.: BAT8/14)
- 1935 Orrospengo, lámpara en la esquina de (BFA.: ZUA, Kon. Lib., ira. 26, C-055)
- 1937 Orrospengo, casa (ZSAE.: BAT8/7)⁹⁵
- 1942 Orozpeno, en la casa de (ZEZ.: JA10/251)
- 1945 Orrospengo (ZSAE.: Matr. Lib.)
- 1948 Orrospengo (ZSAE.: Matr. Lib.)
- 1949 Orrospengo, casa (ZSAE.: HIL5/8)
- 1951 Orrospengo, en su casa de (ZUA.: Ak. Lib., aza. 24, 0432. er.)⁹⁶
- 1955 Orrospengo, casa de (ZSAE.: BAT9/12)⁹⁷
- 1963 Orrospengo, en el punto denominado (ZUA.: LNE, 0971/021)⁹⁸
- 1967 Orrospengo, en (ZUA.: LNE, 0977/006)⁹⁹
- 1968 Orrospengo, casa de (ZSAE.: BAT9/7)
- 1969 Orrospengo, rectificación de tejado para formar un jardín (ZUA.: LNE, 0981/004)
- 1974 Orrospengo, la cuesta de (COR.: II. libk., abu. 1)
- 1977 Orrospengo, dirección prohibida en (COR.: II. libk., urr. 15)
- 1978 Orrospengo, cuneta de (COR.: II. libk., mai. 21)
- 2002 Elizazpia etxea (HKK.: HES, 15. or.)

ELEXONDO (*Torretxu*) (*dorretxea*)

Kokapena: Katikena etxearekin bat egiten du. Katikena zeharkalea, 2.

OHARRAK: Ik. *Katikena*. Eraikin bikoitza da, hau XIX. mendean altxaturikoa eta bestea dorretxea izango zen B. Lasuenen deskripzioaren arabera¹⁰⁰. Osagaiak: Eleiz (izen arrunta) + ondo (izena).

Idatzizkoa:

- 1704 Torrecilla (BFA.: ADM, OGE, Fog., 1. er., 231. or.)¹⁰¹
- 1864 Elizaondo, casa casería numero trece en el término de (ZJE.: 32, urr. 13)
- 1873 Eleishondo (BFA.: ZUA, Ban., urr. 27, C-066)
- 1875 Eleisondo (BEHA.: H.Pap., VC. Kof.)
- 1879 Elexondo, tiene en montes... (EHAE.: PKA, MU, 037. libk./0667. er.)
- 1896 Eleixondo, en la casa llamada (ZEZ.: HE3/59)

95. Datu berberak: 1940, 1944, 1946, 1950, 1952.

96. "Pedro Aldalur proyecto de elevación para la construcción de viviendas en su casa de *Orrospengo*".

97. Datu berberak: 1956, 1957, 1958, 1959, 1962.

98. "Solicitud de Pedro Aldalur de licencia para la construcción de viviendas en el punto denominado *Orrospengo*".

99. "Solicitud de Pedro Aldalur de licencia para la construcción de pabellón industrial detrás de su casa en *Orrospengo*".

100. "*Gatikena* izenagaz gehiago ezagutua. Eraikuntza honek baditu jauntxoan etxe tankerak. Puntu erdiko arkudun atea, harlandu ederreko dobela haundiekaz, giltzan, landu bako armarría, horma zabalak leiho-saiera eta landutako leihatila polit bategaz. Peñafloredako Kondearena izana" (HKK.: HES, 7. or.).

101. "La Torrecilla de junto a la yglesia de *Ysauela de Arauio*".



Elexondo dorretxea (2003) (AE)

- 1922 Elizaondo, Caserío (BFA.: ADM, OGE, AH-07)¹⁰²
- 1929 Torrecilla de Elizondo (ZSAE.: BAT8/17)
- 1930 Torrecilla (ZSAE.: Matr. Lib.)
- 1932 Torrechú, en (ZSAE.: BAT8/23)
- 1939 Elexondo, C° (BFA.: ZUA, Ban, 67/124)
- 1952 Elizaondo (Catiqena) (ZUA.: 1408. or., 154. or.)
- 1988 Elizaondo, pertencidos del caserío (ZJE.: 2100, uzt. 26)
- 2002 Elizondo Dorretxua (HKK.: HES, 7. or.)
- 2003 Zaldibarko Elizondoa dorretxuan (HKK.: AA, 8. zk., 4. or.)

ELEXOSTE (*etxea*)

Kokapena: Sanjuangoa eta Elizondo kalearen arteko eraikina.

OHARRAK: Ik. *Elexazpi* (*aurkintza*). Kokapenari begira, toki-izenik zehatzena *Elexoste* da eta ahozko zein dokumentuei begira aniztasuna nagusi izateagatik aukeratu dut forma hau. Kultura Etxearen gorabeherengatik azken urteotan ezaguna bilakatu, baina sustrairik gabeko *Elexpe* baztertu egingo nuke. Osagaiak: Eleiz (izen arrunta) + oste (izena)¹⁰³.

102. Datu berberak: 1926 (AH-31).

103. Mitxelena, K.: "En el sentido de 'parte posterior, *gibel* es claramente anterior a atze y al occ. Oste [...] desde luego, *oste*, es frecuente en toponimia menor, por lo menos en la alavesa, cosa nada estraña dada su vitalidad moderna en la lengua. Pero falta en la mayor y no conozco testimonio alguno que nos lleve de la Edad Media. En toponimia, atze es aún menos usual que oste" (*Palabras...*, 148. or.). Datu gehiagorako: Irigoien, A.: "Sobre el origen de las palabras vascas alde, oste, garai y usa" (*De re...*, II-155-166. orr.) - Mixelena, K.: *AV*, 143. or.



Elexoste, parrokiako kanpandorrepean (1978) (ZU)

“Eléspe etxíe, a gurie san. Guk urten genduenien eskerresie jun san ara, eskerra esate otzen gisonai, ba, eskérresie andriai. Neguen balnearidxuen egote giñien da gero urán eote giñien an, Eléspen, se nire aitte Eléspekue san, Eléspen jaidxokue, nire aitte esan baserrikue. Ama il dxakon gasteik, da aitteas gero, amama bisi san an, amen partetik san Elespe, da amamas bisi san” (J. Garitaonandia).

Abozkoa: [eškéřesienà]

- 001 “Elexáspi, Eléiaspi”
- 049, 075 “Eskérresienà, Eléspe”
- 074 “Eskérresieneko etxíe”
- 013, 027, 030, 067, 080 “Eskérresienà”

Idatzizkoa:

- 1866 Eleishoste Acharte (BFA.: ZUA, Ban., C-066)
- 1875 Eleisoste (BEHA.: H.Pap., VC. Kof.)
- 1878 Elesaspi, pertenece a la caseria de (ZJE.: 180, mai. 18)
- 1887 Elexoste, casa de (ZSAE.: HIL4/14)
- 1888 Eleiaspía, en la casa llamada (ZEZ.: JA1/77)
- 1890 Elexoste, casa de (ZSAE.: HIL4/15)
- 1893 Eleiaspía, casa llamada (ZEZ.: JA1/180)
- 1897 Eleis-aspía, en la casa llamada (ZEZ.: HE3/66)
- 1898 Elesaspe, casa nombrada (ZJE.: 275, abe. 23)
- 1901 Elexaspe, en la casa (ZEZ.: JA3/68)
- 1904 Elexaspe, en la casa de (BEHA.: BAT, urr. 4)
- 1912 Elexoste, en la casa (ZEZ.: JA5/93)
- 1913 Elexoste, casa de (ZSAE.: BAT7/11)¹⁰⁴

104. Datu berberak: 1914, 1915, 1918.

- 1914 Elexaspia, en la casa (ZEZ.: JA6/84)
- 1915 Eleix-azpia, en la casa (ZEZ.: HE6/7)
- 1917 Elexaspe, casa de (ZSAE.: BAT7/32)
- 1917 Elexoste, casa de (ZSAE.: HIL4/10)
- 1918 Elexaspe, casa de (ZSAE.: HIL4/1)
- 1914 Elexoste, en la casa (ZEZ.: JA6/72)
- 1919 Elexaspe, casa de (ZSAE.: BAT7/10)
- 1922 Elisaspia, caserío (BFA.: OGE, AH-07)
- 1923 Elejaazpia, casa denominada (ZJE.: 392, ira. 15)
- 1933 Elisaspia, en la casa de (ZEZ.: JA10/36)
- 1926 Elejape, casa de (ZSAE.: BAT8/6)
- 1936 Elis-aspe, en la casa de (ZEZ.: JA10/12)
- 1937 Eleizaxpe, casa de (ZSAE.: BAT8/13)
- 1945 Elizaspia (ZSAE.: Matr. Lib.)
- 1948 Elixaspe (ZSAE.: Matr. Lib.)
- 1950 Elizaspia, casa (ZSAE.: HIL5/12)
- 1991 Elexpe, obtenidos a través de otros documentos (AZ.: 26. or.)
- 2000 Elexpe, Casa Cultura (ZU.: OI, 1.1/25)
- 2001 Elexpe, patrimonio a proteger (ZAL.: 8. zk., 2. or.)
- 2002 Elexpe etxea (HKK.: HES, 15. or.)

ERROTALDE (*desagertutako soroa*)

Kokapena: Ipintzatik erreka aldera zegoen. San Andres etorbidea, 12.

OHARRAK: Ik. *Ariondo*. Ahoz inork ez dit leku-izena berretsi. Elgetatik etorri eta armagintzan aritu ondoren, Asensio Zabalaren deitura hartu zen pabiloia izendatzeko¹⁰⁵.

Idatzizkoa:

- 1864 Errotalde, heredad en el término de (ZJE.: 18, uzt. 26)
- 1952 Errotaldia (ZUA.: 1408. er., 142. or.)
- 1968 Errotalde, parcela que proviene del pertenecido (ZJE.: 974, ots. 7)

ESPARRUTXIKIA, -a (*basoa*)

Kokapena: Ermurako errepidean Agirresakoneko eta Lixardiko buelten arteko azpiko basoa.

OHARRAK: *Areitio* gaineko hirugarren bidea egiteko desjabeturiko lurra. Osagaiak: Esparru (izen arrunta) + txiki(a) (izenondoa).

Ahozkoa: [ešpáru čikiže]

- 002 “Espáru txikídxé”

Idatzizkoa:

- 1890 Esparruchiquia, monte contigüo a Otabarria (ZJE.: 244, mai. 8)
- 1938 Esparruchiquia (BFA.: ZUA, Zin.Ait, abe. 7, C-093)
- 1952 Esparruchiquia (ZUA.: 1408. er., 205. or.)

105. 1969/09/12: “Solicitud de Asensio Zabala de licencia para la construcción de un pabellón industrial en *Cearra*, según proyecto redactado por el arquitecto Faustino Basterra” (ZUA.: LNE, 0981/026).

ETXEAZPIKOA, -a (*etxea*)

Etxeazpikoa, Abigoxo eta Gu Biona txaleten azpian (1961) (ZU)

Kokapena: Lejarreta etxearen osteko aldea.

OHARRAK: *Sagarminaga baserriko Etxeazpia* izeneko soloak gaur eguneko *Arantzamendi* eta *Arangoiti* kaleen eta *Munibe zebarkalearen* arteko lurra hartzen zuen eta bertan altxaturiko lehen eraikina hauxe izan zen. Urte batzuetan posta zerbitzua bertatik antolatu zela-eta, “Kartéruen etxíe” ere deitu zitzaion. Osagaiak: Etxe (izen arrunta) + azpiko(a) (izenlaguna).

“Au etxiâu ei eban nere osaba batek. Bera kostrutorie san da epoka baten ei ban Galiziako, La Coruñaako portúe. Francisco Egia Bildosola san, da esate otzen Patxibaltz. Ori estakitt nundik datorren, bera aundixe san, moreno-moreno, estakit, iguel jittano típue eukalako? Onegatik esango tzen Patxibaltz? [...] Tiok esate ban: - Amen deket terreno ona neuk etxie egiteko. Da orduen itxi otzan or terrenue aittek eta ori ei ben. Praktikamente es montakargasik, es esebe barik, ei ben polea bat ipinitte. Ori etxioi in ye da makala, oso sensillu-sensillue da. Nire aitte be ibili san berekin. Or itte ben etxe gustien másie eta jaso, da baldakabaldaka, ipini polea bat eta olantxik jasota eta etxe txikia da, ladrilluekin-da, me-meie da. Orrek esteko es doble kamararik, es esebe. Tellatue be, da, ba, egurreskue. Ori inye gero, Saldiberren kartero egon sana amen bisi san, da ortxe etxien euken bere ofisiñie. Aspaldiko urtietan karteruen etxie esate akon” (J. I. Egia).

Ahozkoa: [pačibalcená]

- 030 “Patxibaltzenà”
- 058 “Etxáspikuè, Tiopátxin etxíe”

Idatzizkoa:

- 1955 Echeazpia, en la heredad denominada (ZUA.: LNE, 967/006)¹⁰⁶

106. 1955/09/29: “solicitud de Francisco Egia para la construcción de seis viviendas en la heredad denominada *Echeazpia* de su propiedad según el proyecto del arquitecto Antonio Etxeandia”.

- 1970 Echeaspia, casa denominada... sobre terreno del mismo nombre (ZJE.: 1097, aza. 20)
- 1976 Echeazpia, parte del edificio de la casa (ZJE.: 1651, abe. 29)
- 1977 Echeaspia, en terreno denominado (ZUA.: LNE, 997/005)¹⁰⁷
- 1983 Echeazpia, contigua a la Casa llamada (ZUA.: Ak. Lib., uzt. 14, 0436. er.)

ETXEBARRIAZPIA, -a (desagertutako soroa)

Kokapena: geltoki berri azpiko aldean egon zen.

OHARRAK: Ik. *Kamiñobarrinagusia - Zalduetxebarria*. Osagaiak: Etxebarri(a) (izen nagusia) + azpi(a) (Ik. *Agirrebeitiazpi*).

Ahozkoa: [tʃembiráspi]

- 027 “Trenbiráspi”

Idatzizkoa:

- 1833 Echebarriazpia, heredad conocida con el nombre vulgar de (BPAH.: HIP, 1097/98. mik., 836. zk., mar. 19)

ETXEONDOKO LANDA (desagertutako baratzea)

Kokapena: Aldatsa baserri aldamenean egon zen.

OHARRAK: Ik. *Aldatsa - Elexazpi*.

Idatzizkoa:

- 1879 Echeondocolanda, huerta llamada (ZJE.: 190, eka. 10)
- 1923 Echeondocolanda, huerta llamada (ZJE.: 377, ots. 21)
- 1950 Echeondocolanda, huerta denominada (ZJE.: 542, ots. 9)
- 1954 Echeondoco-landa, huerta accesoria llamada (ZJE.: 559, abu. 4)

ETXEONDOKO ORTUA, -a (belardia)

Kokapena: Urkitzazaldua azpiko lursaila da, horma batek mugatua.

OHARRAK: Ik. *Aldatsagana*.

Ahozkoa: [oʀtúe]

- 074 “Ortúe”

Idatzizkoa:

- 1865 Echeondoco hortua, heredad llamada (ZJE.: 48, ots. 22)
- 1868 Echeondocohortua, heredad destinada a huerta (ZJE.: 108, ira. 2)
- 1917 Echeondoco ortua, en la heredad (ZJE.: 344, eka. 6)
- 1926 Echeondoco ortua, huerta y choza (BFA.: OGE, AH-31)
- 1930 Echeondoco hortua, huerta y choza (BFA.: ZUA, OGE, AH-54)

107. Babesturiko lehen etxeak urtebete lehenago hasi ziren egiten: 1976/02/16: “solicitud de Lorenzo Zarate para la construcción de 24 viviendas de renta limitada en la calle de la Estación, según proyecto redactado por los arquitectos Alejandro Rodriguez y J. Antonio Renedo” 1977/07/15: “solicitud de Lorenzo Zarate de licencia para la construcción de un grupo de 36 viviendas sótanos y locales comerciales de renta limitada, Grupo 1 en terreno denominado *Echeaspia* en la calle *Aranzamendi*, según proyecto redactado por los arquitectos Alejandro Rodriguez y J. Antonio Renedo”.

- 1935 Echeondoco-ortua, huerta y choza (BFA.: ZUA, OGE, AH-86)
- 1952 Echeondocoortua (ZUA.: 1408. er., 123. or.)
- 1961 Echeondoco-ortua, trozo de huerta denominada (ZJE.: 711, urt. 5)
- 1971 Echeondoco-ortua, parcela denominada (ZJE.: 1155, uzt. 2)

FAUSTE (desagertutako ermita)

Kokapena: Mandapozueta eta bihurgunearen arteko ezkerreko landan zegoen.

OHARRAK: Metro gutxi batzuen aldeetatik *Berrizen* kokatu arren, elizaz *Zaldibarko San Andre*si zegokion. B. Lasuenen arabera, Calahorra eta La Calzadako gotzainak botatzeko eta ondasunak enkatean saltzeko agindua eman zuen 1793an. Santua *Ar-motxa baserriko* sabaitik *Okangoko San Migel* ermitara eraman zuten, zeinetatik 1963an San Migelen irudiarekin batera desagertu egin zen, lapurtuta-edo. Gertaera honetaz honako bertso hauek utzi zizkigun Ignazio Bastidak:

- | | |
|--|---|
| <ol style="list-style-type: none"> 1. San Migel egun maitagarria
ni doakizuet kantari
santu hori aritu delako
auzo hontako saildari
gure artian egin dezala
komeni hainbat mirari
urtian behin meza entzunaz
eskerrak emon berari. 2. Batu gara gaur jende ugari
San Migeleko ermita aldian
gure santu berriari
otoitz egiteko bidian
oso politak jarri dituzte
guri begira altarian
hortikan guri lagundutzeko
premiarik degunian. 3. Lehengo urte baten santurik gabe
hemen ginan danok larri
hurrengo urterako berriak
laister zituzten ekarri | <p>zeinek ordaindu izango zitun
nik ezin horri igarri
baina nire ustez linguak baino
dotoriago ziran jarri.</p> <ol style="list-style-type: none"> 4. Aurreko urte batian hemen
lehen ere obran ginan asi
gogo gutxikin genbiltzan eta
ez gendun besterik merezi
hiru santuak alkar artuta
juan egin ziran ihesi
geroztik ere hur diradenentz
ez ditugu guk ikusi. 5. Teilatu zaharra ta itogin asko
kanpailekua okertuta
lehengo santuak alde egin zuten
hemengokoek bildurtuta
orain ikusiz dana dotore
kanpo eta barru apainduta
seguru asko alde eginak
badaudela damututa. |
|--|---|

“A santue neu na personas ikusitte Samigelen. Askenengo orduen a egon san ermittan. Santo txikitxo bat, bal-baltza, illúne, beltzá-eró, brontzeskoa, ba, illúndute, antxe egon san sulo baten” (F. Garitonandia).

Ahozkoa: [fáúšte]

- 012, 013, 024 “Fáuste, San Fáusto”
- 041, 042, 074 “Sánfaustè”
- 027 “Sanpóste”

Idatzizkoa:

- 1582 Sanct fauste (BEHA.: HIL1, api. 19)¹⁰⁸

108. “es las hermitas de *sanct mjn* y *sanct Lorente* y *sanctiago* y *sanct Cristobal* y *sanct fauste* sitas en la dicha anteyglesia”.

- 1583 Sanct fauste (BEHA.: HIL1, abe. 8)¹⁰⁹
- 1586 Sanct fauste (BEHA.: HIL1, uzt. 29)¹¹⁰
- 1689 San Fausto de Aranguren (BEHA.: ORD)¹¹¹
- 1948 San Fausto, situado en el paraje denominado (IGC.: TL, ZAB, 4. mug. os., 2. or.)
- 1987 San Fausto de Aranguren (EB.: III. libk., 90. or.)
- 1991 San Fausto, en Aranguren (AZ.: 16. or.)
- 1993 Arangurenen, San Fausto (AZ.: 28. or.)
- 1996 Arangurenen, San Fausto (AZ.: 6. or.)
- 2001 San Faustokoa (HKK.: SAEB, 26. or.)

Kartografikoa:

- 1923 San Fausto (MTV)

FORJABARRI (*desagertutako etxea*)

Kokapena: Izen bereko lantegi ondoan zegoen. Bilbo etorbidea, 11.

OHARRAK: Lurreratu berri dituzten etxe eta lantegiek aldaketa ugari jasan dituzte *Al-datsa baserriko* soroetan altxatu zirenetik¹¹². Dokumentuetan *Forja* eta *Forjabarri* ize-



2004an botatako lantegiak eta etxea (1961) (ZU)

-
109. “a las hermitas de sanct miguel, sanct fauste, sanct mjn, sanct Llorente, sanctiago, Sancta marina, sanct xgbal sitas en dho pueblo”.
110. “a la hermita de s marina de Ganguren vn real y santigo de heycaga Vn real y sanct miguel y a Sanct fauste y a Sanct Martin y a sanct Llorente v y a santiago y a sanct cristobal”.
111. “se hazen las tres ledanias hordinarias de la Aszension, la primera a San Miguel de Ocango, con estacion en San Fausto de Aranguren, la segunda a San Lorenzo de Vrizar, con estacion en la hermita de San Martin, la tercera a San chistoual de Vlanzu, con estaciones en las hermitas de Santiago de Gazaga y Santa Marina de Ganguren”.
112. P. Azpitarteren esanetan, *Forja* izeneko lantegia 1908an eraiki zen, baina industria aitorpenetan 1918. urtea arte ez zaigu azaltzen.



Forjabarri (2002) (AE)

nekin nahasketak izan arren, lehenengo eraikina “Fórja etxíe” genuen, lantegi hutsa zena. Atzerago itsatsita etxebizitzak atera zituzten eta azpian Egurrolaren tailerra. Lantegiaren berritze lan garrantzitsuenak bi garaitan egin ziren: 1946-1948. urteen artean¹¹³ (erakin zaharreen) eta 1956an¹¹⁴ (*Bañerabariaren* ondokoan). *Kamiñobarri Arteagako* bidegurutzetik Ermurantz eginiko errepideari esaten zitzaion, beraz, orokorra da, ez etxe bati legokiokena. *Katuetxe, berriz*, Zaldibarko Gazte Taldekoek okupatu eta gaztetxe bihurtu ondorengo izena dugu¹¹⁵.

Ahozkoa: [fórxiè]

- 001 “Fórja etxíe”
- 027 “Fórjako etxíe”
- 013, 030, 036, 055, 069 “Fórjiè”

Idatzizkoa:

- 1928 Forja, casa... de esta feligresía (ZSAE.: BAT8/7)
- 1930 Forjabarri (ZSAE.: Matr. Lib.)
- 1932 Forjabarri, en la casa de (ZEZ.: JA10/23)

113. 1946/10/23: “Solicitud de licencia de obras de José Sampedro, en nombre y representación de Forjas de Zaldibar, S. A. para construcción de nuevo pabellón en la parte posterior de la fábrica” (ZUA.: LNE, 0966/009) - 1947/01/12: “Solicitud de Forjas de Zaldibar de Zaldibar, S. A. para ampliación de talleres” (ZUA.: LNE, 0966/010) - 1948/07/17: “Solicitud de Forjas Sampedro de Zaldibar (Forjas de Zaldibar, S. A.) para realizar movimientos de cubierta y renovación de fachada de pabellón, según proyecto del ingeniero industrial Felipe Anitua” (ZUA.: LNE, 0966/011).

114. 1956/07/05: “Expediente relativo a la solicitud de Forjas de Zaldibar, S. A. para la construcción de un pabellón industrial en los terrenos denominados *Telleria Arteaga*, según proyecto del ingeniero industrial Enrique Bustos” (ZUA.: LNE, 0966/011).

115. Gazteek eurek adierazi zitadten moduan, bertara sartu eta zikinkeria ugariren artean katu pila bat topatu zuten, bizirik zein hilda, eta lehen zirrara harengatik bururatu zitzaion izen hori jartzea.

- 1933 Forjabarri, casa de (ZSAE.: HIL4/22)
- 1938 Forjabarri, casa llamada (ZSAE.: BAT8/11)
- 1942 Forja, casa (ZSAE.: BAT8/15)
- 1943 Forja, casa (ZSAE.: BAT8/9)
- 1945 Forjabarri (ZSAE.: Matr. Lib.)
- 1946 Forjabarri, casa (ZSAE.: HIL5/9)
- 1948 Forjabarri (Matr. Lib.)
- 1948 Forja, casa (ZSAE.: BAT8/13)
- 1949 Forja, casa (ZSAE.: BAT8/4)
- 1951 Forjabarri, casa (ZSAE.: HIL5/18)
- 1952 Forjas, deslojo de la vivienda denominada de las (ZUA.: Ak. Lib., api. 5, 0432. er.)
- 1956 Forja, casa llamada (ZSAE.: BAT9/21)
- 1958 Forja, Casa (ZSAE.: HIL5/29)
- 1959 Forja, casa llamada (ZSAE.: BAT9/7)
- 1961 Forja, casa llamada (ZSAE.: BAT9/27)
- 1966 Forja, casa de la (ZSAE.: BAT9/32)
- 2002 Kamiñobarriko etxea (HKK.: HES, 32. or.)
- 2003 Katu-etxeren inguruko kontuak (ZAL.: 12. zk., 2. or.)

GELTOKIA, -a (*desagertuta*)

Kokapena: Sagarminga kale hasieran zegoen, Berrizko muga aldamenean.

OHARRAK: Ik. *Geltoki kalea*. 1887ko uztailean leian inauguratu zen eta aldaketarik handiena 1946an¹¹⁶ egin. *Urkitzako* garaiaren kasuan legez, onartezina da, nire ustez, denontzako ondarea diren eraikinok edozein aitzakiapean botatzea¹¹⁷, honi 1997ko uztailean 30ean gertatu zitzaion erara.

“Or suan gure jaidxotetxien atzian, ba, karretera générale esate akona, orduen suan andik atzetik, Estasiñora doiena, générale bai. Gure aittek-eta konteta yuen, ba, selan Eibarrera-ta ganauekiñ, irídxekiñ, selan erute ben materidxela obrarako da gure aittek, ba goixien lauretan-eró jaiki, da jute sala áurrien pareja batek altzetako pixu aundidxe erute ebela, da pareja bi ipintte otzesela Santámañera igoteko. Saldiberren erditik an Siertza-ta dauesenak, an subipetik pasau da an beti gora Santámañerá, générale iñ aurretik. Lupittetik be euan beste bat bañe Mañeriko kanterakuek ametik jute sittuan, se gure aittek aurrien iridxek selan egote sien beti, bentania selan jote otzen lo euen lekure jaiki goixien, ba, laurek inguru ixete sala ta buelta iñ ye atzera etxera” (E. Unzueta).

Abozkoa: [estásiñuè]

- 002, 012, 013, 024, 027, 030, 041, 042, 049, 058, 062, 069, 074, 075 “Estásiñuè”

116. “Expediente relativo a la solicitud de la Compañía de Ferrocarriles Vascongados para la ampliación del almacén y elevar un piso sobre el ala izquierda del edificio de la Estación de *Zaldibar*”.

117. “Orain dela urte bete, 1996ko irailaren 27an zehazki, Zaldibarko Gazte Taldeko partaideek tren geltoki zaharra okupatu zuten gaztetxe moduan erabiltzeko asmoz. Hamar hilabetetan zehar, gaztetxea hainbat gazte zaldibartarren topagune bilakatu zen, eta ahal izan zuten neurrian, gizarte indibidualista, sexista, kontsumista eta konformista honi alternatibak bilatzeari ekin zioten: itzaldiak, bideo emanaldiak eta abar antolatuz. Baina, berriz ere, sistema honek gazteriaren aurkako beste erasoaldi bat burutu zuen uztailean 30ean, goizeko 6etan eskabadora batek harri multzo bilakatu zuen gaztetxea EuskoTrenen aginduz” (ZAL.: 4. zk., 4. or.). Gazte Taldekoek eurek adierazi bezala, ekintza hau arbuizatzekeo trenbidea moztu zuten goizeko bederatzietan, eta ondorioa, bada, zenbait gaztek abenduaren 31n epailearen aurrean aurkeztu behar izan zutela. Hala ere, epaiketa ez zen egin, Eusko Trenekorik agertu ez izanagatik.



Gaztetxe izandako garaiko argazkia (1997) (ZU)

Idatzizkoa:

- 1896 Casa Estacion, en la (BEHA.: BAT, eka. 21)
- 1889 Estacion del Ferro Carril (BFA.: ZUA, Mug., ZBE, 53. mug., C-094)
- 1895 Estación, casa... del ferrocarril (ZSAE.: HIL4/9)¹¹⁸
- 1905 Estación, hasta la... del ferrocarril (BFA.: ZUA, Kon. Lib., abe. 31, C-045)
- 1906 Estación, carretera que de la (BFA.: ZUA, Ur., api. 3, C-085)
- 1912 Estación del ferrocarril en Sagarminaga (BFA.: ZUA, Kon. Lib., abe. 31, C-047)
- 1916 Estación, en la casa de la (ZSAE.: HIL4/6)
- 1929 Estación de ferrocarril (BFA.: ZUA, Mug., ZBE, 9. mug., C-094)
- 1930 Estación (ZSAE.: Matr. Lib.)
- 1937 Estación, casa de la (ZSAE.: BAT8/1)
- 1942 Estación de Zaldivar, edificio de la (ZUA.: LNE, 0996/006)
- 1943 Estación, casa de la (ZSAE.: BAT8/15)
- 1946 Estación, casa... del ferrocarril (ZSAE.: HIL4/2)
- 1956 Estación, casa llamada (ZSAE.: BAT9/1)
- 1961 Estación, casa llamada (ZSAE.: BAT9/26)
- 1963 Estación, casa llamada (ZSAE.: BAT9/2)
- 2002 Estaziñoko etxea (HKK.: HES, 30. or.)

Kartografikoa:

- 1923 Estación de Zaldivar (MTV)
- 1925 Estacion, Cº de la... de Zaldúa (BFA.: ZUA, Mug., ZAB, C-094)
- 1948 Estación de Zaldivar (IGC.: TL, ZAB, 3. or.)
- 1993 Tren geltokia / Estación (ZG.: 14. or.)

118. Datu berberak: 1902, 1927.

GU BIONA (*txaleta*)

Kokapena: Ate nagusitik sartuta, Sagarmingana kale azpiko txalet bien arteko bigarrena. *OHARRAK:* Ik. *Abigoxo*. Neotopónimo hau elkarturik idatziz gero nahasgarria izan liteke.

“Txaletak eitxe sien amen, ba, plántia beien da gero eskillarakiñ abitxasiñuek goixen está? Da Abigoxo in san planta erdi, da eskillaria olan, susen barik, ba, pixkat aldatzian, malla batzuk eta beste erdixa gañien, o sea, bata bestien gañien in barik. Rebistatik ikusitte ei eben olan. Gero ei eben anaiena, béstie, Gubióna, da Gubióna dau bata bestien gañien, améngo estíflora, estakisú?” (V. Urkidi).

Ahozkoa: [gubióna]

- 065, 066 “Gubióna”

Idatzizkoa:

- 1959 Vivienda unifamiliar (ZUA.: LNE, 0968/009)¹¹⁹
- 1963 Gu Biona, casa (ZSAE.: BAT9/24)
- 1964 Gu Biona, casa (ZSAE.: BAT9/20)
- 1966 Gu Biona, casa (ZSAE.: BAT9/1)
- 1996 Sagarmingana, Cl - Chalet Gu Biona (ZUA.: BUE, 1402. er.)
- 2003 GU BIONA (fatxadako idazkia)

INESENA, -a / ITURBEZALDUA, -a (*baserria*)

Kokapena: Bilbo-Donostia errepidearen aldamenean. Katikena, 3.

OHARRAK: Alde batean taberna zuen, “bodéga sárra” deitua. Etxe aurreko erropak garbitzeko harraska zenbait izenpean topa daiteke: *Inesekua*, *Katikena* eta *Zaldua*. Osagaiak: Iturbe (izen nagusia) + Zald(a) (izen nagusia).

Ahozkoa: [iñésená]

- 001, 013 “Ineséna”
- 010 “Inesensárra”
- 027, 074 “Iñésensárra”
- 053, 075 “Iñésená”

Idatzizkoa:

- 1665 Ynesena, en la sepultura de (BEHA.: ORD, mai. 2)
- 1690 Yturbe Zaldua, en la cassa llamada (BAHP.: NOT, JBA, 180. p. s., ots. 6)
- 17... Ynesena, casa (BFA.: ZUA, Dok. His., 3/33)
- 1704 Ynesena, Casa de (BFA.: ADM, OGE, Fog., 1. er., 233. or.)
- 1708 Zaldua Ynesena, la de (BFA.: ZUA, Men. Kon., 6/70)
- 1743 Ynezena, a la Casa de Gazagaechua y... (BFA.: ZUA, Kon. Lib., urt. 20, C-037)
- 1745 Ynezena, la de (BFA.: ADM, OGE, Fog., 2. er., 187. or.)
- 1753 Ynezena, en la sepultura de (BEHA.: HIL2, urt. 1)
- 1764 Ynesena, en la sepultura de (BEHA.: HIL2, urt. 10)¹²⁰
- 1767 Yturbe Zaldua, Casas y Caserías de (BPAH.: HIP, 1105/06. mik., 157. zk., mar. 21)

119. 1959/04/07an eginiko eskaeran ez da izenik agertzen: “Solicitud de Casilda Valmaña para la construcción de una vivienda unifamiliar próxima a la estación de F. F. según proyecto del arquitecto Esteban Julio Argarate Uria”.

120. Datu berberak: 1766, 1782.



Inesena / Iturbezaldia (2002) (AE)

- 1793 Yturbe Zaldua, en la sepultura de (BEHA.: HIL2, urr. 9)
- 1778 Ynesena, la casa y caseria de (BFA.: ZUA, Men. Kon., 6/31)
- 1779 Yturbe Zaldua, las cassas y casserias de (BPAH.: HIP, 1089/90. mik., 372. zk., uzt. 31)
- 1781 Ynesena, las casas y caserías de Zearra (BPAH.: HIP, 1090. mik., 20. zk., uzt. 23)
- 1785 Ynesena, casa y caseria de (BFA.: ZUA, Dok. His., 3 /4)
- 1796 Ynesena, Ytten la caseria de (BFA.: ADM, OGE, Fog., 5. er., 200. or.)
- 1798 Ynesene, Casa de (BFA.: ADM, OGE, Fog., 6. er., 0430)
- 1808 Ynesena, en la sepultura de (BEHA.: HIL3, mar. 5)
- 1810 Ynasena (BFA.: ZUA, Kon. Lib., aza. 1, C-039)
- 1813 Ynesena, Dmgo de Ormaechea Ynqno en la casa llamada (BFA.: ZUA, Dok. His., 4/4)
- 1845 Ynes, casa de (ESK.: 035)
- 1864 Ynecena, casería rustica titulada de (ZJE.: 16, uzt. 26)
- 1873 Ynecena (BFA.: ZUA, Ban., urr. 27, C-066)
- 1875 Ynecena (BEHA.: H. Pap., VC. Kof.)
- 1891 Ynesena, casería (ZSAE.: HIL4/15)¹²¹
- 1905 Ynecena Menor, en la casa (ZEZ.: JA4/66)
- 1906 Ynesena, la casa de (ZSAE.: BAT7/8)¹²²
- 1911 Ynesena, desde el punto (BFA.: ZUA, Kon. Lib., abe. 31, C-047)
- 1917 Ynesena, casería (ZSAE.: HIL4/4)¹²³

121. Datu berberak: 1897, 1902.

122. Datu berberak: 1907, 1910, 1913, 1916.

123. Datu berberak: 1919, 1924, 1925, 1927, 1934.

- 1918 Ynesena, casa acc. de (ZSAE.: HIL4/19)
- 1923 Yñesecoa, nueva tubería desde (BFA.: ZUA, Ak. Lib., urr. 28, C-018)
- 1926 Yñesecua, pozo de (BFA.: ZUA, Ak. Lib., mar. 14, C-018)¹²⁴
- 1930 Ynesena (ZSAE.: Matr. Lib.)
- 1932 Yñesena / Yñesena chiqui, caserío (BFA.: ADM, OGE, AH-68)¹²⁵
- 1933 Yñesecua, para el servicio del caserío de (BFA.: ZUA, Ak. Lib., urr. 22, C-020)
- 1939 Yñesenecua, C° (BFA.: ZUA, Ban., 67/78)
- 1948 Ynesena (ZSAE.: Matr. Lib.)
- 1949 Yñesena, casa (ZSAE.: BAT8/10)
- 1950 Ynesenecoa, la casa de (ZEZ.: JA11/93)
- 1952 Inesena, C° (ZUA.: 1408. er., 103. or.)
- 1953 Yñesena, casa (ZSAE.: BAT8/21)
- 1955 Yñesena, casa (ZSAE.: HIL5/14)
- 1958 Otzona, casa (ZSAE.: HIL5/8)
- 1972 Ynecena o Yturbe Zaldua, pertenecidos que fueron de la casa (ZJE.: 1296, aza. 13)
- 1980 Ynecena o Yturbe-Zaldua, edificio de la casería (ZJE.: 1985, mai. 14)
- 1981 Inesena, desplazamiento de la CN 634 frente a (ZUA.: Ak. Lib., uzt. 3, 0435. er.)
- 1982 Inesena, el caserío (COR.: I. libk., urt. 21)
- 1983 Inesena, sobre el ferrocarril entre... y Salduetxebarri (COR.: III. libk., abe. 15)
- 1985 Inesena, algunos se han estrellado contra el caserío (COR.: III. libk., ira. 11)
- 1991 Zalduinesena (AZ.: 25. or.)
- 1999 Inecca o Yturbe, casería denominada (ZJE.: 2359, uzt. 8)
- 2001 Inesena o Iturbe Zaldua, huerta pequeña contigua a la casería (ZJE.: 2627, abe. 12)
- 2002 Inesena etxea (HKK.: HES, 4. or.)

INESENOSTE (desagertutako baratzea)

Kokapena: Iturbezaldua baserriaren atzean zegoen.

OHARRAK: 1906. urtean eginiko bide berriak ezerezean utzi zuen. Osagaiak: Inesen(a) (izen nagusia) + oste¹²⁶ (izena).

Abozkoa: [iñesenóste]

- 027 “Inesenóste”

Idatzizkoa:

- 1824 Ynesenoste, heredad en el termino (BPAH.: HIP, 1095/96. mik., 557. zk., eka. 14)
- 1831 Ynesenoste, terreno de (BPAH.: HIP, 1097/98. mik., 357. zk., urt. 18)

124. “realización de un alberque en condiciones en el punto donde existe el anterior de *Yñesecua*” (ots. 7) - “la cuneta por donde pasa el agua de *Zaldigoiti* al pozo de *Yñesecua* donde queda acordado construir el lavadero” (mar. 14).

125. Datu berberak: 1930 (AH-54), 1935 (AH-86).

126. Mitxelena, K.: “En toponimia *oste* es exclusivamente occidental y aun en esa zona da la impresión de ser introducción más tardía que el común *gibel*” (AV, 143. or.).

- 1832 Ynesenoste, huerta o sitio titulado (BPAH.: HIP, 1097/98. mik., 715. zk., ira. 26)
- 1878 Ynesenoste, huerta titulada (ZJE.: 180, mai. 18)
- 1898 Yneseoste, huerta nombrada (ZJE.: 276, abc. 23)

IPINTZA (desagertutako soroa)

Kokapena: Bilbo etorbidean, Bidearte txaletaren parean.

OHARRAK: *Arjelia* eta *Casa Blanca etxeak* eraiki ziren bertan. *Urretxakoek* etxe zuria ostatu izateko asmoz egiten hasi arren, azkenean aldatu egin zen egitasmoa¹²⁷.

“Orduen Arjeliako gerrie euen, Frantziek-eta. Arjelian rebolusiñue-eró urte ban, ba... or be olako nástie, borrokak eta ebisen, etxie eskatu ebenak eta es ebenak eta olako saltzan batzuek. Gero beste bateaittik Casáblancà estotzue esan? Ba or dao. Eskumara daos, olan lau bat etxe-eró danak jarraidxen, da orrí esate otzen Arjélia, or eon sien nastiek, esta? Da... sertzuk konkretu, ba estakitt, baña an gerrie euenetik da emen be gerrie selan ebillen, ba, orraitik Arjélia esate otzen, da batzuk Arjélia oin be esango tze igual, baña ori Avenida San Andrés da” (B. Lasuen).

Abozkoa: [piñçe]

- 001, 013, 024, 068 “Arjélia”
- 027 “Píntxe”

Idatzizkoa:

- 1864 Ypinza, heredad en el término de (ZJE.: 18, uzt. 26)
- 1952 Ipinza (ZUA.: 1408. er., 142. or.)



Ipintzan eginiko etxeak (1961) (ZU)

127. 1960/09/02: “Solicitud de M^a Teresa Bilbao y Anastasio Urretxa para la adaptación en dos viviendas los locales de negocios previstos de 4 viviendas, según proyecto del arquitecto Juan M^a Uribe” (ZUA.: 0969/010).

- 1957 Ipinza, en la heredad (ZUA.: LNE, 0967/024)¹²⁸
- 1959 Ipinza, viviendas y locales de negocios en la finca (ZUA.: LNE, 0968/002)¹²⁹

*ITURBE (baserria)*¹³⁰

Kokapena: geltoki kaletik gorako bide amaieran.

OHARRAK: Jabetza Erregistroko lehen eskrituretan honako solo hauek aipatzen ditu: *Etxeaurria* (bide gaineko landak), *Etxeazpia* (bide azpikoak) eta *Goikosoloa* (Berrizko mugako *Iturbeburu* eta baserriaren arteko belardia). Osagaiak: Itur (izen arrunta) + be¹³¹ (Ik. *Agirrebeitiazpi*).

“Bekoitturritik da Itturbera estártie, sordán bidie. Beko estártie esate akon, óndiño pe bai pasau leike or Ittúrbera, Arángurendik etosenak eta ametik soiesenak bat eitte eben da, se Arángurengue pe órti, estártatik, ibiltte sien danak Espárrure ta órra, Okánittúrrire ta. Da gu be ámen beko sólu eta lándetara ortítzik, danón birie san óri, auso gustíko bidie. Ortítzik burdídxek eta gero Samígelera, gero Estasñorako euen beste birésior bat. eskillara pe ór, gure soló barrénien, eskillarak, oin be badas goitti bera bajatzeko estártara. Da órtik bidie euen, gero ba, itxi akon juteai da bertan bera, sasidxek artute, landie dau oin” (J. Bastida).

Ahozkoa: [itúr̄be]

- 002, 012, 013, 021, 039, 046, 049, 055, 058, 061, 063, 074 “Ittúrbe”
- 001, 024, 027 “Ittúrbe, Itúrbe”

Idatzizkoa:

- 1623 Yturbe, cassa solar de (BPAH.: NOT, JBG, 77. p. s., mar. 14)
- 1637 Yturbe, de hacia La cassa de (BAHP.: NOT, JBG, 82. p. s., eka. 18)
- 1641 Yturbe, sobre la casa de (BFA.: ZUA, Dok. His., 3/109)
- 1659 Yturbe, en la cassa y cass^a de (BAHP.: NOT, PRG, 139. p. s., ira. 22)
- 1680 Yturbe (BFA.: ZUA, Dok. His., 3/81)
- 1684 Yturbe, en la sepultura de (BEHA.: HIL2, urr. 5)¹³²
- 17... Yturbe, casa (BFA.: ZUA, Dok. His., 3/33)
- 1704 Yturbe, Casa de (BFA.: ADM, OGE, Fog., 1. er., 231. or.)
- 1708 Yturbe, la de (BFA.: ZUA, Men. Kon., 6/70)
- 1714 Yturbe, heredades de la casa de (BFA.: ZUA, Men. Kon, 6/68)
- 1716 Yturbe, heredad de la Casería de (BAHP.: NOT, JBG, 191. p. s., ots. 28)
- 1737 Yturbe, pertenecidos de (BEHA.: ORD, aza. 27)
- 1745 Yturbe, La casería de (BFA.: ADM, OGE, Fog., 2. er., 185. or.)
- 1765 Yturbe, en la sepultura de (BEHA.: HIL2, ots. 18)¹³³
- 1796 Yturbe, Ytten la de (BFA.: ADM, OGE, Fog., 5. er., 200. or.)
- 1798 Yturbe, Casa de (BFA.: ADM, OGE, Fog., 6. er., 428. or.)
- 1803 Yturbe, en la sepultura de (BEHA.: HIL3, mai. 22)¹³⁴

128. 1957/11/29: “*Solicitud de Francisco Espinosa para construcción de 50 viviendas entre la FFVV y la N 634 en la Avenida de San Andrés del nº 2 al 10*”.

129. 1959/02/13: “Expediente relativo a la solicitud de Anastasio Urretxa y M^a Teresa Bilbao para la construcción de una casa de seis viviendas y locales de negocios en la finca *Ipinza* según proyecto del arquitecto Juan M^a Uribe”.

130. Bat dator HPSren ETDrekin.

131. Mitxelena, K.: *AV*, 108. or.

132. Datu berberak: 1687, 1765, 1767, 1781.

133. Datu berberak: 1767, 1781.

134. Datu berberak: 1809, 1833.



Iturbe baserria (2002) (AE)

- 1807 Yturbe, por los caserios de (BFA.: ZUA, Kon. Lib., urt. 15, 41/2)
- 1810 Yturbe (BFA.: ZUA, Kon. Lib., aza. 1, C-039)
- 1813 Yturbe, A. de Vrizarbarrena Ynqno en la Casa llamada (BFA.: ZUA, Dok. His., 4/4)
- 1823 Yturbe (BPAH.: HIP, 1095/96. mik., 418. zk., uzt. 2)
- 1864 Yturbe, monte amojonado de la casería de (ZJE.: 19, abu. 13)
- 1867 Yturbe, casería rustica titulada (ZJE.: 80, ots. 9)
- 1872 Yturbe, arbolar de (ZJE.: 160, aza. 23)
- 1873 Yturbe (BFA.: ZUA, Ban., urr. 27, C-066)
- 1875 Yturbe (BEHA.: H.Pap., VC. Kof.)
- 1889 Yturbe, heredad del caserio de (BFA.: ZUA, Mug., ZBE, 41. mug., C-094)
- 1893 Yturbe, casería de (ZSAE.: HIL4/13)¹³⁵
- 1905 Yturbe, en la parte de Zaldúa (BFA.: ZUA, Ak. Lib., mai. 7, C-016)
- 1906 Yturbe, heredades del caserio (BFA.: ZUA, Ur., api. 4, C-085)
- 1913 Yturbe, casería de (ZSAE.: BAT7/21)¹³⁶
- 1925 Yturbe, casería de (ZSAE.: BAT8/19)¹³⁷
- 1929 Yturbe, pertenecidos de (BFA.: ZUA, Mug., ZBE, 5. mug., C-094)
- 1930 Yturbe, caserio (BFA.: ADM, OGE, AH-54)¹³⁸
- 1939 Yturbe, Cº (BFA.: ZUA, Ban., 67/145)
- 1945 Yturbe (ZSAE.: Matr. Lib.)
- 1948 Iturbe, desde este mojón se ve la casa de (IGC.: TL, ZAB, 3. or., 9. mug. os.)

135. Datu berberak: 1902, 1907, 1909, 1922, 1924.

136. Datu berberak: 1915, 1916, 1918, 1920.

137. Datu berberak: 1928, 1931, 1935, 1943.

138. Datu berberak: 1932 (AH-68), 1935 (AH-86)

- 1952 Iturbe, C° (ZUA.: 1408. er., 27. or.)
- 1953 Yturbe, casa (ZSAE.: HIL5/5)
- 1959 Yturbe, casa (ZSAE.: BAT9/21)¹³⁹
- 1970 Iturbe (ZUA.: BUE, 1400. er.)
- 1975 Iturbe, parcela en el barrio de (ZJE.: HIL6/10)
- 1987 Iturbe, Caseríos de Zaldibar: (EB.: III. libk., 85. or.)
- 1991 Iturbe (AZ.: 25. or.)
- 1994 Iturbe baserriko Jesus Mari Alberdi (ERAZ.: 28. zk., 10. or.)
- 2000 Iturbe, Camino (ZU.: OI, 1.4/17)
- 2001 B° Aranguren - Iturbe, Caserío (ZU.: BUE)
- 2003 Iturbe basetxeko Esteban Areitioaurtena (HKK.: AO, 21. or.)
- 2004 ITURBE (fatxadako egur batean idatzita)

Kartografikoa:

- 1925 Iturbe, Casa (BFA.: ZUA, Mug., ZAB, C-094)
- 1948 Iturbe, cam° de (IGC.: TL, ZAB, 2. or.)
- 1966 Iyurbe (BFA.: ADM, HLG, AGV-DC-1785)
- 1995 Iturbe (BFA.: 62-64)
- 2002 Iturbe (2-265) (KAT)

ITURBEBURU (belardia)

Kokapena: Iturbe baserri ostean Berrizko muga jotzen.

OHARRAK: Triangelu itxurako landatxo hau *Goikosolo* gainean dago. Osagaiak: Iturbe (izen arrunta) + buru (izena).

Ahozkoa: [ečéburuè]

- 061 “Etxéburuè”

Idatzizkoa:

- 1867 Echeburuba, huerta llamada (ZJE.: 80, ots. 9)
- 1889 Yturbe-buru (BFA.: ZUA, Mug., ZBE, 43. mug., C-094)¹⁴⁰
- 1952 Echeburu (ZUA.: 1408. er., 28. or.)

ITURRIBIDE (etxea)

Kokapena: Iturriondo etxe alboan. Bilbo etorbidea, 24.

OHARRAK: Kapellauen etxeak aipatzean, gogoan hartu behar dugu bi eraikin ezberdinez ari garela: desagerturikoa *Karmeldarren komentuko* mojen kapellauarentzat egindakoa zen eta zutik dirauen hau *Ospitale psikiatrikokoarentzat*. Azken honetan klaseak ematen zituen D. Ramón Vidalek¹⁴¹ eta azpian *Ermuko* Mendizabal familiak gozodenda izan ondoren, Jesusa Garitaonandiak ipini zuen bere janari denda. Osagaiak: Iturri (izen arrunta) + bide (izen arrunta).

139. Datu berberak: 1960, 1965, 1966.

140. “Este mojon se encuentra en la esquina inferior del viñedo del caserío de *Yturbe*”.

141. Bera izan zen, gainera, 1942/05/09an handitzeko eskaera egin zuena: “Expediente relativo a la solicitud de Ramón Vidal para la reforma de una vivienda elevando un piso al edificio de su propiedad sito junto a la carretera general, según proyecto del arquitecto Faustino Basterra” (ZUA.: LNE, 0966/003).



Iturribide etxea (2002) (AE)

Ahozkoa: [kapíllaŋen ećie]

- 001 “Kapíllaŋen etxíe, Don Ramónén etxíe”
- 013, 027, 069, 072 “Kapíllaŋen etxíe”

Idatzizkoa:

- 1947 Iturribide, pertenecido de la casa (ZJE.: 524, abu. 12)
- 2002 Iturribide etxea (HKK.: HES, 31. or.)

ITURRIONDO (*etxea*)

Kokapena: Arteagako bidegurutzean. Bilbo etorbidea, 22.

OHARRAK: Patxi Egiak eraikitako etxea. Azpiko aldean beti egon da tabernaren bat, *El Caserio* edo *Castet* aurretik, “Fáustona” edo “Tomás Estasíñona”. *Bidekurutze* izen orokorra da eta gerotxoago azalduko den moduan, harreman handiago du *Txaletarekin* etxe honekin baino. Osagaiak: Iturri (izen arrunta) + ondo (izena).

“Au san Saldibarren euenik etxeik-eta karuena, errentaik aundidxena eukena. Esate ben eguneko pesétie kósteta sala erréntie, da orduen urtietan, ori gerra aurrien, eguneko pesétie, diru asko san, da, ba, emen egote sien, or gaixoetxeko aministradorie, beténaridxue ta olako jentie bisi san, itxurie. Udan etorte sana san Markésie, iru seme-alaba eukesan, neska bi da mutil bat, sebillania san bera, oso majie, dotorie. Lelengo pisuen, ementxe parien, gure parien, egoten san a. Udan, ekarte sittuen krieria pe, bi-ero. Pixkat rárie san, gustis rárie. Pen-tzaixu neskatuek euken paralisse pasauta ero estaki ser, aparatuak eukesan anketan-da. An-tzúako errotien ollaskuek erosten situen, ollasko sati baten umiai jatekua antxe itte otzen lapíkue, fidxau es hoteleko jatekuekiñ, fidxau es” (P. Azpitarte).

Ahozkoa: [fáúston ećie]

- 001, 027 “Fáuston etxíe”
- 058 “Tomásén etxíe”



Iturriondo etxea (2002) (AE)

Idatzizkoa:

- 1927 Videcurutze, casa de (ZSAE.: BAT8/21)
- 1929 Bidecurutze, casa nueva de (ZSAE.: HIL4/32)
- 1930 Yturriondo (ZSAE.: Matr. Lib.)
- 1931 Yturriondo, la nueva casa de (ZSAE.: BAT8/14)
- 1933 Yturriondo, casa de (ZSAE.: HIL4/19)
- 1934 Yturriondobarri, la casa de (ZSAE.: BAT8/2)
- 1937 Yturriondo, en la casa de (ZEZ.: JA10/143)
- 1938 Yturriondo, casa (ZSAE.: BAT8/4)¹⁴²
- 1945 Yturriondo (ZSAE.: Matr. Lib.)
- 1947 Yturriondo, casa (ZSAE.: HIL5/22)
- 2002 Iturriondo etxea. Bidekurutze izenagaz be, ezaguna (HKK.: HES, 30. or.)
- 2003 Iturriondo eta Zubiaurre etxeetan (HKK.: AO, 14. or.)

KAMIÑOBARRINAGUSIA, -a (Untzuet) (etxea)

Kokapena: Abeletxe, 2.

OHARRAK: Ik. *Forjabarri - Lejarreta hotela*. Lehenago aipatu bezala, *Kamiñobarri Arteagatik Zaldura* luzatzen zen errepide berriari jarri zitzaion. Etxea 1941. urtean altxatu zuen Balbino Untzuetak *Zalduetxebarriko* lurretan.

Ahozkoa: [unšwetan ečie]

- 024 “Unsuetan etxie”
- 027 “Balbión etxie”

142. Datu berberak: 1939, 1941, 1942, 1946, 1948.



Kamiñobarrinagusia, arku biko etxea (1961) (ZU)

Idatzizkoa:

- 1948 Camiñobarri Grande (ZSAE.: Matr. Lib.)
- 1957 Camiñobarri-grande, casa (ZSAE.: BAT9/6)
- 1990 Unzueta (ZUA.: LNE, 1032/006)
- 2003 Unzueta etxean (HKK.: AA, 8. zk., 4. or.)

KAMIÑOKOA, -a (etxea)

Kokapena: Bilbo etorbidea, 1.

OHARRAK: Ik. *Forjabarri etxea*. Eskrituren arabera, 1917an eraikin bi ari ziren altxatzen; bata *Urretxa* jatetxea izango zena eta bestea *Kaminokoa* jarritako etxetxo berria, korta hasieran, tailerra gero. *Urretxa* azpian biltegia zegoen eta tabernako lurretik altxatzen zen ate batetik jaitz zitekeen, gero jangela egin zuten. Ondoan eraiki zen *Magarekin* bat osaturiko soroari *Kanposolo* deitzearena, Campos deitura zuen batek errentan harturiko soro honetatik datorkigu, hau da, Campos + solo > Kanposolo.

Ahozkoa: [eštánkuè]

- 001 “Kamiñobárriko etxíe, Kamiñoko etxebárrí”
- 009, 013, 025, 027, 062, 074, 075, 080 “Estánkuè”

Idatzizkoa:

- 1923 Camiñocoa, desde la casa nueva de (BFA.: ZUA, Ak. Lib., urr. 14, C-018)¹⁴³
- 1925 Camiñocoa, la casa nombrada (ZJE.: 345, mar. 24)

143. “en lo referente al saneamiento desde la casa nueva de *Camiñocoa* que se dirige por los ostes de herrero y Pachi hasta cerca de la casería de *Aldatzecoa* se encuentra no solo en malas condiciones sino también hasta bochornoso”.



Kamiñokoa, konpondu berria eta *Urretxa* jatetxea izandakoa beherago (2004) (AE)

- 1928 Estanco-Carretera, la casa de (ZEE.: JA9/125)
- 1936 Caminondo, casa de (ZSAE.: BAT8/11)
- 1942 Camino, la casa de (ZSAE.: BAT8/11)
- 1944 Camino, la casa de (ZEE.: HE9/279)
- 1945 Kamiñokua, la casa de (ZSAE.: BAT8/10)
- 1947 Kamiñokua, la casa de (ZSAE.: BAT8/9)
- 1948 Taberna bidebarri (ZSAE.: Matr. Lib.)
- 1949 Estanco, permiso para colocar un rotulo (ZUA.: Ak. Lib., 0432. er., aza. 19)
- 1951 Camiño-coa, Casa (ZJE.: 345, mai. 17)
- 1954 Caminocoa, almacén de la casa (ZJE.: 558, uzt. 26)
- 1957 Estanco, en la casa (ZSAE.: BAT9/4)
- 1955 Estanco, planta baja de la casa denominada (ZUA.: Ak. Lib., abe. 17, 0432. er.)¹⁴⁴
- 1965 Estanco, bar-... obras de embellecimiento (ZUA.: LNE, 0974/005)
- 1995 Urretxak ugazaba aldatuko du (ERAZ.: 93. zk., 9. or.)¹⁴⁵
- 1999 Caminocoa, casa denominada (ZJE.: 2370, ira. 16)
- 2000 Caminocoa, parte oriental de la casa (ZJE.: 2621, urr. 31)¹⁴⁶
- 2002 Kamiñokoa etxea (HKK.: HES, 12. or.)
- 2003 Kamiñokua, Iturriondo eta Zubiaurre etxeetan (HKK.: AO, 14. or.)
- 2003 KAMINOKOA (fatxadan idatzita)

144. "Pedro Garitaonandia interesa autorización para la apertura de un almacén de piensos en la planta baja de la casa denominada *Estanco*".

145. "Duela 40 urte Felisaren gurasoak, Anastasio eta Maria tabernaren kargu egin ziren: lehen estankoa zen eta lo egiteko tokia ere izaten zuten bertara etortzen ziren gidari eta langileentzat [...] bere berezitasunak *Estankoko fritoa*k, legatza saltsan eta bakailoa" (9. or.).

146. "Almacén, antes cuadra, de la tejabana adosada a la parte oriental de la casa *Caminocoa*".

KAMIÑOONDO (*desagertutako orubea*)

Kokapena: San Andres etorbidea, 2-10.

OHARRAK: Ik. *Ipintza - Bideburua*. 1957an *Zalduetxebarri*, *Zearra* eta *Zearraetxetxoren Ipintza*, *Sagastibarri* eta *Bideburu soroen* atalak uztartuta sortu zuten etxeak eraikitzeke orube hau. “Arjélia” eta trenbide aldeko malda hartuko lituzke, “Arjéliapiè”, hain zuzen ere.

Abozkoa: [kamiñoóndo]

- 027 “Kamiñoóndo”
- 078 “Arjéliapiè”

Idatzizkoa:

- 1957 Camino-ondo, terreno solar edificable conocido como (ZJE.: 606, aza. 21)
- 1961 Camino-ondo, en el solar de su propiedad denominado (ZUA.: LNE, 0969/015)

KARMELDARREN KOMENTUA, *-a*¹⁴⁷ (*desagertua*)

Kokapena: Arteagaetxebarri ostatua bota ondoren eginikoa.

OHARRAK: Ik. *Arteagaetxebarria*. Berrizko *Antsoaga baserri* gainean amaitzen ari diren komentua *Karmeldarren* hirugarrena izango da inguru hauetan. Bigarrena leku berean egon zen, baina eraikinaren egiturari arrakalak-eta aurkitu ondoren, bota egin zuten orain dela pare bat urte. Zaharrena *Zaldibarkoa* genuen, baina 1963ko irailaren 23ko uriolek sekulako kalteak eragin zizkioten eta horrexegatik erabaki zen hara gora eramatea. *Arteagakoak* hormek inguraturiko ortuez gain, Karmen Ama Birjinaren kapera, mojen kaperauaren etxea eta ostatua zituen 1925ean inauguratu zenean.

“Solue euken arek andidxe an, atzien, ba, estai semat eongo san an, da orrek eitte ben urtien, auso batek erute otzen ara solorako satza, urte baten tokauko akon Gásai, bestien Goierri, bestien Uxarreta-ta, bakotzak burdi bete satz ortureko, da emote oskuen afaidxe, ba, orduko montxorra san baba suridzek eta makillaue, ta ondo e! Elixien onduen euen komédorra, da gero, ba, altzeta siñenien eskapularidxo pillo bat aspidxen, da etxera. Ba, aixe afaidxe ittearren be gu gastie(k) posik, neri tokau atanian jutie, ba, posik, artu burdidxe, us-tute sea, ta gero afaitten ara. Gure es ebana iguel etzan jungo, borondates san baña, baña danak, satza burkarie erute bana, danak gero afaitten, etxe bakotxetik bat, da gero junteuko giñen, amar, amabi, amabost-eró” (M. A. Areitioaurtena).

Abozkoa: [kařméliřeř koméřtuè]

- 001, 049, 072 “Karmélitten koméřtuè”
- 039, 058, 069 “Konbéřtuè”
- 024 “Konbéřtuà”

Idatzizkoa:

- 1925 Nuevo Convento de religiosas Carmelitas (ZJE.: 411, abu. 6)
- 1926 Nuevo Convento de Monjas (BFA.: ZUA, Ak. Lib., mai. 30, C-018)
- 1952 Convento de las Carmelitas Descalzas (ZUA.: 1408. er., 256. or.)
- 1954 Convento de las M.M.Carmelitas (ZSAE.: HIL5/8)¹⁴⁸

147. “*Olea* Hotela edota Frontoiko Fonda izenekaz ezagutzen zenez baliatuz, moja etxea egin zan eta hone-ri atxekita, eliza eta bikari-etxeak jaso ziran 1925. urtearen inguruan” (HKK.: HES, 30. or.).

148. Datu berberak: 1955, 1957.



Karmeldarren komentua (1930) (IAT)

- 1956 Casa de las Monjas, puntos de luz entre Becoeche y... (ZUA.: Ak. Lib., ots. 25, 0432. er.)
- 1963 Nuevo Convento, donativo para obras del (ZUA.: LNE, 1042/003)
- 1967 Convento de Las Carmelitas, derribo del (ZUA.: LNE, 0976/001)¹⁴⁹
- 1967 Convento Viejo / Nuevo Convento (ZUA.: Ak. Lib., 0433. er.)¹⁵⁰
- 1991 Convento de las Madres Carmelitas (AZ.: 15. or.)

Kartografikoa:

- 1925 Convento (BFA.: ZUA, Mug, ZAB, C-094)

KATIKENA, -a (etxea)

Kokapena: Izen bereko kalean, 4. zenbakia.

OHARRAK: Ik. *Katikena zeharkalea - Iturbezaldua - Elexondo*. Leku-izena *Katika baserriarekin* harremanetan egoteagatik, kasu honetan ere herskari ahoskabea nagusitzen da [k], zalantza barik.

Ahozkoa: [katikenà]

- 001 “Gatikéna, Katikenà”
- 002, 009, 011, 012, 013, 027, 030, 053, 067, 074, 075, 080 “Katikenà”

149. “Expediente sobre solicitud de Fco Zurikarai, en representación de la Cooperativa San Andrés, de licencia para la construcción de 80 viviendas protegidas en la calle *Artia*, en donde se ubica el Convento de las Carmelitas, según proyecto redactado por los arquitectos Carlos Goiarrola y J. Luis García”.

150. Akta ezberdinak ditugu: Berrizkoa (Apirilak 12: “Se autoriza a las R.M.Carmelitas para realizar el saneamiento y la toma de agua para el nuevo convento”) - Zaldibarkoa (Urriak 16: “Autorizar el derribo del Convento Viejo de las Carmelitas Descalzas”) - Urriak 31: “dejar pendiente el derribo hasta ver el informe del arquitecto”) - Azaroak 15: “Autorizar el derribo del antiguo convento”).



Katikena iturria (2002) (AE)

Idatzizkoa:

- 1864 Catiquena, heredad de la casería (ZJE.: 16, uzt. 7)
- 1891 Catiquena, la casa de (BEHA.: BAT, mar. 3)
- 1894 Catiquena, la casa de (BEHA.: BAT, api. 4)
- 1899 Catiquena, casería de (ZSAE.: HIL4/15)¹⁵¹
- 1905 Catiquena, casa de (ZSAE.: BAT7/9)
- 1907 Catiquena Goycoa, en la casa (ZEZ.: HE5/4)
- 1911 Catiquena, patio entre las casas Ynecena... (BFA.: ZUA, Kon. Lib., abu. 31, C-047)
- 1918 Catiquena, casería de (ZSAE.: BAT7/19)
- 1919 Catiquena, casa de (ZSAE.: BAT7/14)
- 1921 Catiquena, casería mayor de (ZSAE.: HIL4/15)
- 1922 Catikena, Caserío (BFA.: ADM, OGE, AH-07)
- 1922 Catiquenazarra, casería de (ZSAE.: HIL4/1)
- 1923 Catiquena, casa de (ZSAE.: BAT7/9)
- 1930 Catiquena (ZSAE.: Matr. Lib.)
- 1932 Catiquena, casería de (ZSAE.: BAT8/15)
- 1934 Catiquena, en su habitación de (BFA.: ZUA, Ak. Lib., urt. 21, C-020)¹⁵²
- 1944 Catiquena, casería de (ZSAE.: BAT8/19)¹⁵³
- 1945 Catiquena (ZSAE.: Matr. Lib.)
- 1950 Catiquena, casa (ZSAE.: HIL5/8)
- 1952 Elizaondo (Catiquena) (ZUA.: 1408. er., 154. or.)

151. Datu berberak: 1904, 1909, 1912, 1914, 1935, 1943.

152. "Damian de Arteaga: permiso para instalar en su habitación de *Catiquena* una fuente para su servicio domestico".

153. Datu berberak: 1946, 1948.

- 1952 Katiquena, reparación interior de la casa denominada (ZUA.: LNE, 0966/033)
- 1956 Catiquena, casa (ZSAE.: BAT9/22)
- 1957 Katiquena, casa (ZSAE.: HIL5/15)
- 1958 Catiquena, casa (ZSAE.: HIL5/4)
- 1959 Catiquena, en los bajos de la Casa (ZUA.: Ak. Lib., ots. 12, 0433. er.)¹⁵⁴
- 1974 Gatikena, Lavadero de (ZJE.: 1165, abe. 28)
- 1991 Gatikena (AZ.: 25. or.)
- 2000 Gatika, Lavadero de (ZU.: OI, 1.1/3)¹⁵⁵
- 2002 Gatikena etxea / Elizondo Dorretxua (HKK.: HES, 7. or.)
- 2004 Gatikena (fatxadako egur batean idatzita)

LANDABARRIA, -a (belardia)

Kokapena: Iturbe baserrirako bidean trenbideko langa osteko landa eta pabiloia.

"Trenbidiek ebai artien, ori ni be es nas akordetan da nire ama bes, beren aittittek ero bisa-buelue sanien-eró iń ei san ónek trenbidok. Da ordurartien iá san au or beetik, au etxaurriau, ori intxaurpidxoi, au dan au. Gañekaldie es, e! Len danien san ormie, da órrek órmok Urtukuok-eta erun sittuen obrie itteko, Urtukuok-eta beko ormie, se ori beko satidxoi Urtukue da, or baserri aundikue. Geu pe bai e! Geurien be orrańoko, serańoko, artie badau ba, or, kantoien, arexeańoko geurie be bai, ormie san da or san ránplana. Orras ranpla orras Idoia be akordauko da esta? Or sulue euena? Amen beien, ortxe trenbidan trabesak-eta kanbidxau-ta erriel barridxek in bier sittuenien, agosto baten, ori bete ein genduen. Eurek esa oskuen, eskonbruo bota ta eurek enkargau sien, bueno, guk pagau in gentzen, esta? Bańe ori, markau eitteko da será ipintteko. Ostantzien eskonbru bota eskeró, sertu ingo sala, ranplan ingo bala, da ormie itteko, da gero ser bati erai geutzen, kontratista bati erain geutzen ori ormiói. Semat urte ixengo da? Amar bat. Agustuen etorriko die beratzi ero amar" (C. Areitioaurtena).

410. Bat dator HPSko ETDrekin.

411. 1941/10/04: "Expediente relativo a la solicitud de Félix Areitioaurtena para la reconstrucción del case-ro denominado *Ziartxa*, según proyecto del arquitecto Faustino de Basterra" (ZUA.: LNE, 0966/002).



Zearza baserria (2002) (AE)

“Dana erre san au. Nik euko nittuen hamalau-hamabost bat urte, geidxau be iguak, ama-sortzi urte. Eberdiko amaiketardidkek inguruen san ori. Orduen irébatan juete san, ba! Da aitte san Santámañèsárren, da estaki sein be juakola arátxe, etxie erretan dauela t dana bertan bera. Orduen be iños esa oskun guri, e! entzu ebenien jausi in sala. Ni pentzete ot kablen batetik ingo sala, neuk pentzau e! Baña dana be *enségida* jausi san, dana egurre da etxé sárta, garbi esanda, Arná, ori jausten da, ba? Ba ónek batera in samarreku(e)k isengo sien, *asieske* etaa kontuek! Gañera akordeta nas, trena be geldittu in san órtxe. Gero ortxe, Úrtuko etxien artu giñusan, gure aitte ta Úrtuko gisona be lagun andidkek sien e! Alkarri, buenooo!” (C. Areitioaurtena).

Ahozkoa: [sířca]

- 004, 007, 008, 009, 018, 019, 020, 025, 036, 038, 045, 046, 067, 075, 078, 080 “Siértza”

Idatzizkoa:

- 1623 Çearça, cassa cass^a y perthenecidos de (BPAH.: NOT, JBG, 77. p. s., abu. 31)
- 1628 Çearça, las cassas y casseries de (BPAH.: NOT, JBG., 79. p. s., aza. 1)
- 1631 Cearca, las cassas y cass^a de... y Vmendia (BFA.: ZUA, Men. Kon., 6/44)
- 1633 Cearça, en la sepultura de (BEHA.: HIL1, urr. 7)
- 1635 Zearza, al lado de la cassa de (BEHA.: ORD)
- 1638 Çearça, heredad de junto a (BPAH.: NOT, JBG, 79. p. s., ira. 9)
- 1637 Cearza, en la sepultura de (BEHA.: HIL1, urr. 8)
- 1641 Cearza, en la sepultura de (BEHA.: HIL1, aza. 1)
- 1659 Cearca, por las mejoras de veynte duc^o (BPAH.: NOT, PRG, 139. p. s., mar. 13)
- 1661 Zearça, en la sepultura de (BEHA.: HIL1, utr. 16)
- 1676 Zearça, en la heredad de (BPAH.: NOT, DL, 156. zk., mai. 1)
- 1679 Cearza, en la sepultura de (BEHA.: HIL2, aza. 23)

- 1687 Cearza, en la sepultura de (BEHA.: HIL2, abe. 26)
- 1700 Cearza, casería (BFA.: ZUA, Dok. His., 3/33)
- 1704 Cearza, Casa de (BFA.: ADM, OGE, Fog., 1. er., 232. or.)
- 1732 Cearza, las Casas Caserías y pertenecidos de (BPAH.: HIP, 1105/06. mik., 2124. zk., abu. 30)
- 1740 Zearza, dueño de la casa de (BEHA.: ORD, mar. 21)
- 1748 Ziarza, la casa casería y pertenecidos de (BPAH.: HIP, 1105/06. mik., 215. zk., mar. 21)
- 1757 Cearza, en la sepultura de (BEHA.: HIL2, abe. 17)⁴¹²
- 1761 Cearza, hipotecando dhos fiadores la de (BPAH.: HIP, 1105/06. mik., 952. zk., eka. 15)
- 1768 Ziarza, en la sepultura de (BEHA.: HIL2, abu. 31)
- 1772 Cearza, casa y casseria de (BPAH.: HIP, 1089. mik., 330. zk., mai. 11)
- 1792 Cearza, la Cassa y Casseria y pertenecidos de (BPAH.: HIP, 1090/91. mik., 203. zk., urt. 7)
- 1793 Ciarza, en la sepultura de (BEHA.: HIL2, abu. 2)
- 1796 Cearza, Ytten la nombrada (BFA.: ADM, OGE, Fog., 5. er., 199. or.)
- 1796 Zearza, su casa y casería de (BPAH.: HIP, 1092. mik., 53. zk., ots. 6)
- 1798 Cearza, Casa de (BFA.: ADM, OGE, Fog., 6. er., 429. or.)
- 1804 Ciarza, reponer el Camino desde la casería de (BFA.: ZUA, Kon. Lib., ots. 13, 41/2)
- 1805 Ciarza, en la sepultura de (BEHA.: HIL3, ots. 4)⁴¹³
- 1808 Cearza, por las caserías de (BFA.: ZUA, Kon. Lib., ots. 15, 41/2)
- 1810 Cearza (BFA.: ZUA, Kon. Lib., aza. 1, C-039)
- 1812 Cearza, montes de la casería de (BPAH.: HIP, 1093/94. mik., 451. zk., aza. 12)
- 1813 Dmgo de Ciarza dueño de la Casa de su apellido (BFA.: ZUA, Dok. His., 4/4)
- 1864 Cearza, camino de Cearra a... (ZJE.: 17, uzt. 26)
- 1866 Ciarza, camino de... al Calvario (ZJE.: 71, eka. 4)
- 1870 Cearza, casería rústica titulada (ZJE.: 139, ira. 19)
- 1875 Cearza (BEHA.: H. Pap., VC. Kof.)
- 1881 Cierzecua, con el de (ZJE.: 202, uzt. 30)
- 1891 Cearza, casería de (ZSAE.: HIL4/19)⁴¹⁴
- 1898 Cearza, en la casería de (BEHA.: BAT, abe. 14)⁴¹⁵
- 1905 Cearza, casería de (ZSAE.: BAT7/5)⁴¹⁶
- 1914 Siertza, en la casería (ZEZ.: HE5/86)
- 1922 Cearza, Caserío (BFA.: ADM, OGE, AH-07)⁴¹⁷
- 1926 Cearza, casería de (ZSAE.: BAT8/26)
- 1930 Ciarza (ZSAE.: ML)
- 1932 Cierza, caserío (BFA.: ADM, OGE, AH-68)⁴¹⁸

412. Datu berberak: 1769, 1785, 1787, 1791.

413. Datu berberak: 1817, 1818.

414. Datu berberak: 1903, 1906, 1909.

415. Datu berberak: 1900, 1902.

416. Datu berberak: 1907, 1910, 1913, 1920, 1923.

417. Datu berberak: 1930 (AH-54).

418. Datu berberak: 1935 (AH-86).

- 1934 Ciarza, casería de (ZSAE.: BAT8/28)
- 1935 Ziarza, raciones por arreglo de carreteras (BFA.: ZUA, Kon. Lib., ira. 20, C-055)
- 1936 Ciarza, casería de (ZSAE.: HIL4/4)
- 1939 Cierza, C° (BFA.: ZUA, Ban., 67/14)
- 1941 Ziartxa, reconstrucción del caserío denominado (ZUA.: LNE, 0966/002)
- 1945 Cierza, casería de (ZSAE.: HIL4/26)
- 1948 Ziartzta, casería de (ZSAE.: BAT8/22)
- 1964 Siertzta, caserío (ZSAE.: BAT9/7)⁴¹⁹
- 1975 Siertxa, caserío (COR.: II. libk., abuz. 14)⁴²⁰
- 1979 Cearza, una nueva industria en el terreno de... y Aritzondo (COR.: II. libk., abu. 3)
- 1991 Barrio de Goiherri - Zeartzta (AZ.: 25. or.)
- 1996 B° Goierrri - Ziartzta, Caserío (ZUA.: BUE, 1405. er.)
- 2001 B° Goierrri - Ziartzta, Caserío (ZU.: BUE)

Kartografikoa:

- 1885 Cierza (BFA.: ADM, HLG, AGK-DC-0843)
- 1993 Ziortza (ZG.: 14. or.)
- 1995 Zertzta (BFA.: 62-64)
- 1996 Zeartzta (ZG.: 12. or.)
- 1999 Zeartzta (ZG.: 12. or.)
- 2001 Zeartzta (ZG.: 18. or.)

ZEARTZABIL (*basoa*)

Kokapena: Astueta eta Arkatxaren arteko basoak.

OHARRAK: Ik. *Zeartzta*. Nahasteak dira nagusi, ahozkoan nahiz idatzizkoan. Agian, leku-izen biren aurrean egon gitezke: *Zeartzabide* eta *Zeartzabil*, baina ezin izan dut berretsi nire hipotesia; hori bai, K. Mitxelenaren adiera kontuan harturik, argi dago *-bide* eta *-bil* kontrajarriak direna. Osagaiak: Z(i)artzta (izen nagusia) + *-bil*⁴²¹.

Ahozkoa: [síér̥cabajl]

- 008 “Siertzabálle”
- 007 “Siertzabail”
- 018 “Siarsábil”

Idatzizkoa:

- 1810 Cearzabil / Zearzabil, en el termino de (BFA.: ZUA, Kon. Lib., aza. 19, C-039)
- 1864 Ciarzavide, monte en el termino de (ZJE.: 43, aza. 15)
- 1866 Ciarzabil, monte nombrado (ZJE.: 76, urr. 15)
- 1870 Ciarzabal, monte llamado (ZJE.: 140, ira. 26)

419. Datu berberak: 1966, 1968.

420. “Descarriló el pasado martes a la altura del caserío *Siertzta* cerca del tunel de Mallabia yendo por fuera de la vía y sin volcar uno de los vagones a lo largo de unos cien metros (no hubo heridos)”.

421. Mitxelena, K.: “Aparece en una serie de compuestos (p. ej. *Gurpil*, *Luharbil*, *barrabil*, Uhlenbeck RIEV IV, 114) con idea de redondez (v. *biribil*) o reunión (cf. *bildu* «reunido, reogido») (AV, 75. or.).

- 1933 Ciarzalde, monte en el termino de (ZJE.: 437, mai. 26)
- 1938 Ciarzabil (BFA.: ZUA, Zin. Ait., aza. 25, C-093)
- 1938 Ciarzabide (BFA.: ZUA, Zin. Ait., abe. 5, C-093)
- 1952 Ciarzabil (ZUA.: 1408. er., 50. or.)
- 1956 Ciarzabil (DNB.: Zin. Ait., 599)
- 1999 Ciarbide, monte en el termino de (ZJE.: 2359, aza. 15)

ZEARTZABILALDAPA (*basoa*)

Kokapena: Astueta jotzen, ekialdetik.

OHARRAK: Ik. *Zeartzabil*. Ez dituzte atalak bereizten. Osagaiak: Zeartzabil (izen nagusia) + aldapa (izen arrunta).

Ahozkoa: [síéřcabajil]

- 008 “Siertzabálle”
- 007 “Siertzabail”
- 018 “Siorsábil”

Idatzizkoa:

- 1864 Cearzavilaldapa, monte en el término de (ZJE.: 14, mai. 31)
- 1938 Ciarzabal-aldapa (BFA.: ZUA, Zin. Ait., abe. 21, C-093)
- 1956 Ciarzabal-aldape (DNB.: Zin. Ait., 489)

ZEARTZABILOSTE (*basoa*)

Kokapena: Ulantzuganetik Zuloetaerrekarantz.

OHARRAK: Ik. *Zeartzabil*. Aurrekoan legez, ez dut ahozkorik jaso. Osagaiak: Zeartzabil (izen nagusia) + oste (Ik. *Arrigorrietaostea*).

Idatzizkoa:

- 17... Ciarzabiloste, monttes en los terminos de (ZUA.: EHSD, 1319/02)
- 1827 Cearzaviloste, dueño del monte (BPAH.: HIP, 1096. mik., 519. zk., aza. 19)
- 1828 Ciarzabiloste, castañal en (BPAH.: HIP, 1096. mik., 627. zk., urt. 16)
- 1829 Ciarzabideoste, el monte (BPAH.: HIP, 1096/97. mik., 214. zk., api. 8)
- 1886 Ciarzabalostia, monte llamado (ZJE.: 224, abu. 12)
- 1938 Ciarabil-ostia (BFA.: ZUA, Zin. Ait., abe. 31, C-093)
- 1952 Ciarzabil-ostia (ZUA.: 1408. er., 110. or.)

ZEARTZABURU (*belardia*)

Kokapena: Zeartza baserriko atzeko lursail baten izena.

OHARRAK: Ik. *Zeartzaburu*. *Zeartzaosterekin* nahastu egin liteke.

Ahozkoa: [síéřcabúru]

- 020 “Siértzako etxóstië”

Idatzizkoa:

- 1623 Çearçaburu, mançano q esta en la heredad de (BPAH.: NOT, JBG, 77. p. s., mar. 7)
- 1695 Ciarzaburu, en la heredad nombrada (BEHA.: ORD, abu. 4)

- 1794 Zearzaburu, heredad nombrada (BPAH.: HIP, 1091. mik., 164. zk., ots. 6)
- 1796 Ciarza Vuru, heredad llamada (BEHA.: ORD, ira. 23)
- 1798 Ciarza vuru / buru, heredad nombrada (BPAH.: HIP, 1092. mik., 101. zk., mar. 16)
- 1830 Cearzaburu, heredad de (BPAH.: HIP, 1097/98. mik., 208. zk., mar. 16)
- 1839 Cearzaburu, hipotecando la heredad titulada (BPAH.: HIP, 1098. mik., 47. zk., eka. 26)
- 1866 Ciarzaburu, heredad en el término de (ZJE.: 71, eka. 4)
- 1880 Cerazaburu, heredad de (BEHA.: H. Pap.,
- 1881 Ciarzaburu, heredad nombrada (ZJE.: 202, uzt. 30)
- 1952 Ciarzaburu (ZUA.: 1408. er., 173. or.)

ZEARTZAOSTE (*aurkintza*)

Kokapena: Zeartza baserriko atzeko ingurua.

OHARRAK: Ik. *Zeartzaburu*. Hau orokorra da aurrekoa baino eta baserri osteko aldeari dagokio.

Idatzizkoa:

- 1762 Zearzaoste, en el termino de (BFA.: ZUA, Dok. His., urt. 10, 41/1)
- 1922 Cierzooste, Monte (BFA.: ADM, OGE, AH-07)⁴²²
- 1930 Cierzaoste, monte (BFA.: ADM, OGE, AH-54)⁴²³
- 1932 Cierzaoste / Siertzaoste, en las inmediateciones de (BFA.: ZUA, Kon. Lib., urt. 20, C-053)
- 1940 Cierzaoste, monte (BFA.: ZUA, Ban., 67/64)

ZELETA⁴²⁴ (*baserria*)⁴²⁵

Kokapena: Iberdueroko zentrala jotzen dagoen baserria.

OHARRAK: Normatibizaturiko forma XVII. mendetik datorkigu eta ahoz ez da besterik. Osagaiak: Zel(ai)⁴²⁶ (izen arrunta) + -eta (Ik. *Aldaieta*).

Ahozkoa: [séleta]

- 003, 004, 005, 006, 013, 016, 018, 023, 028, 030, 033, 034, 035, 039, 045, 056, 060, 067, 075, 076, 077 "Séleta"

Idatzizkoa:

- 1619 Celaetta, en la sepultura dela su cassa de (BEHA.: HIL1, uzt. 29)
- 1629 Çelaetta, en la sepultura desta mi cassa de (BPAH.: NOT, JBG, 79. p. s., ira. 12)
- 1636 Celaetta, en la sepultura dela su cassa de (BEHA.: HIL1, mar. 12)
- 1637 Zelaetta, en lami sepultura desta cassa de (BPAH.: NOT, JBG., 82. p. s., mar. 8)

422. Datu berberak: 1926 (AH-31).

423. Datu berberak: 1932 (AH-68), 1935 (AH-86).

424. J. Kerexetak *Elorrikoa* baino ez du aipatzen.

425. Bat dator HPSko ETDrekin.

426. Mitxelena, K.: *AV*, 165. or.

- 1638 Çelaeta, sobre la cassa y cass^a de (BPAH.: NOT, JBG, 83. zk., uzt. 21)
- 1676 Zeleta, en la sepultura de (BEHA.: HIL1, abu. 15)
- 1679 Zeleta, en la sepultura de (BEHA.: HIL2, aza. 20)
- 1685 Zelaeta, en la sepultura de (BEHA.: HIL2, abe. 24)
- 1699 Zela Eta, fielaalgo a sus cassas llamadas (BFA.: ZUA, Kon. Lib., urt. 1, 38/1)
- 17... Zelaeta, caseria (BFA.: ZUA, Dok. His., 3/33)
- 1702 Zelaeta, en la sepultura de (BEHA.: HIL2, mai. 20)
- 1704 Zelaieta, Casa de (BFA.: ADM, OGE, Fog., 1. er., 232. or.)
- 1708 Zelaeta, en la sepultura de (BEHA.: HIL2, urr. 13)
- 1745 Zelaeta, la de (BFA.: ADM, OGE, Fog., 2. er., 186. or.)
- 1748 Zeleta, para su caseria de (BFA.: ZUA, Kon. Lib., urt. 14, C-037)
- 1752 Zeleta, pegante a la heredad de (BFA.: ZUA, Kon. Lib., urt. 9, C-037)
- 1757 Celaeta, en la sepultura de (BEHA.: HIL2, urt. 6)
- 1760 Zeleta, en la sepultura de (BEHA.: HIL2, ots. 6)⁴²⁷
- 1762 Zelaeta, en el termino de (BFA.: ZUA, Kon. Lib., urt. 10, 41/1)
- 1775 Zelaeta, en el termino de (BFA.: BFA.: ZUA, Kon. Lib., urt. 1, 41/1)
- 1777 Celeta, en la sepultura de (BEHA.: HIL2, ira. 14)
- 1783 Celeta, en la sepultura de (BEHA.: HIL2, abu. 13)
- 1789 Celeta, otro terreno junto a (BFA.: ZUA, Men. Kon., 6/35)
- 1791 Celayetta, partte hacia lavajera dela casa de (BFA.: ZUA, Kon. Lib., ots. 13, 41/2)
- 1792 Celetta, dha heredad de (ZUA.: LNE, 1319/002)
- 1792 Celayeta, sobre el camino de la Casa de (BPAH.: HIP, 1090/91. mik., 326. zk., aza. 29)
- 1789 Çalaieta, heredad proxima a (BPAH.: HIP, 1090. mik., 371. zk., mai. 15)
- 1796 Zelayetta, Ytten la nombrada (BFA.: ADM, OGE, Fog., 5. er., 198. or.)
- 1798 Zelaietta, Casa de (BFA.: ADM, OGE, Fog., 6. er., 430 . or.)
- 1802 Zeleeta, en la sepultura de (BEHA.: HIL3, abu. 14)
- 1805 Celeta, terrenos de la caseria de(BFA.: ZUA, Kon. Lib., mar. 16, 41/2)
- 1809 Celeta, en la sepultura de (BEHA.: HIL3, uzt. 16)⁴²⁸
- 1810 Celayeta (BFA.: ZUA, Kon. Lib., aza. 1, C-039)
- 1813 Celeta, Jph de Zalduegui Ynqno en la Casa llamada (BFA.: ZUA, Dok. His., 4/4)
- 1845 Celeta (ESK.: 035)
- 1854 Celeta, hasta el caserío de (BFA.: ADM, HLG, AT-0306/06)
- 1856 Celeta / Celayeta / Zeleta, Zalduechebarria con... (ESK.: 036)
- 1863 Celeta, casería rústica sin numeracion titulada de (DJE.: 116, eka. 8)
- 1864 Celeta, monte de la casería (ZJE.: 43, aza. 15)
- 1866 Celayeta, monte de la casería (ZJE.: 66, mar. 15)
- 1875 Celeta (BEHA.: H. Pap., VC. Kof.)
- 1881 Celeta, arbolar de (ESK.: 020)
- 1885 Celeta, casería llamada de (ZJE.: 210, api. 14)
- 1890 Celeta, en la caseria de (ZEE.: HE2/56)
- 1895 Celeta, en la casería de (BEHA.: BAT, ira. 1)⁴²⁹

427. Datu berberak: 1766, 1769, 1773.

428. Datu berberak: 1830, 1831, 1832.

429. Datu berberak: 1890, 1897, 1901, 1904.



Zeleta baserria (2002) (AE)

- 1898 Celeta, casería de (ZSAE.: HIL4/6)⁴³⁰
- 1906 Celeta, casería de (ZSAE.: BAT7/10)⁴³¹
- 1909 Celeta, en la casería llamada (ZEZ.: HE5/29)
- 1920 Seleta, casería de (ZSAE.: BAT7/31)
- 1921 Zeleta, casería de (ZSAE.: HIL4/2)
- 1922 Celeta, Caserío (BFA.: ADM, OGE, AH-07)⁴³²
- 1924 Celeta, troncos en las inmediaciones del caserío (BFA.: ZUA, Men. Kon., abu. 31, C-018)
- 1927 Zeleta, casería de (ZSAE.: HIL4/8)
- 1930 Celeta (ZSAE.: ML)
- 1933 Celeta, casería de (ZSAE.: BAT8)
- 1935 Zeleta, raciones por arreglo de carreteras (BFA.: ZUA, Kon. Lib., ira. 20, C-055)
- 1939 Celeta, C° (BFA.: ZUA, Ban., 67/178)
- 1945 Zeleta, casería de (ZSAE.: BAT8/6)
- 1948 Celeta (ZSAE.: ML)
- 1962 Celeta, caserío (ZSAE.: HIL5/15)
- 1966 Zeleta, caserío (ZSAE.: HIL6/9)
- 1971 Zeleta, caserío (ZSAE.: HIL6/27)
- 1982 Goiherri (Zeleta), hasta el alto de (COR.: I. libk., urt. 31)
- 1991 Barrio de Goiherri - Zelaieta (AZ.: 25. or.)
- 2003 Zelaieta basetxean (HKK.: AA, 10. zk., 15. or.)
- 2004 ZELAIETA (fatxadako egur batean)

430. Datu berberak: 1890, 1900, 1907, 1917.

431. Datu berberak: 1908, 1912, 1914, 1916, 1919.

432. Datu berberak: 1926 (AH-31), 1930 (AH-54), 1932 (AH-68), 1935 (AH-86).

Kartografikoa:

- 1958 Celetas (BFA.: ADM, HLG, AGV-DC 1835)
- 1995 Zelaieta (BFA.: 62-64)
- 2001 Zelaleko (ZG.: 18. or.)
- 2001 Zelaieta (EM.: F-1)
- 2002 Zelaieta (4-57) (KAT)

ZELETAOSTEA, -a (belardia)

Kokapena: Zeleta osteko landa.

OHARRAK: Ik. *Zeleta*. Lehenago ere aipatzen izan dut dokumentuetako izen bikoitzak ez direla zehatzak eta sarritan atal ezberdinak ezkututzen dituztela, 1949ko adibidean froga daitekeen moduan. Osagaiak: Zeleta (izen nagusia) + oste(a) (Ik. *Zalduko Elexoste*).

Ahozkoa: [selétaostíe]

- 034, 035 “Selétaostíe”
- 039 “Etxóstiè”

Idatzizkoa:

- 1864 Celetaoste, monte en el termino de (ZJE.: 43, aza. 15)
- 1929 Seletoste, monte (BFA.: ADM, LIM, AX-410/02)
- 1933 Celetaoeste (hoy heredad) (BFA.: ADM, LIM, AX-0337/03)
- 1938 Celeta-oste (BFA.: ZUA, Zin. Ait., aza. 24, C-093)
- 1949 Zuberrizarra-Celetoste (BFA.: ZUA, Zin. Ait., ots. 31, C-093)
- 1949 Querizaluze-Celetaoste (BFA.: ZUA, Zin. Ait., abe. 31, C-093)
- 1952 Celetaostea (ZUA.: 1408. er., 68. or.)
- 1956 Celetaoste (DBN.: Zin. Ait., 136)

ZELETAURREA, -a (Etxaurrea, -a) (desagertutako soroa)

Kokapena: Iberduero dagoen zentrala egon zen.

OHARRAK: Ik. *Urkosolo - Zeleta*. Osagaiak: Zeleta (izen nagusia) + aurre(a) (Ik. *Zalduko Zubiaurre*).

Ahozkoa: [ečáurriè]

- 039 “Etxáurriè”

Idatzizkoa:

- 1863 Echeaurrea, heredades nombradas (DJE.: 116, eka. 8)
- 1866 Celeta-aurr(e)a, heredades en el término de (ZJE.: 65, ots. 26)
- 1885 Echeaurrea, heredades nombradas (ZJE.: 210, api. 14)
- 1950 Celeta aurrea, heredad en el término de (ZJE.: 538, ots. 26)
- 1952 Celetaurre (ZUA.: 1408. er., 213. or.)

ZELETAZPIA, -a (Etxazpia, -a) (basoa)

Kokapena: Zeleta baserri ostetik erreka-arro aldera.

OHARRAK: Ik. *Zeleta*. Osagaiak: Zeleta (izen nagusia) + azpi(a) (Ik. *Zalduko Agirrebeitiazpi*).

Ahozkoa: [šelétaášpi]

- 034, 035 “Selétaášpi”

Idatzizkoa:

- 1863 Echeaspia, heredades nombradas (DJE.: 116, eka. 8)
- 1878 Celetaazpiac, tres heredades llamadas (ZJE.: 182, abu. 10)
- 1885 Echeaspia, heredades nombradas (ZJE.: 210, api. 14)
- 1952 Celeta-azpiac (ZUA.: 1408. er., 203. or.)

ZULOETAERREKA (*Kanteraeerrika*)

Kokapena: Amazorbetik Bekoerreketaraino luzatzen den erreka-stoa.

OHARRAK: Ik. *Kortatxu*. Ahoz inork ez du erabiltzen. *Santamarina* aldetik datorren errekatxo honek bat egiten du *Bekoerreketa*rekin *Telleria* parean. Eta berriemaileen artean adostasunik ez egonik ere, badirudi *Kanteraeerrika* goiko aldeari legokiokeela eta *Kortatxu*, izen bereko basoaren parean.

Ahozkoa: [kaŋtéra eřékiè], [kořtácuko eřékiè]

- 014, 023 “Kortátxuko errekiè”
- 020, 033 “Kantéra erreka”
- 009, 025 “Kantéra errekiè”
- 045 “Kantéra errekiè, Kortátxu errekiè”

Idatzizkoa:

- 1597 Çulo etarreca, el dicho arroyo de (BFA, ZUA, H. Pap., urt. 1, 38/5)⁴³³
- 1622 Çuloetaerreca, por un rroble que corto en (BFA, ZUA, Kon. Lib., urt. 1, 38/2)
- 1700 Zuluetaerreca, arroyo (BFA.: ZUA, Men. Kon., 6/50)⁴³⁴
- 1952 Cantera-erreca (ZUA.: 1408. er., 109. or.)

ZURIGAIN (*txaleta*)

Kokapena: Zurikarai eta Goikoetxea baserrien artean eraikitako txaleta.

OHARRAK: Ik. II. atalean, *Oikonimia*.

“Terrenuen isenik es eben sekula esan, se geuk esan genduen: - Selan ipiniko tzau etxiari isena? da eurokin ibilli giñen da, estaki pa, nik pentzatzen naban, ba, *aittitte ta amama* ero olako bat ipintzie pentzatzen naban, da esetz esatestan Bisentek: - Es, es, amengo sera, bertako isenaz. Ba, Surigain da olantxe geratu da” (M. Balmaña).

Ahozkoa: [šurígain]

- 009, 023 “Surigain”
- 013 “Urkídin txaléta”
- 065 “Surigáne”
- 066 “Surigaiñ, Surigain”

433. “la cabecera e confin dela dicha corta de cabaleta, fueron por el dho sendero atrabesando por la barreira dela dicha corta hazia el dicho arroyo de *Çulo etarreca*”.

434. “*Zuluetaerreca*, arroyo entre *Cortachu* y *Zaualeta* que se dirige para *Olaerreaga* a frente de heredades y monte llamados *Pagazubiaga* pertenecientes al barrio de Eizaga”.



Zurigain txaleta (2002) (AE)

Idatzizkoa:

- 1983 Zurigain, casa unifamiliar denominada (ZJE.: 1396, mar. 11)
- 1996 Bº Goierri - Zuri-gane, Caserío (ZUA.: BUE, 1405. er.)
- 2001 Bº Goierri - Zuri-gane, Caserío (ZU.: BUE)

Kartografikoa:

- 2001 Zurigane, Chalet (ZG.: 18. or.)

ZURIKARAI⁴³⁵ (*baserria*)

Kokapena: Elorriaga eta Luzar arteko baserria.

OHARRAK: XVII. mendean baserriaz gainera, garaia eta arnaga egon omen ziren⁴³⁶. Jabetza Erregistroko lehen eskriturretan ez dira soroen izenak aipatzen eta hauxe irakur daiteke: “*Varias heredades sin nombre especial*”. Eraikinari dagokionez, penagarria da atarte aurrean itsatsitako teilapea, baita bere egoera gero eta txarragoa dela ikustea. Argazkian berrets daitekeenez, armarria bera⁴³⁷ txorien kakaz josita dago.

435. Bitxia da oso J. Ibarrek egiten digun interpretazio toponimikoa, hots, “Este solar de *Zuricalday*, que por corrupción se denomina también *Zuricaray* o *Zubicaray*” (*Escudos...*- 34. or.). Dokumentazioa aztertuta, argi dago *korruptzioa* nondik datorren. Zoritxarrez, J. Kerexetak berak jarraitzen dio eta *Garitaonandian* bezala, grafemak nahasten ditu: “*Zubicaray*. En Gipuzkoa y en Zaldibar (B). var. de *Zubigaray* o de *Zuricalday*” (*Diccionario...*- IV, 424. or.). Are gehiago, bere lanean bertan XVI. mendeko deiturrekin kontraesanen dago, hots: “Juan Pères de *Zuricaray*, trae por armas un árbol verde y colgado de un gancho seco de junto a la copa, a la mano derecha del escudo o anterior, un calderón al fuego, pendiente de una cadena de hierro, que son las armas de la casa Zaldivar...” (*Diccionario...*-VI, 336. or.).

436. Esaterako, 1628/8/13an: “Cuatro mançanos questan entre el horrio y arnaga de la dha cassa de *Çuricaray*” (BPAH.: NOT, JBG, 79. p. s.).

437. Ibarra, J.: “ESCUDO DE *ZURICALDAY* EN EL CASERIO DE *ZURICALDAY*. Sobre cartela y asomando en lo alto, en lugar de yelmo, un brazo con una bandera, el escudo luce árbol con caldera pendiente a su lado diestro y cuatro lobos, dos al pie del árbol y otros dos empinados a la caldera” (*Escudos...*- 34. or.).



Zurikarai baserria (2002) (AE)

“Ori san Surikarai, ámen arrixte, sera lurre kentze osunien, arríxe da suri-suridxe, da dana apurtu eitten da ori, karíe deko órrek askó! Orreaitxi da orren baserrixorren isena, nik uste ot e! Surikarai karíe surídxe, ori neuk pentzau itte ot, baserríkuek eure pe es ekixen seaitxi san Surikarai” (V. Urkidi).

Abozkoa: [šuríkarai]

- 003, 004, 007, 008, 009, 023, 033, 039, 044, 057, 065, 066, 075 “Surikarai”

Idatzizkoa:

- 1628 Arnaga de Çuricaray, mitad de la cassa llamada (BPAH.: NOT, JBG, 79. p. s., abu. 13)
- 1628 Çuricaray, la dha cassa de (BPAH.: NOT, JBG, 79. p. s., abu. 13)
- 1630 Çuricaray, en la cassa de (BPAH.: NOT, JBG, 80. p. s., uzt. 23)
- 1637 Çuricaray, en la sepultura de (BEHA.: HIL1, abe. 9)
- 1638 Çuricaray, en la sepultura desta mi cassa de (BPAH.: NOT, JBG, 83. p. s., api. 9)
- 1641 Çuricaray, en la sepultura de (BEHA.: HIL1, urt. 29)
- 1650 Çuricaray, en la cassa de (BPAH.: NOT, JBG, 91. p. s., urr. 28)
- 1655 Zuricaray, en la sepultura de (BEHA.: HIL1, urt. 8)
- 1657 Zuricarai, su cassa de (BEHA.: ORD)
- 1659 Curicaray, en la casa de (BPAH.: NOT, PRG, 139. p. s., uzt. 20)
- 1660 Curicaray, censo sobre la cassa y cassª de (BPAH.: NOT, PRG, 140. p. s., mai. 6)
- 1664 Zuricaray, dha casa de (BEHA.: ORD, mai. 18)
- 1676 Zuricaray, sobre mi casa y cassª de (BPAH.: NOT, DL, 156. p. s., abe. 28)
- 1677 Zuricaray, en la cassa y cassª de (DMD.: AST, Auz-0075)
- 1680 Çuricaray, en su cassa de (BPAH.: NOT, DL, 157. p. s., urr. 29)
- 1680 Zubicaray, la caseria de... y su accesoria (BFA.: ZUA, Dok. His., 3/81)
- 1694 Zuricaray, petizion que hizo sobre la caseria de (BFA.: ZUA, Kon. Lib., urt. 1, 38/1)



Armarri kakaztua (2002) (AE)

- 1700 Zuricarai, caseria (BFA.: ZUA, Dok. His., 3/33)
- 1704 Zubicaray, Casa de (BFA.: ADM, OGE, Fog., 1. er., 232. or.)
- 1719 Suricaray, mitad de la caseria de (BFA.: ZUA, Kon. Lib., urt. 1, C-037)
- 1744 Zuricarai, en la sepultura de (BEHA.: HIL2, abe. 20)
- 1745 Zuricaray, la caseria de (BFA.: ADM, OGE, Fog., 2. er., 185. or.)
- 1772 Zuricaray, en la sepultura de (BEHA.: HIL2, mar. 13)⁴³⁸
- 1775 Zuricaray, casa de (BFA.: BFA.: ZUA, Dok. His., urt. 1, 41/1)
- 1796 Zubicaray, Ytten la de (BFA.: ADM, OGE, Fog., 5. er., 198. or.)
- 1798 Zubicaray, Casa de (BFA.: ADM, OGE, Fog., 6. er., 429. or.)
- 1808 Zuricaray, por las caserías de (BFA.: ZUA, Kon. Lib., ots. 15, 41/2)
- 1810 Zubicaray (BFA.: ZUA, Kon. Lib., aza. 1, C-039)
- 1813 Santiago de Zuricaray Ynqno en la Casa de su apellido (BFA.: ZUA, Dok. His., 4/4)
- 1856 Zuricaray, Uruburu y Urizarg^a (ESK.: 036)
- 1875 Zuricaray (BEHA.: H. Pap., VC. Kof.)
- 1876 Zubicaray, caserío de (ZJE.: 169, abe. 1)
- 1889 Zuricaray, en la caseria de (BEHA.: BAT, urt. 27)
- 1894 Zuricaray, casería de (ZSAE.: HIL4/19)⁴³⁹
- 1909 Zuricaray, casería de (ZSAE.: BAT7/2)
- 1917 Zuricaray, casería de (ZSAE.: BAT7/6)
- 1922 Subicaray, Caserío (BFA.: ADM, OGE, AH-07)⁴⁴⁰
- 1930 Zuricaray, caserío (BFA.: ADM, OGE, AH-54)⁴⁴¹

438. Datu berberak: 1777, 1788, 1792.

439. Datu berberak: 1896, 1906.

440. Datu berberak: 1926 (AH-31).

441. Datu berberak: 1932 (AH-68), 1935 (AH-86).

- 1933 Zuricaray, vecinos de los caserios denominados (BFA.: ZUA, Ak. Lib., ira. 17, C-020)
- 1935 Zuricaray, raciones por arreglo de carreteras (BFA.: ZUA, Kon. Lib., ira. 20, C-055)
- 1939 Zuricaray, C° (BFA.: ZUA, Ban., 67/89)
- 1940 Zuricaray, casería de (ZSAE.: BAT8/14)⁴⁴²
- 1952 Zuricaray, C° (ZUA.: 1408. er., 116. or.)
- 1965 Zuricaray, caserío (ZSAE.: HIL5/22)
- 1966 Zuricaray, caserío (ZSAE.: HIL6/10)
- 1967 Zuricalday, en el caserío de (J. Ibarra: *Escudos...* - 34. or.)
- 1970 Zuricaray (ZUA.: BUE, 1400. er.)
- 1979 Zuricarai, encima del caserío (COR.: I. libk., urt. 22)
- 1981 Zuricaray, Caserío - B° Goi-herri (ZUA.: BUE, 1402. er.)
- 1991 Barrio de Goiherri - Zurikarai (AZ.: 25. or.)
- 2000 Zuri Karai, Camino (ZU.: OI, 1. 4/13)

Kartografikoa:

- 1912 Zubiquerai (BFA.: ADM, HLG, AGV-DC-277/1)
- 1958 Zuricaray (BFA.: ADM, HLG, AGV-DC-1835)
- 1995 Zurikarai (BFA.: 62-64)
- 2001 Zurikarai (ZG.: 18. or.)

ZURIKARAIALDE (*belardia*)

Kokapena: Ermurako eta Elorriaga baserrirako errepideen arteko landa.

OHARRAK: Ik. *Zurikarai*. Osagaiak: Zurikarai (izen nagusia) + alde (Ik. *Errementarialdea*).

Ahozkoa: [ʃurikarai̯ al̯d̯ie]

- 009 “Surikarai aldíe”

Idatzizkoa:

- 1869 Zuricarayalde, heredades llamadas (ZJE.: 117, mai. 31)
- 1952 Zuricarayalde (ZUA.: 1408, 82. or.)
- 1979 Zuricaray-alde, parcela denominada (ZJE.: 1902, api. 17)

442. Datu berberak: 1943, 1945.

X
EITZAGA ALDEKO
LEKU-IZENAK



Eitzaga auzoa (2004) (MB)

Jarraian aurkezten den atala *Eitzaga* auzoari dagokio. *Eitzaga* Zaldibarko auzoa bada ere, Areitio mendiak bertako biztanleek Zaldibarrera baino, Ermura, Eibarrera edo Elgetarako joera handiagoa izatea eragin du, muga natural gisa funtzionatuz. Hori berau izan zen *Ermua-Eitzaga: leku-izenak. Gure izanaren barrena* azterketa lana egin nuenean *Eitzaga* Ermuarekin batera aztertzeko arrazoia eta horrela 2001ean Euskaltzaindiko *Onomasticon Vasconiae* bilduman argitaratu zen. Hiru urte geroago, Alberto Erraztik egindakoa oinarritzat hartuta, auzo honen atala behin betiko osatzeari ekin dio, nire garaian batu ez nituen ekarpen berriak eginez eta horrek guztiak bion artean eztabaidatuz. Oraingoan, Albertok, Zaldibarko udalak darabilen antolaketa administratiboari jarraituz, leku-izen guztiak *Eitzaga* izenburu bakar azpian batu ditu. Neuk, ostera, *Eitzaga* auzoa hiru ataletan banatu nuen: batetik *Sallabente* atala, non Zaldibarko atala eta Ermukoa batu nituen, bestetik *Eitzaga* eta azkenik *Olaerreaga*.

Eitzaga auzoari *Arriolaerreka* eta *Beko erreka* artean dagoen parajeak eman zion izena. Bere lehen aipamena 1488koa da, eta handik hona forma desberdinetan eman zaigu. Hala ere, izen honen jatorria eta esanahia ez dira ezagunak. Toponimia arloan egiten diren lanei esker, auzoaren sorreran bertako biztanleek eman nahi izan zioten esanahiari, hau da, ikusitakoak sortarazi zien sentimenduari hurbil gakizkioke.

Izenak batzen dituen hiru osagaiak nabarmen agertzen dira. Lehena *-aga* atzizkia dugu, gure parajeen aski ezaguna dena (*Pagazubiaga, Kareaga, Olaerreaga, Kareobiaga...*) eta lekua edota, Toribo Etxebarriak bere *Flexiones Verbales y Lexicón del Euskera Dialectal de Eibar* izeneko hiztegian¹ jaso zuenez, bidea esan gura duena. Azken hau, hain zuzen, historia azterketek eman dizkiguten emaitzei gehien hurbiltzen zaiena da. Bertatik, *Areitio* gaina zeharkatu eta Durangaldera sartzeko bidea pasatzen zelako. Haren islada, oraindik, nagusien ahotan gordetzen den *Kaltzadazarra* izenean agertzen zaigu eta haren aztarnak, duela gutxi arte, Goierriarako bidean ikus zitezkeen.

Bigarren osagaiari dagokionez, berriz, *za* atzizkia dugu ugaritasuna adierazten duena, atzizki hau gure parean ez da oso ohikoa, baina lantzean behin agertzen da (*Asuntza, Pagatza...*).

1. ETXEBARRIA, Toribio (1986): *Flexiones Verbales y Lexicón del Euskera Dialectal de Eibar*. Euskaltzaindia. Bilbo.

Hirugarren osagaia aztertzen dugunean, idatzizko dokumentazioak ez digu argibide handirik ematen, osagai hau era desberdinetan eman delako (*hey*, *hei*, *ei*, *i*). Kasu honetan, nik neuk ez nituzke baztertuko naturak ematen dizkiguten argibideak. *Arriolaerreka* eta *Beko erreka* elkartzen diren lekuan, erreka bazterretan, berde koloreko enbordon landareak daude. Landare hau apurtzen dugunean ura irteten da eta euskaraz *ibi* esaten zaio (latineraz *Juncus sp.*). Izena, beraz, hortik eratorria izan daiteke:

*ibi** > *hey* > *hei* > *ei* > *i* > *i*
ei + *za* + *aga* = *eitzaga*

Olaerreaga auzoaren aipamena, auzo modura oso berandura arte agertzen ez bada ere, 1372an *Ermuko Sorrerako Baieztapen Gutunean*, Ermuak zituen mugak hazztean aipatzen da². Eitzaga kasuan legez, *-aga* lekua/bidea azaltzen duen atzizkia hartzen du. Bertatik pasatzen zen *Pagazubiaga* bidea eta bertantxe kokatzen da Bizkaia eta Gipuzkoaren arteko muga, gerra aurrean *Katea* bertan ezarri zelarrik.

Bigarren osagaia *errege* dugu. Biak elkartuz *errege* + *aga*, gaztelaniaz *camino real* esaten zaiona.

Azken osagaiari dagokionez, eraikinaren funtzioa azaltzen digun *ola* berba dugu (*Munikola*, *Olaetxe*, *Otaola*, *Arriola*, *Mendiola*...), Bizkaian izan den olarik nagusietariko bat bertan egon baitzen. *Enkarterritik* burdina-harria ekarri, bertan galdatu eta lanabesetarako eta armetarako prestatzen zuten, gero *Ego* bazterretan dauden *Eibar*, *Ermua*, *Soraluze* edota *Eitzagan* bertan azken findua emateko.

1794an, Konbentzio gerran frantsesek Ermua erre eta ihes egitean, ola honi sua eman zioten eta hortik herriak eratorriko etimologia faltsua sortu zen: *errege* + *aga* > *erreaga* > *errea* > *erria*, hau da, erretako ola.

Sallabente, *aztergai dugun azken gunea da. Gaur egun Ego ibaiak muga egiten du, hala ere auzo hau beti Ermuarekin oso loturik egon da, bertako ermitak, Eitzagako San Pedrok ermitak bezalaxe, Ermuko elizarekiko izan duen menpekotasuna lekuko. Dena den, bestelako arrazoiengatik alde hau Zaldibar eta Ermuak banatua izan da, oso naturala ez den banaketa sortuz. Bertako leku-izenak ikustea besterik ez dago: Sallabentegoikoa errota zena Ermuan zegoen eta Sallabentebekoa, berriz, Zaldibarren, Sallabente ermita Zaldibarren dugu, baina Sallabenteaurre baserria Ermuan...*

Auzo honen lehen aipamena 1516koa da eta ermita aipatzen denean agertzen da. Lehenago, Ego errekek ematen duen urari etekin handiena atera nahian errotak egongo ziren eta geroago, ziurraski, Sallabente ermita altxatu zuten. Antza denez, ermita baino lehenago auzoa ere ez zen izango. Hala pentsarazten digute Bizkaiko Artxibo Historiko Probintzialean gordetzen diren 1623ko esku-izkribuek, Sallabente tarte honetan ziurtasun osoz kokatu ezin izan ditugun Bolunsarri izeneko erroten aipamenak³ jasotzen baitira. Errotok Ermuan zeudela eta Ermuko Baldespina markesarenak zirela jasotzen bada ere, garaiko Ermuko erroten errolda eginda, Ermuan ez zeudela ondoriozta daiteke eta orduan ere, historian oraintsu arte bezalaxe, muga oso nahasi zela. Azken finean, Bolunsarri errota hauek Sallabente ermita altxatu zutenean ermitaren izena hartuko zuten (Sallabentegoikoa eta Sallabentebekoa).

Etimologiari dagokionez, *Sallabente* auzoak ermitatik hartu du izena.

Saint Laurente (latinera) > Sant Llorente (1516) > Sallorente (1623) > Sallabente

Sallabente, 2004ko irailaren 30a
Fernando Aranberri Odriozola

2. ONAINDIA ESTRADA, Ignacio (1971): *Ermua I*, Graficas Onaindia. Ermua.

3. 1623 Bolunsarri (BAHP.: JBG, 77 zk, 93. or).

1623 Bolunsarri, molinos de (BAHP.: JBG, 80 zk, 138. or).

1661 la Barrena de Bolunsarria (BAHP.: JRG, 140 zk, 2. zatia, 174. or).

Leku-izenen fitxen egituran adierazten nuen legez, *Zaldibarko* auzo batean toponimia aurretik batuta egon izanak baldintzatu egin du nire lana. Horrek baditu bere abantailak (ETDrekin gertatu bezala, ez da zertan hasi hutsetik), baina alperrikako bikoizketak ekidin behar dira, nire ustez. Hori dela-eta, *Eitzaga auzoa* gehigarritzat hartu dut, hau da, fitxaren egitura aldatu ez arren, beste modu batera jokatu dut, hots, batetik, leku-izen guztiak elkartu egin ditut (*Kokapena* atalean zehaztuko da nongoan diren); bestetik, ahozkoan F. Aranberriren liburutik harturiko formarik erabiliena sartu dut, berriemailearen zenbaki gabekoa; hori bai, batzuetan, nire informatzaileek (ia guztiak dira bere lanean agerturikoak) ekarritako berritasunen bat egonez gero, zenbakia txertatu egin da, irakurleak noren lekukotza den jakin dezan, eta amaitzeko, dokumentazioan, datu berriak baino ez ditut aipatu. Nire benetako ekarpena *dokumentu kartografikoetan* datzanez gero, horretan jardun dut bereziki. Esan gabe doa, F. Aranberrik idatzitakotik kanpoko beste informaziorik lortu ez bada, toponimo horiek kendu egin direla. Hala ere, baten batek toki-izen bati buruzko xehetasun gehiago nahi izango balitu, *Ermua-Eitzaga leku-izenak* deritzon liburua irakurtzea luke.

OHARRAK: Arestian adierazi bezala, atal honetarako hautatu den *Eitzaga aldeko leku-izenak* izenburu horren bidez, *Eitzaga* bera eta *Olaerreaga* eta *Sallabente* biztanle-gu-neak uztartzen dira. Osagaiak: Eitza⁴ (izen arrunta) + -aga (Ik. *Gazagako Antsoaga*).

Ahozkoa: [eĩçá]⁵

- 002, 007, 008, 018, 070 “Eitza”
- 003, 012, 023, 028, 030, 035, 045 “Éitza”

Idatzizkoa:

- 1581 Eizaga, Camino Real de... a Areittio (BFA.: ZUA, Dok. His., 2/3)
- 1586 Eizaga, el camino que entre la termada del varrio de (BFA.: ZUA, Dok. His., 2/3)
- 1597 Heiçaga, en... desta mindad de Durango (BFA.: ZUA, Kont.Lib., H. Pap., urt. 1, 38/5)
- 1603 Heiçaga, Doña Ysabel de Lobiano en las sus casas de (BEHA.: HIL1/ira. 3)
- 1636 Heiçaga, abissar a los de (BFA.: ZUA, Kon. Lib., urt. 11, urt. 1, 38/2)
- 1649 Heyçaga, en... de la merindad de Durango (BFA.: ZUA, Dok. His., 3/52)⁶
- 1689 Heyzaga, en el barrio de (EAEA.: PKA, MA, 80/2019) ots. 12
- 1694 Heizaga, en adrezar y componer lapuente de (BFA.: ZUA, Kon. Lib., urt. 1, 38/1)
- 17... Eyzaga, casa (BFA.: ZUA, Dok. His., 3/33)
- 1718 Eizaga, componer el Camino Real de (BFA.: ZUA, Kon. Lib., urt. 1, C-037)
- 1752 Eizaga, en la cofradia de (BPAH.: HIP, 1105/06. mik., 61. zk., mar. 14)
- 1753 Eyzaga, tierra de zinco pies de manzano en el termino de (BEHA.: ORD)
- 1757 Eizaga, componer el camino carretil de... a Ariola (BFA.: ZUA, Kon. Lib., urt. 31, C-037)
- 1760 Eizaga, desde biazcoechea p^a (BFA.: ZUA, Kon.Lib, urt. 1, 41/1)

4. K. Mítxelenak lehen osagaiak hiru aukera aurkezten dizkigu: edo Aitz- Atx-, edo Aize-, edo Eiza-berbetatik bilakaturikoa izatea (AV, 41-42.orr.). Nik neuk, beste proposamen bat gehiago egin nuen *Bizkaiko Bira* liburuan, *hegi* berbatik etor zitekeela (98. or.). Dena dela, F. Aranberrik hitzaurrean esandako hipotesia bideragarriagoa izan liteke, *Eitzaga* aldean ihi ugari baitzeuden.

5. Azentuari dagokionez, testuinguru fonetiko batzuetan “Éitza” ere entzun daiteke.

6. Jatorrizko dokumentua: 1439/07/04.

- 1764 Eizaga, el camino de las casas de... a St^a Marina (BFA.: ZUA, Kon. Lib., urt. 22, 41/1)
- 1778 Eizaga, varrio de (BFA.: ZUA, Men.Kon, 6/53)
- 1780 Eizaga, desde el puente de Espilaspi y hasta el de (BFA.: ZUA, Dok. His., 3/98)
- 1791 Eizaga, Bisinay en el Varrio de (BPAH.: HIP, 1090/1091. mik., 188zk., abe. 29)
- 1797 Yzaga / Eizaga, varrio de (BFA.: ZUA, Kon. Lib., ots. 5, 41/2)
- 1812 Eyzaga, carreteros del Barrio de (BFA.: ZUA, Kon. Lib., urt. 2, C-039)
- 1813 Eizaga, los trigos del Varrio de (BFA.: ZUA, Kon. Lib., abu. 14, C-039)
- 1849 Eyzaga, hacia la parte de (BFA.: ZUA, Men. Kon., 6/85)
- 1863 Eizaga, en la barriada de (ZJE.: 2, urr. 7)
- 1864 Eizaga, en la barriada de (ZJE.: 38, urr. 15)
- 1864 Eizaga, riachuelo que baja a la barriada de (ZJE.: 22, abu. 18)
- 1865 Eizaga, fué a la suerte [...] y resulto primo (BFA.: ZUA, Ak. Lib., mai. 13, C-014)
- 1875 Eizaga, Barrio de (BFA.: ZUA, Kon. Lib., uzt. 23, C-040)
- 1876 Eizaga, Barrio (BFA.: ZUA, Sol., urr. 10, C-080)⁷
- 1877 Eizaga (BFA.: ZUA, Ak. Lib., urr. 10, C-014)
- 1880 Eizaga (BFA.: ZUA, Haut., C-078)
- 1886 Eizaga, en el Barrio (ZEE.: JA1/3)
- 1884 Eizaga (BFA.: ZUA, Ak. Lib., uzt. 27, C-015)
- 1886 Eizaga (BFA.: ZUA, Ak. Lib., abu. 15, C-015)
- 1888 Eizaga, en el barrio de (ZEE.: JA1/70)
- 1889 Eizaga, en el barrio de (ZEE.: JA2/28)
- 1890 Eizaga (BFA.: ZUA, Ak. Lib., abu. 29, C-015)
- 1891 Eizaga (ZEE.: HE2/59)
- 1892 Eizaga (BFA.: ZUA, Ak. Lib., abu. 7, C-015)
- 1893 Eyzaga / Eizaga (BFA.: ZUA, Haut., C-078)
- 1895 Eizaga (BFA.: ZUA, Ak. Lib., abu. 4, C-015)
- 1896 Eizaga (BFA.: ZUA, Ak. Lib., uzt. 19, C-015)
- 1898 Eizaga (BFA.: ZUA, Ak. Lib., uzt. 3, C-015)
- 1900 Eizaga, en el barrio de (ZEE.: JA3/36)
- 1901 Eizaga (BFA.: ZUA, Ak. Lib., ots. 3, C-015)
- 1902 Eizaga (BFA.: ZUA, Ak. Lib., urt. 19, C-016)⁸
- 1905 Eizaga, del barrio de (ZEE.: JA4/57)
- 1906 Eizaga, del barrio de (ZEE.: JA4/65)
- 1912 Eizaga, del barrio de (ZEE.: JA6/11)
- 1915 Eizaga (BFA.: ZUA, Ak. Lib., ots. 28, C-017)
- 1916 Eizaga (BFA.: ZUA, Ak. Lib., ots. 4, C-017)
- 1917 Eizaga, en el barrio de (ZEE.: HE6/36)
- 1918 Eizaga (BFA.: ZUA, Haut., C-078)
- 1920 Yzaga/Eizaga, del barrio de (ZEE.: JA8/18)
- 1922 Eizaga, Barrio (BFA.: ADM, OGE, AH-07)⁹

7. Datu berberak: 1878, 1881, 1883.

8. Datu berberak: 1903, 1906, 1907, 1908, 1909, 1910, 1911, 1913, 1916.

9. Datu berberak: 1926 (Eizaga-AH-31), 1930 (AH-54), 1932 (AH-68), 1935 (AH-86).

- 1923 Eizaga (BFA.: ZUA, Haut., C-078)
- 1926 Eizaga / Eitzaga, Barrio (BFA.: ADM, OGE, AH-31)
- 1927 Eizaga, Barrio (BFA.: ZUA, Sol., urt. 13, C-080)
- 1929 Eizaga, Barrio de (BFA.: ZUA, Sol., ots. 10, C-081)
- 1930 Eizaga, del barrio de (ZEZ.: JA9/156)
- 1931 Eizaga, Barrio de (BFA.: ZUA, Sol., urt. 11, C-081)
- 1932 Eizaga, arbitrios municipales de (BFA.: ZUA, Kon. Lib., urt. 31, C-054)
- 1933 Eizaga, Barrio de (BFA.: ZUA, Sol., urt. 15, C-081)
- 1934 Eizaga, B° (BFA.: ZUA, Haut., api. 6, C-079)
- 1935 Eizaga, en el barrio de (BFA.: ZUA, Kon. Lib., mai. 15, C-055)
- 1936 Eizaga, Barrio de (BFA.: ZUA, Sol., urt. 12, C-081)
- 1937 Eizaga, arbitrios municipales de (BFA.: ZUA, Kon. Lib., mar. 31, C-056)
- 1938 Eizaga, Barriada de (BFA.: ZUA, Zin. Ait., aza. 22, C-093)
- 1940 Eizaga (BFA.: ZUA, Sol., urt. 31, C-081)
- 1947 Eizaga, del barrio de (ZEZ.: JA11/9)
- 1950 Barrio de Eizaga - San Lorenzo (ZUA.: BUE, 1393. er.)
- 1952 Eizaga, Barrio de (ZUA.: 1408. er., 1. or.)
- 1960 Eizaga (ZUA.: BUE, 1395. er.)
- 1978 Eizaga, iluminación de los barrios (COR.: I. libk., mar. 5)
- 1979 Eitzaga-barrio, entidades de población: (ZUA.: Ak. Lib., mai. 21, 0435. er.)
- 1981 Eitzako auzoa/barrio (ZUA.: BUE, 1402. er.)
- 1982 Eitzaga, cobertura de la regata Beco-erreketa en el B° (ZUA.: Ak. Lib., uzt. 6, 0435. er.)
- 1983 Eitzaga, terminen los caminos de los barrios... incluído (KAL.: 14. zk., 11. or.)
- 1985 Eizaga, barrios de (COR.: II. libk., eka.16)
- 1991 Eitzaga, barrio de (AZ.: 6. or.)
- 1993 Eitzaga, auzunea (ZG.: 2. or.)
- 1994 Eitzaga auzoa (ZAL.: 2. zk., 5. or.)
- 1995 Eitzaga, hiru nekazal auzo ere baditu: ...Gazaga eta Goiherri (ERAZ.: 85. zk., 10. or.)
- 1996 Eitzaga, auzunea (ZG.: 2. or.)
- 1999 Eitzaga, auzunea (ZG.: 3. or.)
- 2001 Eitzagako ur horniketea konponduko dabe (ANBOTO.: 8. zk., 7. or.)
- 2002/03 Eitzaga Auzoa (Eitzaga) (TEL.: OZ, 752. or.)

Kartografikoa:

- 1923 Isaga, Camino de (MTV)
- 1934 Eizaga (BMT.: 6)
- 1954 Eizaga (IGC.: Eibar 63)
- 1957 Eizaga, barrio de (BFA.: ADM, HLG, AGV-DC 1831)
- 1966 Eizaga (BFA.: G/407)
- 1983 Eizaga (IGN.: Eibar 63-III)
- 1991 Eitzaga (AZ.: 5. or.)
- 1994 Eitzaga (EJ.: DM, 5. zk.)
- 1995 Eitzaga-Auzunea (BFA.: 63-57)
- 1996 Eitzaga Auzoa (ZG.: 27. or.)
- 1999 Eitzaga Auzoa (ZG.: 12. or.)
- 2001 Eitzaga Auzoa (ZG.: 18. or.)

- 2001 Eitzaga (EM.: E-3)
- 2002 Izaga (4/199, 207) - Eitzaga (5/87, 154) (KAT)

*AGINDI*¹⁰ (*basoa*)

Kokapena: Olaerreagan. Munikola.

OHARRAK: J. San Martinek 1498an, *Aginagan* “*la dehesa de Aguindi*” jasotzen du (*Eibar...*, 6. or.). Nire berriemaileak sabaitzeko joera erakusten du. Osagaiak: Agin (*Taxus baccata*) + -di (Ik. *Gazagako Otadui*).

Ahozkoa: [ájinyi]

- 070 “Áinyi”

Kartografikoa:

- 1923 Aguinde (MTV)

*AGIRRE*¹¹ (*etxea*)

Kokapena: Sallabente auzoa, 5. zk.

OHARRAK: Ik. *Zalduko Agirresakona*.

Ahozkoa: [agíre]

- “Agirre etxia”

Idatzizkoa:

- 1960 Ermitakua, sobre el solar de (ZUA.: LNE, 0969/011)¹²
- 1966 Casa en el barrio de S. Lorenzo (ZJE.: 726, mar. 28)

Kartografikoa:

- 2001 Agirre (EM.: E-4)

*ALBIZURI*¹³ (*harrobia*)

Kokapena: Sallabenten.

OHARRAK: Autopista gaineko harrobia. Osagaiak: Albi(t)z¹⁴ (izen arrunta) + zuri¹⁵ (izenondoa).

Ahozkoa: [albísuri]

- “Albísuri”
- “Kantéria”

10. Aranberri, F.: *EE*, 3. or. - J. San Martinek ere aipatzen du bere lanean (*Eibar...*, 26. or.).

11. Aranberri, F.: *EE*, 254. or.

12. “Solicitud de Esteban Agirre para la construcción de edificio destinado a lonjas en su parte baja y tres para seis viviendas en el barrio de S.Lorenzo sobre el solar de *Ermitakua*”.

13. Aranberri, F.: *EE*, 255. or. - HPSren ETDn: *Albizuri* basoa. - J. San Martinek izen bereko baserria dardarkigu bere lanean (26. or.).

14. Mitxelena, K.: “32.- *albitz* «heno»” (*AV*, 43. or.).

15. Interesgarria da oso P. Perurenak J. Sarrionandiaren hitzez baliatuz kolore honi buruz eginiko hausnarketak (*Koloreak...*, 171-219.orr.).



Albizuri harrobia (1970) (EU)

Idatzizkoa:

- 1462 Albiçuri, logar de (BFA.: ZUA, Dok. His., 2/10)
- 1696 Albizuri, en el termino de (BEHA.: ORD)¹⁶
- 1762 Albizuri solobarrena, terreno amojonado en (BFA.: ZUA, Men. Kon., 6/29)
- 1771 Albizuri, aprobecharse de los de (BFA.: ZUA, Men. Kon., 6/1)
- 1771 Albizuri solovarrena, monte (BFA.: ZUA, Men. Kon., 6/1)
- 1771 Albizurico errequea, monte de (BFA.: ZUA, Men. Kon., 6/1)
- 1784 Albizuriondo, en el termino de (BFA.: ZUA, Men. Kon., 6/46)
- 1792 Abizu, posesion de los terminos de (BFA.: ZUA, Men. Kon., 6/6)
- 1868 Alvizuri, monte arbolar poblado de robles y ayas en el término de (ZJE.: 101, api. 25)
- 1870 Albizuri o Municola Ariola., monte en el término de (ZJE.: 136, mar. 9)
- 1872 Albizuri, heredades en (ZJE.: 152, eka. 19)
- 1872 Albizuri o Echaburue castañaye, monte llamado (ZJE.: 148, ots. 10)
- 1878 Albizuri, heredad llamada (ZJE.: 185, aza. 16)
- 1922 Albizuri, Monte (BFA.: ADM, OGE, AH-07)¹⁷
- 1933 Albizuri, Becomotia, conocido en su hondonada por (ZJE.: 439, abu. 4)
- 1938 Albizuri (BFA.: ZUA, Zin. Ait., abe. 30, C-093)
- 1939 Albizuri (BFA.: ZUA, Zin. Ait., ots. 26, C-093)
- 1940 Albizuri, monte (BFA.: ZUA, Ban., 67/17)
- 1952 Albizuru (ZUA.: 1808. er., 140. or.)
- 1952 Albizuri y echaburuacastañay (ZUA.: 1808. er., 4. or.)
- 1965 Albizuri, monte arbolar en el término de (ZJE.: 803, urt. 22)

16. "hazer una heredad de nueba frozadura un pedazo grande de tierra en el termino de *Albizuri*".

17. Datu berberak: 1926 (AH-31), 1930 (AH-54), 1932 (AH-68), 1935 (AH-86).



Harrobiko tresneria (1970) (EU)

- 1956 Albizu (DNB.: Zin. Ait., 625)
- 1956 Albizuri (DNB.: Zin. Ait., 15, 411)
- 1964 Albizuri, junto a la cantera de (ZUA.: LNE, 0973/007)¹⁸
- 1965 Albizuri, monte arbolar en el término de (ZJE.: 803, urt. 22)
- 1972 Albizuri (DNB.: Zin. Ait., 166)
- 1975 Albizuri, negocio de cantera en (EU.: 995-996. esp.)
- 1979 Albizuri, agua del manantial (EU.: 999. esp.)

Kartografikoa:

- 1995 Albizuri (BFA.: 63-57)
- 2001 Albizuri (EM.: E-4)

ALBIZURIERREKA

Kokapena: Sallabenten.

OHARRAK: Ik. *Albizuri*. Osagaiak: Albizuri (izen nagusia) + erreka (izen arrunta).

Idatzizkoa:

- 1762 Albisurierreca, casa del marques de Baldespina en (BFA.: ZUA, Men. Kon., 6/29)
- 1771 Albizurico erreca, robledal de (BFA.: ZUA, Men. Kon., 6/4)
- 1771 Albizurico errequea, monte (BFA.: ZUA, Men. Kon., 6/4)

18. "Solicitud de Fco Bergaretxe de información urbanística para conocimiento del número de plantas para la construcción de viviendas junto a la cantera de *Albizuri*".

ALTZETA¹⁹ (*basoa*)

Kokapena: Eitzagan. Idoizarraga.

OHARRAK: Osagaiak: Altz(a) (*Alnus glutinosa*) + -eta (Ik. *Zalduko Mandapozueta*).

Ahozkoa: [álcaɾtia]

- “Altzartia”

Idatzizkoa:

- 1878 Alceta (ZJE.: 185, aza. 16)²⁰
- 1938 Alceta, Olaburu... y Gargaztarretaburu (BFA.: ZUA, Zin. Ait., abe. 3, C-093)
- 1952 Olaburu-Alceta (ZUA.: 1408. er., 1. or.)

Kartografikoa:

- 2001 Altzeta (EM.: E-3)

ANDAPARABURU (*soroa*)

Kokapena: Eitzagan. Idoizarraga.

OHARRAK: “Andáparie”²¹ Iurretan ura pilatzeko presatxo bat dugu; kasu honetan²², ostera, “aldápara” berbak aldats hitzarekin harremana omen du. Nik neuk, dokumentazioan oinarritu naiz normatibizatua hautatzeko. Osagaiak: Andapara²³ (izen arrunta) + buru (izena).

Ahozkoa: [a]ldáparabúru]

- “Aldáparabúru”

Idatzizkoa:

- 1938 Andaparaburu (BFA.: ZUA, Zin. Ait., abe. 6, C-093)
- 1952 Andapaburu (ZUA.: 1408. er., 159. or.)
- 1956 Andaparaburu (DNB.: Zin. Ait., 414)
- 1975 Aldaparauru, parte de la finca (EU.: 989. esp.)

Kartografikoa:

- 2001 Aldaparaburu (EM.: E-3-4)

ANTON²⁴ (*etxea*)

Kokapena: Sallabenten.

OHARRAK: Ormaetxea bertan bizi izandako familiaren deitura da.

Ahozkoa: [a]ntón]

- “Antón”

19. Ik. *Urzabal*.

20. “terreno helechal y castaño conocido con los nombres de *Olaburu*, *Alceta* y *Gastañetaburu*”.

21. Errazti, A.: *IEET*, 169. or.

22. Aranberri, F.: “*ALDAPARABURU*” (*EE*, 375. or.).

23. Azkue, R.M.: “*Andapara* (B-a-ub), cauce de molino, saetín” (*Diccionario...*, 42. or.).

24. Aranberri, F.: *EE*, 256. or.



Anton etxea (2004) (AE)

Idatzizkoa:

- 1949 “Solicitud de J.Ormaetxea para la construcción de una casa de vecindad en el barrio de *S. Lorenzo*” (ZUA.: LNE, 0966/022)
- 1953 “Solicitud de A.Ormaetxea para elevar un piso su casa en Eitzaga, paraje de *S. Lorenzo*” (ZUA.: LNE, 0966/038)
- 1961 Ormaechea, Casa denominada de... taller de reparación de motocicletas en la planta baja en San Lorenzo (BFA.: ZUA, Ak. Lib., mai. 30 , 433. er.)

ANTSOLA²⁵ (*basoa*)

Kokapena: Eitzagan. Idoizarraga.

OHARRAK: Ik. *Gazagako Antsoaga*. Osagaiak: Antso (antroponimoa) + ola²⁶ (atzikia).

Ahozkoa: [ancóla]

- 014 “Ansóla, Antzóla”
- 070 “Antzóla”

Idatzizkoa:

- 1339 Ansola, fasta el sel de (FDM.: AMEG, 9.dok., 19. or.)
- 1564 Ansola, monte llamado (EAEA.: PKA, MA, 80. libk./2012. er.)
- 1742 Ansola, para el dho pleito de (BFA.: ZUA, Kon. Lib., urt. 7, C-037)
- 1744 Ansola / Anzola, en todo el Tno de (BFA.: ZUA, Dok. His., 6/11)
- 1777 Ansola, monte concejil de e Yndoletta (BFA.: ZUA, Kon. Lib., urt. 19, 41/1)

25. Aranberri, F.: “*ANTZOLA*” (EE, 377. or.) - HPSren ETDn: *Antsola pinudia*.

26. Mitxelena, K.: “484.- *ola* «suf. derivativo local»(AZK.) [...] Se presenta también con nombres de persona” (AV, 138. or.).

- 1778 Ansola, aprovechamiento del monte de (BFA.: ZUA, Men. Kon., 6/31)
- 1779 Ansola, monte de e Yndoleta (BFA.: ZUA, Dok. His., 3/66)
- 1849 Anzola, terreno arbolar... a la parte del rio Yndoleta (BFA.: ZUA, Men. Kon., 6/85)
- 1860 Ansola (BFA.: ZUA, Men. Kon., urr. 26, 6/94)²⁷
- 1863 Anzola, monte titulado (ZJE.: 4, urr. 7)
- 1865 Ansola (ZJE.: 62, ira. 29)²⁸
- 1868 Ansola, arbolar en el término de (ZJE.: 99, api. 25)
